


**+**  Klimaterioa eta menopausia erdigunean

Alex Artzelusi elkarrizketa, Altxalili kolektiboaz

## DATUETATIK TIRAKA: HIRI-HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA



ITURRIA: DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Udalatxeko beheko gurutzea zegoen gunea. GOIENA

**Udalatx gunea babestua da eta ezin izango da gurutzerik jarri / 9**

**Abendu hasierara arte iraungo dute Bergarako udal pilotalekuko estalkia berritzeko lanek / 24**

**Zizur Nagusian aurkitu eta Zubillagara itzulitako harri landua zapatuan inauguratuko dute / 29**



**'Itsasoa hemen hasten da' azpimarratuko du biharko erreko auzolanak / 5**



**GOIENAKIDE: debagoiendarron komunitatea / 19**

### SINADURAK

 MADDI ETXABE HERIZ / 6	 MIKEL GOENAGA / 25
 OIANA SANCHEZ / 8	 MANU EGAÑA TXOPITEA / 29
 RESU ABASOLO GALLASTEGI / 14	 ANDER ETXEBERRIA / 40



**DATUETATIK TIRAKA: HIRI-HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA**

# Hiri-hondakinen gaikako bilketa beherantz doa

2014tik 2023ra bitartean, 2016an jo zuen goia bilketak, %80,19ko bilketa-tasarekin; egun, %72,41ean dago. Batik bat, bio-hondakinak batzen dira, eta hiri-hondakinak gehien sailkatzen dituen herria Antzuola da; Gipuzkoan, bigarrena da Debagoiena

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarría** DEBAGOIENA

Hiri-hondakinen gaikako bilketak beherantz joera du eskualdean, Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, hamar urteko epeari –2014tik 2023ra, zehazki– errepertuz gero.

Hiri-hondakin horiek gaika biltzeko, Oñatin eta Antzuolan atez ateko sistema dago; gainontzeko herrietan, aldiz, txartel bidezkoa. Aretxabaleta izan zen sistema hori ezartzen azkenekoa 2016an, eta, orduetik, Debagoieneko herri guztiek dute hiri-hondakin guztiak gaika sailkatzeko aukera. Bada, lehen urte horretan, 2016an, ibili ziren finen debagoiendarrak: hiri-hondakinak %80,19 jaso zituzten gaika, eta datua bestelakoa zen lehenago: 2014an, esate baterako, %59,77. 2016tik aurrera, ordea, ez da gorakadarik izan, beherantzkoa izan baita joera –2018tik 2019ra salbu, %0,02ko igoera egon baitzen– gaur egunera arte: 2023an hiri-hondakinak %72,41 bildu zen gaika.

**Batik bat, bio-hondakina**

Hiri-hondakinak 24.087.050,80 kilo batu ziren iaz Debagoiengan gaika, eta, batik bat, bio-hondakinak (%29,25) eta errefusa (%27,59) izan ziren. Ondoren, bata bestearen atzetik daude: papera eta kartoia (%12,62), bestelakoak –garbiguneetan eta berezitako hondakinak– (%11,37), ontzi arinak (%9,69) eta beira (%9,48).

**HIRI-HONDAKINEN  
24.087.050,80 KILO  
BATU ZIREN IAZ  
BAILARAN: 385,9 KILO  
PERTSONAKO**



Edukiontzia Arrasateko Garibai etorbidean. GOIENA

Datu orokorrez harago, badira bildutako hiri-hondakinak zenbatekoak emateko beste era batzuk, gertuagokoak izan daitezkeenak: Debagoiengan, adibidez, iaz sortu zen hiri-hondakinak zenbatekoa pertsonako 385,9 kilokoa izan zen; motaren arabera, berriz, bio-hondakinak 112,87 kilo ziren; errefusa, 106,47;

papera eta kartoia, 48,69; bestelakoak, 43,89; ontzi arinak, 37,39; eta, azkenik, beira, 36,59.

**Gehienbat, Antzuolan**

Datuei herriz herri errepertuz gero eta 2023koak gogoan izanez gero, ondorioetako bat da Antzuola dela hiri-hondakinak gehien sailkatzen dituen herria Debagoiengan –bai, behintzat, iaz–, %77,45koa baita kopurua; hurrenez hurren, berriz, Oñati (%74,69) eta Bergara (%74,06) ditu. Gutxien sailkatzen dituzten herrietan Eskoriatza (%69,71) eta Arrasate (%70,41) daude.

Aramaiori dagokionez, ez da Debagoieneko Mankomunitatearen parte, eta ez dago datu eskuragarriarik.

**Gipuzkoan, bigarren**

Gipuzkoako gainontzeko mankomunitateekin alderatuz gero, hiri-hondakinak gaikako bilketan Sasietakoa –Urola Garaia eta Goierri batzen ditu– dago Debagoienekoaren aurretik, hiri-hondakinak %76,13 biltzen baita; gutxien, berriz, San Markosen –Donostia barne du–: %49,7koa da bilketa-tasa. Gipuzkoako datu orokorrari dagokionez, azkenik, %57,16koa da; horrenbestez, errefusera doa gainontzeko guztia.

## "Biztanleria erlaxatu egin da pixkanaka"

**DORLETA ELKOROBARRUTIA** MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

2014tik 2023ra bilakaera nahiko irregularra izan du hiri-hondakinak gaikako bilketak eskualdean: 2016an jo zuen goia, eta beherantz egin du orduetik. Bada, datu horretatik abiatuta, gaiaz jardun du Dorleta Elkorobarrutiak, Debagoieneko Mankomunitateko lehendakariak.

**Zerk eragin du jaitsieran?**

Hondakin bilketen sistema pil-pilean zegoen lehen urteetan, eta debagoiendarrok oso barneratuta geneukan, eragin positiboa izanez. Hala ere, zerbait buruz hitz egiteari utziz gero, ahaztu egin ohi da, eta ingurumen arloan kontzientzia asko ez dutenengan hori gertatu delakoan gaude; erlaxatu egin da pixkanaka biztanleria. Mankomunitateak hondakinak bereizteko hobetzeko kanpainak egitea dugu asmo legealdi honetan.

**Gipuzkoan, ordea, gehien sailkatzen duen bigarren mankomunitatea da.**

Eskualde heldua, konprometitua eta arduratsua gara, hobetzeko tarte nabarmenarekin bada ere jarrera eraikitzailea duena.

**Ze ondorio dakartza behar bezala ez sailkatzeak?**

Ingurumen kaltea da garrantzitsua: jatorrian ondo bereizten ez den hondakina askotan ezin izaten da bereizteko-plantetan bereizi, eta errefusa izatera igarotzen da. Eta hori Zubietako plantan ezin bada bereizi, erraustu egiten da. Bestalde, ondorio ekonomikoak daude: jatorrian geroz eta hobeto bereiziz gero, hondakinak kudeaketa kostua

murrizten da. Hau da, hondakinak jatorrian ondo ez bereizte garesti iritertzen zaio ingurumenari eta herritarren poltsikoari.

**Posible al da egungo bilketaren zenbatekoa igotzea?**

Helburua galdutakoa erreperatzea, behintzat, izan beharko litzateke, eta uste dugu posible dela beherantzko joera irauli eta berritua ere gorantzkoa erdieste.

**Horretarako, zeintzuk dira Mankomunitatearen baliabideak?**

Hondakinak bilketari dagokionez, zati handi bat zuzeneko langileen bidez egiten du Mankomunitateak, eta gainontzekoa azpi-kontratekin. Zuzeneko zein zeharkako hondakin-bilketaren jarraipen eta kontrolerako, berriz, zortzi langile daude Ingurumen Zerbitzuan, eta garbigunez eta Epele zabortegiaz ere arduratzen dira, nagusiki. Horrez gain, baliabide materialetan, bilketarako ibilgailuen flota zabala dugu, eta ehunka edukiontzi, esekitoki,...

**Mankomunitatea, Gipuzkoako Hondakinak Kontsurtzioa, udalak,...; zein rol du bakoitzak?**

Udalek, hondakin bilketa eta kudeaketari dagokion eskumena, Mankomunitatearengan dute transferitua, eta berak du eskualdeko etxeko hondakinak bilketaren ardura; tratamendurako Gipuzkoako Hondakinak Kontsurtzioa, Ecodrio, Ekogras eta Emaus daude.

**Orain, zaborraren tasa igoko dute udalek. Zein eragin du?**

Europako legediak zehaztu du herritarrek hondakin bilketa eta kudeaketari dagokion kostu guztia ordaindu behar dutela ezinbestean, ezin delako zerbitzu defizitarioa izan udalarentzat. Horregatik igo beharko dute ia udal guztiek hondakinak tasa.



GOIENA

**"LEGEALDI HONETAN  
HONDAKINEN BEREIZKETA  
HOBETZEKO KANPAINAK  
EGITEKO ASMOA DUGU"**

### Herrietako bilketa-tasa

Herria	%
Antzuola	%77,45
Oñati	%74,69
Bergara	%74,06
Leintz Gatzaga	%73,34
Aretxabaleta	%71,82
Elgeta	%71,81
Arrasate	%70,41
Eskoriatza	%69,71

OHARRA: EZ DAGO ARAMAIOKO DATURIK ITURRIA: MANKOMUNITATEA

# "Gau Beltza urtetik urtera gehiago zabaltzen dabil"

**JOSU OZAITA AZPIROZ** GIZARTE ANTROPOLOGOA

Urriaren 31n ospatzen den Gau Beltza ikertu du Josu Ozaitak. 'Itzaletako kalabazen berpiztea' ikerketaren eta 'Gau Beltza' liburuaren egileetako bat da

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA

Josu Ozaita Azpiroz (Ibarra, 1980) antropologoa Elgetan izan zen eguaztenean, herritarrekin Gau Beltzari buruzko lanketa egiteko. Goizean eskolako haurrekin izan zen eta arratsaldean *Itzalitako kalabazen berpiztea* izeneko hitzaldia egin zuen.

**Espero zenuen liburuak eta festak izan duen garapena?**

2020an idatzi genuen liburua, baina aurretik, *Itzaletako kalabazen berpiztea* ikerketa etnografikoa egin nuen Jaime Altunarekin batera. Mamia han bildu genuen, eta Gau Beltza ipuina hurrei egindako itzulpena izan zen, irakurterrazagoa.



Josu Ozaita, Elgetako Espaloia kafe antzokian. MARKEL ARRAYAGO

2016an egin genuen ikerketa, duela zortzi urte. Landa-lana egin genuen. Antropologian teknika garrantzitsuenetako bat bertan egotea da, baina oso festa gutxi zeuden Arimaren Gauraren inguruan. Bat Elgetan zegoen, Bergaran ere bazen zerbait eta Oiartzunen ere indartsu zegoen, baina ez zeuden festa asko. Orain ikusten dugu urtetik urtera gehiago zabaltzen dabilela; indar handiarekin, gainera.

**Liburuaren gakoetako bat transmisioa da.**

Abiapuntua hori zen; aldaketak ikusten genituen egun horren bueltan. Gogoan dut txikitan nola jantzen ginen apain-apain eta joaten ginen hilerrira arbasoei loreak jartzera. Halako batean, hori desagertu egin zen, erlijioak garrantzia galdu duen bezala bere ohiturak ere galdu egin dira. Gero ikusten genuen beste mugimendu bat, Halloween kalea hartzen hasia zela pixka bat, mugimendu batzuk zeuden, jendea moztortzen zen eta tinbrea jotzen zuen. Beste elementu bat zen sortzen zebilen albiste bat, gure aitona-amonak duela hamarkada batzuk kalabazekin

jolasten zirela: kalabazak lapurtu baratzean, aurpegi forma eman, kandela bat jarri eta bide izkintan jarri jendea beldurtzeko. Antropologo bezala hori oso erakargarria zen, gaur egun horrelako fenomeno bat aztertzea, eta horrela sartu ginen ikerketa hori egitera. Gure helburuetako bat adinekoen historia hura zer zen jakitea zen, eta Euskal Herriko hainbat lekutan galdezka ibili ginen. Erantzuna nahiko orokorra da. Izan baten, baina bihurrikaria moduan.

**Antropologo bezala, egun hori ospatzeak ze garrantzi du?**

Antropologian ikertua dago eta ondorio bat da festak ez direla festa huts. Jaien barruan balioak, emozioak eta gauza pila bat daude. Jaiak, eta kasu honetan Gau Beltza, inguru osoan eragiten duen zerbait da. Gau Beltzak hartu du kontzeptualizazio bat edo ezaugarri batzuk balio ikuspegitik indartsuak direnak; adibidez, kalabazaren transmisioa. Lehen, bihurrikaria zen, eta gurasoek errieta egiten zieten; beraz, zapore gazi-goxoa du, baina orain, festaren protagonismoa hartu du.



**SAN ANDRES HOMES**  
ARRASATE

**GILTZA ESKUAN**

Estreinatuzure etxea eta gozatu zure bizitza berriaz lehen egunetik



Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak  
Gourmet aretoa • Gimnasioa

**EZOHIKOA ZURE - ZUREA**

**Neinor Store:**  
Maalako Arrabala, 33 (Arrasate)

**BISITATU PISU PILOTUA**

**900 11 00 22 • neinorhomes.com**

# "Ez dugu elkarbizitza antolatzeke gaitasunik"

**GORKA TORRE ROCA** HERRIBILTZAKO KIDEA

Euskarak Ipar Euskal Herrian jasaten duen "zapalkuntza" salatzen du ekintzaile baionarrak eta kale erabilera datuen jaitziera ondorio zuzena dela azpimarratzen du

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA Hilabeteko kartzela-zigorra eta 500 euroko isuna ezarri zioten Gorka Torre (Baiona, 1974) euskaltzaleari, Bernat Etxepare lizeoko ikasleek euskararen zapalkuntza salatzeke egindako mobilizazio batean Baionako Suprefeturako horman *Geldi euskara zapaltzea* idazteagatik. *Euskararen zapalkuntzari aurre egiteko borroka Ipar Euskal Herrian* hitzaldia egin zuen atzo Bergarako Olaso Dorrean.

**Zein da euskararen egoera Ipar Euskal Herrian?**

Azken inkesta soziolinguistikoez uztzen duten datu garrantzitsuenak kale erabilpena jaisten ari dela da, horretan jarri behar dugu arreta. Azken urteetan egindako lan guztiari esker euskal hiztunak eta euskara dakiten haurren kopurua handitzen joan dira, baina arreta errealki kaletan dagoen hizkuntzaren erabilpenean jarri behar dugu, hor dugulako datu kezagarria, behera egiten doalako, baita euskaldunenak diren Ipar Euskal Herriko herrialdeetan; hau da, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

**Zer egin daiteke hori aldatzeko?**

Gogoratu behar dugu euskaldunok azken hamarkadetan inguruko bi estatuetako instituzio politiko guztietan esku hartu dugula, udaletatik senatuetaraino, baina funtsean ez dugula lortu euskararen egoera hobetzea. Hori argazki errealista bat da; beraz, ulertu behar dugu nola den hori posible. Bi estatuek konstituzioak dituzte eta horiek ezinezko egiten digute instituzioen bidez euskara garatzeko bide bat ezartzea. Konstituzio horiek euskararen erabilpena zabaltzeko oztopo legalak dira, eta argi izan behar dugu, nahiz eta gehiengo politikoak lortu, instituzio politiko horietan ez dugula lortuko euskara garapen bidean jartzea, Frantzia eta Espainia ez direlako egiazko de-



Gorka Torre euskaltzalea. GORKA TORRE

## "KONSTITUZIO HAUEK EUSKARAREN ERABILPENA ZABALTZEKO OZTOPO LEGALAK DIRA"

mokraziak. Herritarrok ez dugu gure elkarbizitza antolatzeke gaitasunik. Elkarbizitza politika da, eta politika ez dago herritarren eskuetan, ez da herri boteririk, ez da egiazko demokraziarik. Euskaldunok konstituzio horiek aldatzea zaila da, inposatutako konstituzioak direlako, armen bidez inposatuak, eta bidegabeak, euskarari oztopoak jartzen dizkieten instituzioak legeztatzen dituztelako. Beraz, lehen gauza egungo egoera nondik datorren jakitea da, eta, hori iraultzen ez dugun heinean, euskara ez dugu benetako garapen bidean jarriko.

**Atxiloketa eta epaiketa; nola bizi izan zenuen hura guztia?**

Egia esan, gertatutako guztia, hein batean, aurreikusia zen. Badakigu zein den Estatuaren jokamoldea, eta badakigu Suprefetura bezalako eraikinak

sakratuak direla harentzat. Baionako beste eraikin batean egingo bagenu ez luke ondorio bera izango. Zergatik ez dute hori gustuko? Agerian uzten dugulako zein den Estatuaren egiazko izaera. Ondoren etorri ziren atxiloketa eta auziek argi uzten dute zein den Estatuaren erantzuna, euskarari ematen dion erantzun bera; hau da, errepresioa. Euskarari ez diote ematen beharrezko duen garapenerako bidea. Apurrak ematen dizkigute, diru apur bat, batzuetan urte luzetako borrokaz lortu dena. Horrela antzekten du gure hizkuntzaren alde zerbait egiten dutela, arduratuta dardela, baina hori tranpa bat da, badakigulako horrela segitzen badugu euskararen erabilpenak apaltzen jarraituko duela. Aldiz, egoera hori salatzean agerian uzten dugu egungo egoeran euskarak ez duela etorkizunik, eta errepresioa dator. Garrantzitsua da ildo edo molde horretan borrokatzea, Estatuaren egiazko aurpegia orduan dugulako agerian. Akaso, kontzientziak piztuko ditugu eta jendea ohartuko da horrela jarraitzen badugu euskarak ez duela etorkizunik.

## Aurreikusitakoa baino %3,4 gutxiago Foru Funtsetik 2024an

la 1,9 milioi euro itzuli beharko dituzte ibarreko Gipuzkoako udalek; 2025eko lehen ematearekin likidatuko da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ARRASATE Udal Finantzaketarako Foru Funtza (UFFF) da Gipuzkoako udalen finantzaketa mekanismo nagusia. Ogasun eta Finantzetako foru diputatu Itziar Agirrek asteon iragarri du mutualisten epaiak eragina izango duela ekitaldiko diru banaketan. Udalek ekitaldirako aurreikusitakoa baino %3,4 gutxiago jasoko dute. Debagoiena eskualdeko Gipuzkoako zortzi udalerriei dagokionez, 1.876.072 euro gutxiago izango dira. Hala ere, Agirrek azpimarratu du 2023ko ekitaldian baino %2,4 gehiago dela.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak adierazi du aurreikuspen horiek betetzen badira lurraldeko udalerriek itzuli egin beharko dutela zenbateko hori eta 2025eko ekitaldiko lehen ematearekin batera likidatuko dela. Behin betiko zenbatekoak

2025eko otsailean ezagutuko dira, 2024ko diru-bilketaren eta ekarpenen benetako zifrak jakin ondoren.

2025eko aurreikuspenari dagokionez, Agirrek aurreratu du UFFFren zuzkidura %7 haztea espero dela. Egindako aurreikuspenak betetzen badira, Debagoieneko udalek 56.715.902 euro jasoko dituzte.

**Herri txikien finantzaketa**

Bestetik, ekitaldi honi dagokionez, nobedade da udalerrri txikiak finantzatzeko foru-arauren aldatzea. 1.100 biztanle baino gutxiagoko udalerririk -Leintz Gatzaga- eta Elgeta izango dira onuradun. Biztanleriaren arabera dagokien kuota jasotzeaz gain, aurten UFFFren %1,2 banatuko zaie zati beretan -8 milioi euro-, eta 244.969 euro gehiago udalerrri bakoitzeko.

## Palestinaren aldeko mobilizazioak udaletxeen aurrean

Urriaren 21ean, astelehena, udaletxeen aurrean mobilizatzea deitu du Gernika-Palestina Herri Ekimenak. Palestinan "berrehalako su-etena eta genozidioaren amaiera" ematea eskatu nahi dute mobilizazioarekin.

Debagoienean Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetako udaletxeen aurrean deitu dituz-

te mobilizazioak. Guztiak 19:00etan hasiko dira.

**Babes zabala**

"Donostian izandako lehen mobilizazio handiaren" urteurrenean deitu du Herri Ekimenak mobilizazio hori. Urriaren 7an Donostiako Aieteko Bakearen Etxearen aurrean egindako adierazpenean eman zuten mobilizazioaren berri, eta babes zabala jaso dute; besteak beste, EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Ahal Dugu, Sumar eta Ezker Anitzarena.

## Beste antena batetik banatuko du seinalea Goiena telebistak

Haizete bortitzek kalteak eragin dituzte Goiena telebistak Arrasateko Muru mendian duen antenan; hain justu ere, haize zakarrek okertu egin dute dorrea. Ondorioz, handik banatzen den seinalea ez da ondo heltzen Lurreko Telebista Digitalaren bidez, antena bidez, jasotzen duten etxeetara. Konpontze-lanetan dihardute teknikariek eta ara-

zoari lehenbailehen irtenbidea ematea da asmoa. Dena den, kable bidez eta *streaming* bidez Goiena telebista ikusteko ez dago inolako arazorik. *Goiena.eus*-en ere ikusgai daude bertako edukiak. Haizeteak okertutako antenaren ordez, seinalearen jasoketa eta banaketa egiteko beste antena-dorre bat erabiltzea da Goienaren asmoa, baina aldaketa egin orduko aste bi pasa daitezke. Bitartean, erdibideko soluzio baten bila ari dira Goienako teknikariak.



Iaz egindako erreka garbiketa, Aretxabaletan. GOIENA

# Errekak garbitzen eta sentsibilizazioa lantzen hirugarren urtez

Errekaren emariaren arabera, baina zapatuan sartuko dira erreketara Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean egitasmoko kideak; hala ere, garbiketaz gain, hitzaldiak, bisita gidatuak eta ikus-entzunezko emanaldiak ere egin dituzte asten zehar bailarako hainbat herritan

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Egutegian gorritz margotutako eguna izaten da askorentzat Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean egitasmooaren eguna; aurten ere, bailarako ia herri guztietan izango dituzte erreka garbiketen gaineko hitzaldiak, solasaldiak eta, nola ez, errekak garbitzeko hitzorduak. Iazko datuen arabera, bailaran 4.180 kilogramo errefus batu zituzten erreketatik 600 lagun ingururen artean, eta aurten ere parte hartzea handia izatea nahi dute antolatzaileek. Eguraldiak eragin handia izango du erreka garbiketaren; izan ere, badago garbiketa bertan behera geratzeko, garbiketaren ordez beste ekintzaren bat egiteko edo guztiak normaltasunean jarraitzeko aukera. Ondo bidean, zapatu goizean irtengo dira debagoiendarrak euren herrietako errekak

garbitzera, eta, ekimenaren azken hitzordu nagusia hori bada ere, hitzaldiz, ikus-entzunezko eta bisitaz osatutako aste osoko egitarau bateratua sortu dute ekimenaz arduratzen diren herrietako koordinatzaileek.

## Adituen hitzaldiak

Erreka garbitzeaz gain, beste hainbat ekintza ere izango dituzte; izan ere, taldeko kide Iker Agirrek dioenez, saiatu dira "ekintza bateratua izateaz gain egitarau bateratua ateratzen"; hala, nabarmendu nahi izan dute ez dela errekak gar-

**BESTE HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITUZTE 'DEBAGOIENAN ERREKAK BIZI'-KOEK**

bitzea soilik, auzolanean egiten den eta kontzientziarako beste bide batzuk ere badituen ekimen bat baizik.

Besteak beste, hainbat hitzaldi egin dituzte astean, guztiak erreken egoeraren gainekoak. Joserra Diez EHuko irakasleak egin zuen *Bergarako ibai-sarea nola hobetu? Hausnar dezagun elkarrekin* hitzaldia martitzenean. Bertan, "ibaien errestartazioari buruz" hitz egin zuten, orokorrean hitz eginda, baina arreta Bergarako egoeran jarrita ere: "Bergarako egoera fisiko-kimikoa ezagutu dugu. Etorrizun baikorrerako baditugu arrazoiak. Baina zaborra jasotzearekin bakarrik ez da nahikoa; hausnarketa bat egin behar da ezagutzeko herri barruan, landa-eta mendi-eremuetan zeintzuk diren puntu berdeak -kontserbazio eremuak- eta zeintzuk puntu beltzak".

Aretxabaletan egin zuen hitzaldia Arturo Eloseggi EHuko irakasleak, eta erreken garbiketa eta errestartazioa izan zuen berbagai: "Duela hamarkada batzuk Deba ibaia ere egoera penagarrian zegoen, baina egin-

dako inbertsioei eta lanei esker uraren kalitatea nabarmen hobetu da, eta orain arrainak daude ibai-sare osoan. Hala ere, uraren kalitatea hobetu ahala beste arazo batzuk bistaraten dira, adarretan geratzen diren plastikoetatik ibilguaren kanalizazioetara. Horiek ere konponetzen hasteko garaia da, ibaiaren mesedetan ez ezik, biztanleen bizi-kalitatearen mesedetan ere izango delakoan".

## Plakak erreka inguruetan

Erreka garbiketa dela-eta, eta gizartearen kontzientziatzeko asmoz, *Itsasoa hemen hasten da* lelodun plakak jarriko dituzte bailarako erreka inguruetan, Lander Juaristi Debagoiengan Errekak Bizi Auzolaneko arduradunetako batek jakinarazi duenez: "Bailarako erreka batzordean sortu zen ideia, eta Debagoien osoko ekimen bat da. Mankomunitatearen laguntzarekin sortu ditugu plakak".



Albiste osatua irakurtzeko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



DEBAGOIENENKO

## PROFESIONAL LIBERALAK



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
blasaga@icagi.net

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**ARKITEKTOAK**

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE  
Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

**AHOLKULARITZAK**

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA  
Araba ibilbidea 20, behea  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**ETXE ADMINISTRATIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRATIOAK**  
ARRASATE  
Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

MADDI ETXABE HERIZ

## Lehen Munduko arazo bat

Gaur, Lehen Munduko arazo bati buruz hitz egitera nator: arropen neurriak; prakenak, bereziki. Eta emakume naizen aldetik, emakumeen jantzien inguruan hitz egingo dut, hori baita ezagutzen dudana. Azaleko gaia izan daiteke, noski. Eta denok ezagutzen duguna. Baina horrek ez du esan nahi konforme gaudenik edota egon behar dugunik.

Zeren... zenbat aldatu daitezke praken neurriak gorputz berean? Nire esperientziatik diot dendaren, modeloaren, markaren eta kolorearen arabera hiruzpalau neurri desberdin izan ditzakedala.

Nire inguruan maiz hitz egiten den arazoa ere bada. Eta diot: guk, *gorputz normatiboa* dugunok, horrelako arazoak izaten baditugu, nolako erronka izan daiteke arropa erostea lodia den pertsona batentzat? Zer-nolako frustrazioa izan daiteke sartzen zaren dendetatik %10ek soilik izatea zure gorputzeko neurria?

### 14, 15, 16... URTEKO NESKAK NOLA BIZIKO DU NERABEZAROA ETA GORPUTZAREN ALDAKETA?

*Body positive* izeneko korranteak oso erraz saltzen digu gure gorputza maitatu eta gustatu behar zaigun ipuin hori, baina nola maitatu guztia kontran duzunean? Nola sinistu gaizki dagoena arropa dela

eta ez zure gorputza, arropa eroso, polit, jasangarri eta ez gibela saltzeko bezain besteko garestia den jantzi hori lortzea ezinezkoa denean?

Zein testuinguru daukat nik nire gorputza maitatzeko? Akaso, gizarte honek ematen du baliabiderik horretarako? Gero, geure buruari galdetzen diogu nola egon daitezkeen elikadura-portaeraren nahasmenduak... Nola, ba, ez dira egongo? Pribilejio argalak duen indarrarekin? Nondik gatozen besterik ez dugu begiratu behar hori ulertzeko...

Eta, zer esanik ez, 14, 15, 16... urte dituen neskek, garatzen ari den gorputz horrek... Nola biziko du nerabearoa eta gorputzaren aldaketa? Guztia kontran duen sistema batean?

Sua musika taldearen *Ordu beltzak* kantako estrofa batek ondo esaten duen bezala: *Argal zein lodi ni berdina naiz beti / Itxura da gure kezka / Onartutako lista berrian nago / Hau da gure erronka / Zer da lekuri ez duen gorputza? / Konparazio hutsetan itota.*

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## GUTUNAK

### Udalaitzeko burdin zatia

XABIER ELGEZABAL URIBARREN  
ARRASATE

Nire gogoeta egiteko, nahitaezkoa da nire buru ez-erlijiosoa aurkeztea: ez naiz katolikoa; ez naiz fededuna; ez naiz erlijiosoa. Arrasatearra naiz, mendia maite dut eta Udalaitz da nire mendi kuttunena. Galdetu diguzue gurutzera ezabatzearrekin? Tiraniaren legea: *Ez dut gogoko; beraz, ezabatu egingo dut nahi dudalako*. Badaukat katuak gorrotatzen dituen lagun bat; aldiz, ez ditu katuak pozoitzen. Badaukat kolore laranja atsegin ez duen lagun bat; aldiz, ez ditu

gure etxeetako teilak puskatzen. Badaukat makatzak kalte egiten dioten lagun bat; aldiz, ez du fruituzalea mesprezatzen.

Zuek "Gurutze Santua" deitzen diozuen hori niretzako burdin zati bat besterik ez da; seguruenik, beste batzuekiko, bista ederra irudikatzen duen gunea; beste batzuekiko, tontorraren lehenengo zatia edota atsedean hartzea irudikatzen duen hornidura-gunea. Arazoa sinbologia bada, goazen elizak eta kanposantua erretzera! Bai, eta izan zitezkeen harri edo ipurtargi. Adarra edo kolorez beteriko ortzadarra. Nork daki. Beharbada, Anbotoko Mari da egia absolutua ezagutzen duen bakarra. Ez diezaiozun errespetua galdu.

### Anbulantzia zerbitzua

JOSE GARDOKI GARRO

OÑATI

Urriaren 14an, Oñatiko jubilatuen tabernan gizon bat ondoezik sentitu zen. Dardarka eta konbultsioekin. Larrialdi zerbitzura deitu ondoren, ambulanziarik libre ez zegoela esan ziguten, Donostiatik zetorrenari itxaron beharko geniola. Ordu eta erdi itxaron eta gero, Elgoibartik etorri zen. Beldurra eta inpotentzia sentitu nuen, lurtean zegoena gutako edozein izan zitekeelako; ez dago eskubiderik pertsona bat atzintzeko hainbeste denbora itxaron beharra. Kexa azaldu nahi dut, zerbitzua hobetzeko, halakorik berriro gerta ez dadin.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube,  
Larraitz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## BERBAGAI

# "Erradiologia-proben gaineko informazioa zabaldu behar da"

Laura Oleaga Zufiria NEURORRADIOLOGOA

**Larraitz Zeberio Lekuona OÑATI** Bartzelonako Clinic ospitaleko neurorradiologoa eta Monclinic Fundazioko Corelab-eko zuzendaria da Laura Oleaga Zufiria (Oñati, 1959). Aitortzaz beteriko ibilbidea egin du –tardean, Europa mailakoak–, eta ikerketan jarraitzen du. Goienagusik antolatuta, *Irudi medikuen atzean dauden sekretuak* izeneko hitzaldia egin du jaioterrian. Bete egin zen Santa Ana aretoa. **Röntgen fisikari alemaniarrek aurkitu zituen X izpiak eta 1895an egin zuen historiako lehen erradiografia; lehen urte haietan ferianteen atrakzio izan zen aurkikuntza.**

Erraza zen erradiografiak egitea, eta mundu guztia txundituta zegoen giza gorputza barrutik ikusteko aukera zegoelako. Ferietako atrakzio bihurtu zen, baina laster konturatu ziren azalean kalteak eragiten zituela, eta erabilera arautu egin zuten, kontrolatze aldera. **Marie Curiek, gerora, anbulantzia erradiologikoak asmatu zituen.** Hogeit bat anbulantzia prestatu zituzten alabaren eta bien artean, eta lubaki-guneetara joaten ziren zauritutako soldaduei erradiografiak egiteko. Oso lagungarriak izan ziren



Laura Oleaga neurorradiologo oñatiarra Santa Ana parkean. L.Z.L.

soldatu haien gorputzean sartutako jaurtigai-hondarrak detektatzeko. Lehen Mundu Gerrako kontuak dira. **The Beatles taldeari zor diogu eskanerraren sorrera?** Godfrey Hounsfield-ena da aurkikuntza, baina, neurri batean, bai. EMI argindar enpresako langilea zen Hounsfield, baina enpresak bazuen beste negozio-ildo bat: diskoetxea. The Beatlesen diskoetatik ateratako etekinekin finantzatu zuten lehen eskanerraren garapena.

**Urte gutxian aurrerapen handiak egin dira erradiologian; zeintzuk dira erabilpen nagusiak?** Erradiografiak, ekografiak, eskanerrak, erresonantzia magnetikoak... Erradiologia-probak dira guztiak. Gorputz-atalak bereizmen handiarekin barrutik ikusteko aukera dugu. Ikusten ditugu kolapsoak, buxadurak, tumoreak... Bai, erradiologia erabakigarria da diagnostiko eta tratamendu asko erabakitzeko. Orain, gainera, erradiologia interbentzionista

ere egiten dugu; askotariko malformazioak tratatzen ditugu pazienteak operatu barik. Nahikoa da ebaki txikiak egitea kamerei esker askotariko malformazioak tratatzeko.

**Adimen artifizialeko erremintei esker, gainera, are gehiago aurreratzea aurreikusten duzue.** Eskanerretan eta erresonantzietan, esaterako, esposizio-denbora nabarmen laburtzen ari gara. Adimen artifizialeko makinak gai dira informazio jakin bat bakarrik jasotzeko, teknikari baten beharrik gabe gorputz ataleko puntu konkretu bat lokalizatzeko, jarraipena behar duten pazienteen kasuan irudia beti puntu berberetik jasotzeko, eta kaltetutako organo bateko zelula galdu diren betirako eta tratamendu egokiarekin zein berreskuratu daitezkeen esateko. Eta hori guztia, zehaztasun handiarekin. **Diagnostikoak hobeto egiten lagunduko dute, hortaz.**

Zalantza barik. Medikuek egiten dituzte diagnostikoak, eta hori horrela izango da beti, baina makinak gai dira giza begiari ihes egiten dizkioten anomalia txikiak ere detektatzeko. Asko lagunduko dute. **Pazienteak gehiago eta hobeto formatu eta informatu behar direla azpimarratzen duzu beti.** Oso garrantzitsua da. Denok egin beharko ditugu horrelako probak noizbait, eta zertara goazen eta zer egingo diguten alde aurretik baldin badakigu esperientzia askoz ere eramangarriagoa da.

Ikertuta daukagu. Heltzen zaigun paziente batek klaustrofobia duela esaten digunean erakusten dizkiogu instalazioak eta makinak, eta esaten diogu zer egingo diogun. Kasuen ehuneko handi batean lasaitu egiten da, eta ekidin egiten dugu anestesia. Erakunde publikoek –udalek, esaterako– lan handia egin dezakete osasun erakundeekin elkarlanean pazienteen formakuntzan eta informazioan eragiteko. Berebiziko garrantzia du. **Kezka handia duzue erradiologiak eragiten dituen osasun-arriskuen zein ingurumen-kalteen inguruan.** Energia asko kontsumitzen du erradiologiak, agortzen ari diren produktuak ere bai –iodoa–, eta kutsakorrak diren eta erraustu behar diren hondakinak sortzen ditu. Erabilera arrazionalizatu egin behar dugu, eta hondakinak gutxitu eta sailkatu. Lanketa horretan ere buru-belarri dihardugu.

**"ERRADIOLOGIA-EKIPO ONAK DITUGU; FUNTS EUROPARREI ESKER BERRITU DIRA ASKO ETA ASKO"**

**"PRESTAKUNTZA SUSTATZEA ETA LANBIDEA ERAKARGARRI EGITEA EZINBESTEKOA DA"**



Realaren eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak  
futbol zelaiko tokirik onenean

#### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Osasuna norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partidua urriaren 27an izango da, 21:00etan. Parte hartzeko azken eguna: urriak 21.

Ezin errazagoa da  
zozketan  
parte hartzea!



1.  
Aplikazioa  
deskargatu.

2.  
Zozketak atalean sartu  
eta parte hartu.

Gertu.  
Zorte on!



Egin  
Goienakide  
eta Reala  
ikusteko aukera  
izango duzue!

goiena"  
kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia



Martitzenean izan zen Heriotza Perinatalaren Nazioarteko Eguna, eta elkarretaratzea egin zuten. IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

## Tabuak haustearekin bat, gaia gizarteratu nahian

Hainbat herritar elkartu ziren martitzen iluntzean Seber Altube plazan, Heriotza Perinatalaren Nazioarteko Egunarekin bat egiteko; hain zuzen, dolu perinatala gizarteratzea izan zen haien helburu nagusia, familiei elkartasuna adierazteaz gain

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Urriaren 15a Heriotza Perinatalaren Nazioarteko Eguna da eta helburu zehatza izan ohi du egun horrek: haurdunaldian, erditzean edo bizitzako lehen urtean haurra galtzeak emakumeentzat, haien bikotekideentzat, familientzat eta ingurukoentzat esan nahi duenaz kontzientziaztea. Horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Esku Hutsik elkarteak eta horietako bat izan zen Seber Altuben egin zuten elkarretaratzea. Ekimenarekin dolu perinatalaren gaia gizarteratu nahi izan dute, eta familiei elkartasuna erakutsi.

Eider Otxoak, doluan espezializatutako terapeutak, hartu zuen berba: "Eskerririk asko denoi etortzeagatik. Hemen gaude ume biziak, baina badaude ume asko ez daudenak gaur hemen; bere garaian joan zirenak. Haien omenez gaude hemen, haiek bizitza motza baina bizitza eduki zutelako eta garrantzitsua delako haien bizitza leku batean

jartzea. Eta horretan ari gara. Ume bakoitza hemen dago gaur, nahiz eta ez egon. Garrantzitsua da elkargune hau eta gure ume guztiak sentitzea. Oso momentu gogorak bizitzen ditugu gure familietan; hutsune eta bakardade handia bizitzen dugu eta ederra da talde batean gaudela jakitea. Eskerririk asko Rebekari. Hura delako hemen dagoen osasun-langilea. Hark egin duen lanagatik ni hemen nago, baita beste guztiak ere".

**Laguntza eskatu; gaiak hitz egin** Otxoak dio funtsezkoa dela gaia gizarteratzea; izan ere, haren haurra hil zenean, 2011n, "gutziz tabua" zen gaia. "Orduko hartan, umeak hil egiten ziren eta kitto.

**EIDER OTXOA: "GAUR EGUN, ZORIONEZ, UMEAK HILDAKOAN, HERIOTZA HORIEK LANDU EGITEN DIRA"**

Azken urte hauetan asko landu dugun gai bat izan da, eta, zorrionez, gaur egun, umeak hiltzen direnean, heriotza hori landu egiten da", azaldu du. "Umeen heriotza bizitzen dugunean, ume barik irteten gara ospitaletik, eta une hori da gogorrenetakoa. Izan ere, bizitza ematera joan gara eta heriotzarekin egin dugu topo. Gainera, ama izan diren gainontzekoekin elkartzen gara eta haien seme-alabekin ikusten ditugu, baina gurea falta da. Beraz, hutsune handi bat sortzen da, gerora ere irauten duena. Horregatik, lan handia dugu familiekin, hildako umeen bizitzak sortzen eta horiek bizi izaten gure baitan, ez baita erraza".

Halako bizipenak izan dituztenei zera esan die Otxoak: "Behar izanez gero, laguntza eskatu; laguntza ematen dugunok aurrera egiteko bide bat proposatzen dugulako. Bestetik, umeari buruz hitz egitea ere garrantzitsua da, familian bat gehiago balitz moduan tratatzea".



Manex Balerdi, Mikel San Miguel eta Ane Zuazubiskar, kartelarekin, Uarkapen. E.A.B.

## Bertso-pilota izango da lehen aldiz Arrasaten, urriaren 26an

Pilota partidu bat jokatu dute lau pilotarik, eta bi bertsolarik bertsoak kantatuko dizkiete atsedendaldietan

**E.A.B. ARRASATE**

Euskal kulturaren ondare diren pilota eta bertsoa uztartzen dituen ekimena lehen aldiz egingo dute Arrasaten, urriaren 26an. 18:00etan hasiko dute eta sarre-rra doakoa izango da. Mikel San Miguel Kirol zinegotziak eman ditu ekimenaren inguruko xehetasunak: "Bi bertsolarik bikote bakoitzaren botilero lanak egingo dituzte. Partidan zehar hainbat atsedendaldi egingo dituzte pilotariek, eta botilerok bertsoz aholkuak emango dizkiete".

Ane Zuazubiskar bertsolari arrasatearra ariko da bertsotan,

Amets Arzallusekin. Zuazubiskarren arabera, "polita" izango da entzule zein ikusle moduan egondako frontoian kantatzea. "Pilota partidak ikustera etorri naizenean edo txapelketako saioetan, beti pentsatu izan dut plaza ona izan behar duela Uarkapen. Bertso-pilotan lehen aldia da niretzat eta Uarkapen izateak ilusioa sortzen dit".

Pilotan, berriz, Ander Etxaniz (Bergara, 2001) eta Jon Erasun (Zizurkil, 1996) ariko dira Mikel Goñiren (Oronoz-Mugairi, 1977) eta Manex Balerdiren (Antzuola, 1999) aurka.



NIRE USTEZ

IANA SANCHEZ

## Kintadak

Kintaden epea bueltan da. Benetan fenomeno xelebrea. Zeinek ez ditu bere herrian urte berean jaio direnak ezagutzen? Nahiz eta ikasgela berean egon ez, ia denen aurpegiak ezagutzen ditugu.

Are gehiago, zenbait alditan, pertsona bat deskribatzeko lehenetariko ezaugarri moduan zera aipatzen dugu: "Fulanitz, ziorlatarra, nire kintakoa...". Kintoak, berez, urtean bertan 18 urte betetzen dituztenen eta astebetzez herritik legerik gabe ibiltzen direnen jaia izan ohi da.

Hala ere, Arrasaten horretarako ohiturarik ez dago. Hori bai, nagusitzen goazen heinean, kintada egunen ospakizunak ugaritzen joaten dira. Zer da horretara bultzatzen gaituen energia ezezaguna? Norbanako bakoitzean urteek egindako kaltea zein den gertutik egiaztatzea? Beste talde bateko kide izate horren grina?

Argi dagoena da urteak gora eta festa egunak, alderantziz, behera joan ahala, festa egiteko aitzakiak ugariagoak izaten direla. Zure kasuan, egutegian kintada eguna gorritz al duzu jada? Horrela bada, ondo pasa!





Udalatxeko gurutzea, moztuta, joan den domekan. GOIENA



Gurutzea jasotzen. PEPE ARREGI



Hainbat herritar, gurutzea Udalatxera igotzen, 1971ko urriaren 2an. PEPE ARREGI

# Beheko gurutzea iragana da jada

Joan den zapatuan, urriak 12, mendizaleen omenezko gurutze barik iratzarri zen Udalatx; Udalak ikerketa abiatu du, oraingoz emaitza garbirik eman ez duena, eta azpimarratu du gurutzea ezingo dutela berriz jarri, 2016tik gune babestua delako

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Beheko gurutze barik eta olerki batekin esnatu zen zapatuan Udalatx. Olerkiak, tartean, honako hau zioen: *Gurutze Santua da. Zen. Horrek dakarren gurtiarekin. Hartzen duen pisuarekin.*

Udalzaingoak ikerketa bat abiatu zuen hori jakin bezain pronto, eta oraindik ere ikertzen jarraitzen du. Udal ordezkariak azaldu dutenez, ikerketa ez da ari "emaitza ziurrik" ematen. "Izan ere, gurutzea zegoen ingurua garbi agertu da, eta ez dago gurutzearen zantzurik. Gainera, kokapenak eta gauez egin izanak lekuko presentzialen falta ageria ekarri du".

Arrasateko Udalak natura-gune bezala babestu zuen Udalatx 2016an, eta, beraz, udal ordezkariak azaldu dute ezingo dutela gurutzea berriz jarri, nahiz eta EAJk, esaterako, gurutzea berriz

jartzeko eskaera egin. Era berean, Udalak herriko hainbat eragileekin bildu da; Besaide Mendizale Elkartearekin, Mondraitzeekin edota Arrasate Zientzia Elkartearekin, besteak beste.

## Jan Da Lo taldearen ekimena

Udalatxeko bi gurutzeak jartzea Jan Da Lo mendizale taldearen ekimena izan zen. Lehena, goiko tontorrekoa, Angel Balzategi *Erregetxo* mendizale arrasatearraren omenez jarri zuten, eta bestea, hildako mendizale guztien omenez. *Erregetxo* 1971ko abuztuaren 27an hil zen, eta "inork

**1971KO IRAILAREN 25EAN JARRI ZUTEN GOIKO GURUTZEA ETA URRIAREN 2AN, ALDIZ, KENDU BERRI DUTENA**

baino hobeto" ezagutzen zuen Udalatx, Josemari Velez de Mendizabal historialariak azaldu duenez. "Diotenez, egun batzuetan bi edo hiru aldiz ere igo izan zuten tontorreraino, batez ere, bidea ezagutzen ez zuen norbaitekin topo eginez gero, hari laguntzarren. *Erregetxo*-k asmatu zuen *Jan da lo* oihua. Tontorretik botatzen zuen, Udalatxera ez igotzeko aitzakiaren bila zebiltzanak esnatzeko asmoz".

Velez de Mendizabalek nabarmendu duenez, *Erregetxo*-ren inguruan lagun talde bat osatu zuten. "Jesus Jauregi arrasatearrak dokumentu interesgarri bat idatzi zuen Udalatxeko gurutzeen nondik norakoak azaltzeko, eta, hark dioenez, Jan Da Lo taldeko kideak honako hauek ziren: Juan Axpe, Nikolas Agirre, Ignacio eta Alberto Balzategi, Javier Bergaretxe, Daniel

Gaztañaga, Gerardo eta Jesus Jauregi eta Gregorio Layana". Hain zuzen ere, haiek erabaki zuten gurutzea jartzea.

Garai hartan, Alvaro Arregi zen Besaide Mendizale Elkarte-ko presidentea, eta, kontatu duenez, "erlojuaren aurkako proba moduko bat" izan zen. "*Erregetxo* hil eta hilabete eskaera, gurutzea tontorrean zegoen", dio. "Lehenbailehen jarri gura zuten gurutzea, baina ez zuten baimenik. Hala, Udalak eta Elizak eskaera egin ez zuten, Besaide Mendizale Elkartearen beste aukera, eta niri deitu zidaten. Garbi utzi nien nigatik izango balitz ez zela gurutzerik jarriko, baina zuzendaritza batzordean planteatu nuen eta, batzuk harritu egin baziren ere, kontrako iritzirik inork ez zuten eman. Beraz, baimena eskatu genuen Gobernuan".

## Igotzeko, teknika berezi bat

*Erregetxo*-ren omenezko gurutzea bestea baino txikiagoa zen eta Roman Lopez Rubiok diseinatu zuen. Talleres Arrasaten eta Alecopen prestatu zuten. Metro eta erdiko altuera zuen, eta 80 kilo inguru. Urte hartako irailaren 25ean jarri zuten tonto-

**BEHEKOA, HILDAKO MENDIZALEEN OMENEZKOA ZEN; GOIKOA, 'ERREGETXO'-REN OMENEZKOA DA**

rean, Jose Luis Iñarra parrokoak *Erregetxo*-ri jarritako bertsoak zeuzkan plakarekin batera.

Bigarrenak, kendu berri dutenak, "prestaketa zailagoa" izan zuten, handiagoa zelako. "Oñatiko Igartua tailerrean egin zuten proiektua. Zutabeak 250 kilo zituen, eta hamar metroko luzera. Gainera, gurutzearen besoak eta bestelako materiala ere igo behar izan zituzten".

Hala, bigarren gurutzea urriaren 2an igo zuten, eta, horretarako, 70 bat lagun bildu ziren Udal auzoan. Batzuek zutabe nagusia igo zuten eta beste batzuek, gurutzearen besoak eta bestelako materialak. Ramon Ugalde historialariak dioenez, *txingaerute* eran igo zuten, horretarako propio asmatutako teknika berezi batekin: "Bide zuzena barik, Txukurillokoa hartu zuten, bertako zelaia malurtsua izan arren garbiagoa baita halako garraio bat egiteko".

1971ko urriaren 12an inauguratu zituzten bi gurutzeak, Iñarrak esandako mezarekin. Parrokoak, meza esateaz gain, hildako mendizaleen omenez hark egindako bertsoak kantatu zituen. Halaber, Lore Gazteak dantza taldeak dantzaldia egin zuen eta txistulariek *Agur Jaunak* jo zuten. Ekitaldia amaitzeko, *Udala Mendi* abestia kantatu zuten, Manuel Lekuonak idatzi eta Juan Arzamendik musikatu zuena. Orduko hartatik 53 urte bete ziren egunean desagertu zen gurutzea.



Ibon Arrupe eta Ander Garay zinegotzi jeltzaleak, eguaztenean, prentsaurrekoan. IMANOL BELOKI UNAMUNO

## Doneztebe Portukon 50 aparkaleku gura dituzte

Santa Teresa auzoko birgaitze lanek iraun bitartean Doneztebe Portukoko lursailetan aparkalekuak sortzea proposatu du EAJK. "Maldaren aurrean kokatuta, modu azkar eta errazean sortu daitezke, eta auzoko aparkalekuen arazoa arindu", esan dute

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Abian dira Santa Teresako birgaitze lanak, eta, hori baliatuta, prentsa agerraldia egin du Arrasateko EAJK, proposamen bat egiteko: Doneztebe Portukoko lursailetan 50 aparkaleku egitea. Haien esanetan, 2022ko abuztuan igogailuak instalatzen hasi ziren obrek, eta 2024ko irailean urbanizazio-lanekin jarraitu dutenek, "arazo larri" bat sortu dute: aparkalekuak galtzea. "Hasi berri dituzten lanek 70 plaza baino gehiago kendu dituzte, eta, obrak amaitutakoan, aparkatze-leku erabilgarriak %20 murriztuko direla espero da, eta dagoeneko kritikoa den egoera areagotu egingo da", azaldu du Ander Garayk, jeltzaleen udal bozeramaileak.

Horri erantzuteko helburua du, hain zuzen, haien proposamenak. "Doneztebe Portuko kalearen goialdean kokatutako lursailetan aparkalekuak handitzeko aukera aztertzea eskatzen dugu, baita etorkizuneko be-

rrurbanizazio proiektuetan erabilgarri dauden plazak aztertzea ere. Funtsean, zenbat aparkaleku galduko diren jakin eta beharrezkoa den lekuetan alternatiba bideragarriak aurkeztea eskatzen dugu". Jeltzaleek kalkulatu dute Doneztebe Portuko lursailetan, maldaren aurrean kokatuta, 50 aparkaleku inguru sor daitezkeela "modu azkar eta errazean", aparkalekuekin dagoen "arazoa" arintzeko.

Esku-hartze horrek auzotarren bizi-baldintzak hobetzea ekarriko lukeela uste dute. "Proiektua funtsezkoa da, eta auzoaren bizitza nabarmen hobetzen lagunduko duela uste dugu, baina ezin dugu aparkalekuaren arazo berri bat sortu. Udal Gober-

**EAJ: "HASI BERRI DITUZTEN LANEK 70 APARKALEKU KENDU DITUZTE; ARAZOA DA APARKALEKUENA"**

nuak ikuspegia izan behar du egoera honi aurre egiteko, eta aurreratu egin behar da. "Ez gara soilik urbanizazioa hobetzeaz ari, baizik eta auzotarrek eguneroko arazoei, adibidez aparkaleku faltari, irtenbide errealek eta praktikoak izatea bermatzeaz", dio Garayk.

**PSE-EEren ustez, onuragarria** Arrasateko sozialistek, halaber, adierazi dute "oso onuragarritzat" jotzen dutela Santa Teresa auzoaren birgaitze integralaren planaren hasiera. Aritz Murua udal bozeramaile sozialistak proiektu horren garrantzia azpimarratu du: "Santa Teresako bizilagunekiko konpromisoa dugu, gure alderdiarentzat lehen-tasuna baitira. Plan honekin bizi-kalitatea nabarmen hobetuko zaie, ongizate kolektiboa hobetzearen aldeko apustu garbia baita plana, etorkizuneko belaunaldientzako auzo modernoagoa, irisgarriagoa eta iraunkorragoa bultzatuz".

## Gipuzkoako Adinekoen Martxa Arrasatera iritsiko da bihar

2006an egin zuten azkenengoz martxa hori herrian, eta orduko istorioak gogoratzea izango da helburuetako bat

**E.A.B. ARRASATE**

Gipuzkoako Adineko Pertsonen Martxa egingo dute Arrasaten bihar, zapatua. 18 urteren ostean itzuliko da ekimena herrira, eta edonori zuzendutako zazpi kilometroko ibilaldia eta bazkaria egingo dituzte.

Arrasateko gizarte-etxeetatik diseinatu dute "ingurune naturalaz gozatzeko martxa". Ibilbide "erakargarria eta ia aldaparik gabea" izango da, Jasone Giraldo Ongizate zinegotziak azaldu duenez: "Ibilbide zirkular bat izango da, arrasatear guztiek

ezagutzen dituzten lekuetan. Herriko Plazan hasita, garbigunerantz joango dira; Monterrondik pasata, Biterin egingo dute geldialdia; ostean, berriz ere itzuliko dira Monterronera, eta Musakolan amaituko dute". Behin ibilbidea amaituta, kiroldegian egingo dute bazkaria.

2006. urtean egin zuten azkenekoz martxa hori herrian, eta orduko esperientzia gogoraraztea izango da helburuetako bat, baita adineko pertsonak gizarte-aktibo gisa hobeto ikustea eta parte-hartzea sustatzea ere.



ARRASATEKO UDALA

## Sahararren esker hitzak Udalari

Saharar Batasun Nazionalaren Eguna ospatu zuten urriaren 12an, eta, Euskal Herriko Saharar Diasporak antolatuta, aldarrikapenerako eta festarako gune bihurtu zuten Biteri plaza. Saharako ordezkartzaren eskutik esker-plaka bat jaso zuen Maider Morras alkateak: "Biziki eskertzen diogu Arrasateko Udalari saharar herriarengatik egindako lana, konpromisoa eta elkartasuna".

## Jai Zale taberna dohaintzan eman dio Gorripideak Udalari

Gorripidea elkartearen jabetzako zen Jai Zale taberna Arrasateko Udalaren jabetzako izango da aurrerantzean, eta helburua izango da lokalean proiektu sozial bat garatzea, elkarteak hala eskatuta. Halere, Maider Morras alkateak dio epe motzean irekitzea zaila izango dela, "irisgarritasuna bermatze-ko obrak beharko dituelako".

## Sagarrarekin egindako produktuak biharko azokan

Bertako produktuen azoka egingo dute bihar, 09:00etatik 14:00etara, Seber Altube plazan. Besteak beste, sagar-purea, marmelada, sagardoa eta zukua dastatu ahaliko dituzte herritarrek, Lizagasar sagar-tokiaren eskutik. Halaber, askotariko sagar barietateak eta sagarretik eratorritako produktuak egongo dira salgai. Hamar otarre zozketatuko dituzte.

# Ford EXPLORER berria %100 Elektrikoa



Eskatu zure proba Ford Mugarri-n Urriaren 21etik 25era eta eraman ezazu Ford EXPLORER berria zuretzako daukagun eskaintza bereziarekin


moves

7.000 eurorainoko dirulaguntza Plan Moves III-rekin



GRUPO  
EASO  
MOTOR

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

 687 94 35 92 -  943 79 07 44

[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



Easo Motor



Saioa Ojanguren, Adela Bikandi eta Ane Berasategi, Bibliotekaren Eguneko egitarauarekin. UDAL BIBLIOTEKA

## Haurrek, gazteek eta helduek gozatzea helburu

"Bibliotekaren Eguna ospatzea eta herritarren babesa eta konplizitatea lortzea dira" Udal Bibliotekaren helburu nagusiak, eta, datorren egunean Bibliotekaren Eguna dela aintzat hartuta, haur, gazte eta helduentzako doako saioak antolatu dituzte

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE Urtero bezala, urriaren 24a egun berezia izaten da bibliotekako erabiltzaileentzat eta bertako zerbitzua ezagutzen dutenentzat; izan ere, Bibliotekaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta, ohiturari eutsiz, Arrasateko Bibliotekak egunaren bueltako hainbat ekintza antolatu ditu. Urriaren bibliotekarekin lotutako beste hainbat jardura egoten direla kontuan hartuta, hiru ekintza antolatu dituzte Bibliotekaren Egunerako eta bezpera egunerako. Asun Agiriano Arrasateko Udal Bibliotekako arduradunaren hitzetan, helburua da "herritarren aisialdi kulturala aberastea".

**Adin guztietakoei zuzenduta** "Herritar guztiei" zuzendutako egitaraua antolatzea izan da hasieratik Udal Bibliotekako lantaldearen nahia, eta horregatik antolatu dituzte hiru ekintza hauek: Biblioteka Egunaren bezperan, urriaren 23an,

18:00etan, Iñaki eta Alba Carreterok *Atximurka* saioa egingo dute, non hainbat ipuin kontatzeaz gain, kantuan ere ibiliko diren 2 urtetik gorako haurrekin batera. Saio horretara joateko aurrez izena eman behar da Bibliotekan edo *arrasate.eus* webgunean. Hilaren 24an, arratsaldeko seietan, haurrentzako eta nagusientzako saioak egongo dira. Alde batetik, Santa Marinako bibliotekan *Amonaren belarriak entzundako kontu txiki eta haundiak* ipuin ilustratu saioa egingo du Kontukantoi taldeak. 4 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako saioa da, "umoretsua eta dibertigarria", Agirianoren hitzetan, eta bertaratzeko aurrez

**BERTSO-SAIOA DA AURTENGO APUSTUA; KULTURATEN EGINGO DA, HILAREN 24AN, 18:00ETAN HASITA**

eman behar da izena Bibliotekan, Santa Marinan edo *arrasate.eus* webgunean. Bestetik, *Bertso-saio espekulatiboa* egingo dute Miren Amurizak, Nerea Ibarzabalek eta Sustrai Colinak Kulturateko areto nagusian – Maite Berriozabal izango da gai-jartzailea. "Bertso-saio berritzaile baten aldeko apustua egin dugu aurten. Literaturak eta bertolaritzak harreman estua dute, eta, kasu honetan, *Zirriborroak eta gero* liburuko fabuletatik abiatuko dira bertolaritza eta literatura espekulatiboa", adierazi du Agirianok.

**Harrera ona** Urteroko hitzordua izan arren "harrera ona" izaten jarraitzea nahi dutela dio Agirianok: "Hitzorduak herritarren gustukoak izatea espero dugu, eta, hortaz, guztiak gonbidatu nahi ditugu egun berezi hau gurekin batera ospatzera".

## Dantzaren erdigune izango da Amaia antzokia asteburuan

Hiru konpainiak egingo dituzte emanaldiak: Amaia Elizaranek eta iXa eta La Rutan dantza taldeek

**J.M.M. ARRASATE**

Kultur ekintzen erdigune izaten da beti Amaia antzokia, eta urriaren ere hala izango da. Kasu honetan, beste kultur ekitaldi batzuen artean, dantzak ere izango du bere tokia Amaian; izan ere, hiru dantza emanaldi egingo dira domekan, urriaren 20an, 19:30ean hasita. Sarrerak 10 eurotan egongo dira eskuragarri.

**Dantza eta musika artean**

Amaia Elizaran, iXa dantza taldea eta La Rutan dantza taldea igoko dira Amaia antzokiko oholtzara euren emanaldiak egitera. Elizaran zuzendari tolosarrak berak sortutako *Ihir* lana interpretatuko du, Liam O Maonlai musikariak emanaldia harpa doinuaz girotzen duen bitartean. Ostean, iXa taldea ametsaren ikuskera surrealista ikertzen saiatuko da, *Ollos*



Elizaran eta O Maonlai. AMAIA ELIZARAN

*Cara Adentro* lanaren bitartez; eta amaitzeko, La Rutan taldeak Maria Andres zuzendari bikaitarrak sortutako *Out of silence* lana interpretatuko du, non familia batek bere etxea utzi behar duen gerraren ondorioz.

**Salgai daude Lirika Gaztea emanaldia ikusteko sarrerak**

Denboraldi lirikoari hasiera emango dion kontzertua da eta urriaren 25ean egingo da, JAMEn, 20:00etan hasita. Sarrerak dagoeneko salgai daude, eta urriaren 25era arte erosi ahal izango dira Amaia Antzokiko leihatilan, *arrasate.eus* webgunean, Altuna Lurrindegian eta ozenkielkartea@hotmail.es helbidean, 15 euroren truke.

**Flamenkoa nagusi gaur Al-Andalus elkartearen egoitzan**

Andaluziako Euskadiko Federazioak antolatuta, Maria Rubi taldeak kontzertua emango du gaur, egubakoitza, Arrasateko Al-Andalus egoitzan, 19:15ean hasita. Aurretik ongietorria egingo diete udal ordezkariari, eta kontzertua bukatutakoan, agapea egingo dute kultur jardunaldian batzen diren herritar guztiekin batera.

## OHARRAK

**Antzerkia familian Doke Antzerki Eskolan**

Urriaren 19an, azaroaren 9an eta abenduaren 14an egingo dute, 10:00etatik 12:00etara bitartean. Izena eman daiteke *dokeikastaroak@gmail.com* helbidean.

**Ankar, Jasan eta Slide gaztetxean**

Urriaren 19an, zapatua, Ankar, Jasan eta Slide taldeek kontzertua emango dute Arrasateko gaztetxean. 22:00etan hasiko dira kontzertuak, 5 euroren truke.

**Keia, Kooltur Osteguna girotzen**

Keia Oñatiko musika taldea izango da urriaren 24ko Kooltur Ostegunetako protagonista; 22:00etan hasita, 7 eurotan.

# "Sugeek ospe txarra dute, baina ez da justua"

**ANDER IZAGIRRE** ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO HERPETOLOGIA SAILEKO KIDEA Aramaion sei suge espezie daude, eta horietatik bakarra da pozoitsua, Izagirrerren esanetan, kantauriar sugedorria: "Baina ez nuke esango arriskutsua denik"

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO Ur-ekosistemen eta Biodibertsitatearen Astea ari dira ospatzen Aramaion, eta, astearen baitan, *Aramaio suge eta sugedorriak. Haien ospe txarraren biktimak?* hitzaldian Aranzadiko kide Ander Izagirrek (Elgoibar, 1988) azpimarratu zuen sugeak "oro-korrean" ez direla arriskutsuak. **Aramaion zenbat anfibio eta narasti espezie aurkitu ditzakegu?** Euskal Herrian hamazortzi anfibio espezie daude, eta Aramaio inguruan hamaika. Narrastietan, sugeak zenbatu gabe, bertakoak diren hamasei daude Euskal Herrian, eta horietatik sei daude Aramaion. Hamabi suge espezie daude Euskal Herrian, eta Aramaion sei daude. Sei suge horien barruan daude pozoitsuak ez diren bost. Pozoitsua kantauriar sugedorria da.

**Sugeak non aurkitu ditzakegu?** Nahiz eta mendian suge gutxi ikusi, badaude. Mendira joaten garenean aurrera begira joaten gara. Sugeak bide bazterrean egon daitezke, baina ondotik pasatzean, batzuetan, geldirik geratzen dira, guk ez ikusteko; hau da, kamuflajea sinesten dute eta hor geratzen dira. Beste batzuetan, berehala egiten dute ospa. Guk uste duguna baino suge gehiagoren ondotik pasatzen gara konturatu gabe. **Nola ezberdin dezakegu pozoitsuak den ala ez?**

Ezer ez dakien batendako nahasteko erraza izan daiteke, baina itxurari begiratu behar zaio, ezaugarri ezberdinak baitutuzte. Badaude patroik konkretu batzuk. Sugedorriak bizkarrean zig-zag moduko bat dauka, baina ez beti. Askotan, bereizteko begia erabiltzen da. Esaten da begi bertikala duela, baina, noski, horretarako, gertu egon behar duzu. Buru gaineko ezkatat ere sugedorriak txikiak ditu. Dena den, sugedorria pozoitsua bada ere, beti gugandik ihes egiteko



Ander Izagirre, suge bat ondoan duela. A.I.

## "GUK USTE DUGUNA BAINO SUGE GEHIAGOREN ONDOTIK PASATZEN GARA KONTURATU GABE"

joera dauka. Beldurra digute. Koskak istripuz izaten dira, oso puntualki, ihes egiteko aukerarik ez duenean, eta gu nahi gabe haren parean jartzen garenean. **Orduan, beldurra nondik dator?** Teoria batzuek esaten dute genetikoki badaukagula erraztasuna animalia batzuekiko beldur batekin jaiotzeko. Sugeak, armiarmak... Beste teoria batzuek esaten dute beldur hori landu edo ikasi egin behar dela. Gizarrean oso barneratuta daukagu beldur hori. Nahi gabe, belauldiz belauldi transmititu egiten da. Haur txiki bati suge baten argazkia erakusten badiogu, heldua beldurtzen bada ume horrek ikasi egiten du sugeekiko beldur hori edukitzen. **Suge batekin topo eginez gero, nola jokatu behar dugu?** Lehendabizi, distantzia mantendu. Ez gerturatu, eta disfrutatu.

Egia da horretarako lehendabizi beldurra kendu behar dugula. Gaur egun, eskuko telefonoa denok daukagu, eta, posible bada, argazkia atera eta zalantzak izanez gero, Aranzadira bidali. Horrela, guk erantzuna emango diogu. Azkenean, jakin behar duguna da sugeak babestuta daudela legez. Suge bat hiltzea legearen aurkako ekintza bat egitea izango litzateke.

**Hortaz, sugeak arriskutsuak dira?** Ez. Bueno, ondo azaldu behar da. Pozoirik gabe ez dira arriskutsuak. Aramaion sugedorria dago, baina ez nuke esango arriskutsua denik. Lehen esan dudana moduan, puntualki istripuak gertatzen direnean egiten dute kosk. Halakoetan, komeni da ospitale batera joatea. Azken urteetako datuek esaten dute Espainiako Estatuan 130 hozkada gertatzen direla, batez beste, urteko. Horietatik bat edo gutxiago hiltzen da. Beste animalia batzuk hartuz gero, txakurrak, adibidez, bi eta bost pertsona artean hiltzen dituzte urtero; erleek ere bost eta hamar artean... Sugeek badute ospe txarra, baina ez da justua duten ospe hori. Arriskutsua da, alde horretatik.

## Itsas Salbamendu Humanitarioa izan du hizpide Arriaranek Oñatin

2017an joan zen aurrenekoz Kiosko kanpalekura eta aurten Ugandan izan da hango egoera ezagutzeko

**I.A.A. ARAMAIO**

Izaskun Arriaran erizain eta Itsas Salbamendu Humanitarioko boluntario aramaioarrak hitzaldia egin zuen Oñatin, erakundearen xehetasunak azaldu eta haren esperientzia kontatzeke. 2015ean sortu zen erakundea eta 2017an aramaioarra joan zen Greziako Kiosko kanpalekura. Nikaraguan eta Ekuadorren tratu txarrak jasotzen dituzten hainbat emakume-etxeri ere laguntza bidaltzen diete, besteak beste, eta aurten Ugandan egon da: "Ikusi dut kanpalekuetan nola dauden, ibilbidea zein den, eta, benetan, egoera gogorra bizi izan dugu. Ugandan izugarritzko pobrezia dago".

**Eskuin alderdiak gainean**

Azken egunetan albiste izan da Aita Mari, Burrianako (Castello) Voxeko Jesus Albiolen aurkako



Izaskun Arriaran, Oñatin. JULEN MURUA

salaketa jarri duelako: "Salatzen gaituzte jendearekin negozioa egiteaz, baina salaketa jarri da. Ikusi Meloni ze pozik dagoen Albaniak onartu duelako Italiara heltzen den kanpoko jende guztia. Gu salatzen gaituzte negozioa egiteaz...".

## Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketa bihar Etxaguenen

11:30etik 14:30ak arte, musika, pintxoak eta txapelketaz kanpoko tiraldiak egongo dira. Bazkariaren eta txapa tiraldiaren ostean, 17:00etan hasiko da txapelketa. Hankaz Gora eta Laino Beltzak taldeen kontzertuak 20:00etan hasiko dira. 23:00etatik 03:00etara bitartean, mus txapelketa, DJ Tiger eta txokolate eta mahats-jana egongo dira.

## Gaur amaitzen da jubilatuen bazkarian izena emateko epea

Urriaren 26an ospatuko da Jubilatuen Eguna, beste urte batez, eta erretiratuen bazkari txartelak erosteko epea gaur amaituko da. Bazkaltzera joateko asmoa duten erretiratuek txartelak udaletxean edo auzo-alkateen bitartez erosi ditzakete, 10 eurotan. Jarri duten baldintza da 65 urtetik gorakoa izatea. Bazkaria 14:30ean izango da.

## OHARRAK

### Hitzaldia Oletako herriko tabernan

*Badago alternatiba: Euskal Herriarentzat desazkundera* hitzaldia egingo du Adrian Almazan fisikariak gaur 19:00etan.

### Bilera: Itsaraz parke eoliko

Hilaren 23an Udalak bilera irekia egingo du gaur egun Itsaraz parkearen eta Udalaren arteko harremana ze puntutan dagoen azaltzeko. Espedienteari, plan bereziari eta azpiegiturak egiteko lurren jabetzari buruzko informazioa helaraziko du Udalak.

### Udaleko zergen igoyerari buruzko bilera

Urriaren 24an 18:00etan Sastiñan egingo dute bilera irekia, Udaleko zergen igoyerari buruzko informazio gehiago emateko.

# Berpiztu da Ametzueta, 200 bazkide batuta

2006an sortutako Realaren lagunartea lozorroan egon da urte askoan, eta aurten lanari berrekitea erabaki dute; batzar orokorra egin zuten urriaren 11n, zuzendaritza batzordea berritzeko, eta Zigor Kintanak izango du presidente ardura ibilbide berrian

## Mirari Altube ARETXABALETA

Ametzueta Realaren lagunartea hasi da lanean, gogotsu hasi ere. 2006an eratu zuten Aretxabale-tako hainbat realzalek. Salva Rodriguezek hartu zuen orduan gidaritzza eta elkarte batzaitzeko egindako agerraldian izan ziren Lopez Rekarte, Barkero eta Danimarkako Morten Skoubo jokalaria. Hain zuzen ere, orduan jaso zuten Ametzueta izendun kamiseta –argazkian–. Hasierako indarrak ahulduta, lozorroan egon da hainbat urtez taldea, eta joan den egubakoitzean egindako batzar orokorrarekin beste etapa bati ekin diote.

## Lagunarte handienetakoa

Zigor Kintana izendatu dute presidente, eta harekin batera izango dira: Salva Rodriguez presidenteordea, Iker Iturricastillo diruzaina, Maddi Garro idazkaria eta Julen Azkarate bokala. Dagoeneko 200 bazkide ditu taldeak –ia %40 Realeko bazkideak– eta horietako hainbat herritik kanpo bizi dira: Bilbon, Baionan, Salamancan, Madrilan eta Detroiten (Michigan, AEB) ere bai bat. "Sortu zenean 140 kide inguru zituen, eta, gure usteen kontra, orain gehiago batu ditugu; 250era ere iritsiko garelakoan nago. Realaren lagunarterik handienetakoa izango gara, seguru asko, Oñatikoaren atzetik, hark 350 bat dituelako", adierazi du Kintanak.

Lagunartearen egoitza Arlutz taberna da, eta han jasoko dituzte bazkide izateko izenak; urteko kuota 15 eurotan ezarri dute: "Realzale asko dago herrian, umeen artean ere Realeko kamiseta asko ikusten dira. Hortaz, animatuko nituzke gazteak zein helduak bat egitera gurekin".

Laster, lagunartearen poloak aterako dituzte, eta horiek erosteko alde aurretik egin behar da eskaera, Arlutzetik pasatuta;



Zuzendaritza taldeko kideak: Iturricastillo, Kintana, Azkarate eta Rodriguez. M. ALTUBE

## REALAREN LAGUNARTERIK HANDIENETAKOA DELA DIOTE, OÑATIKOAREN ATZETIK

azken eguna urriaren 30a izango da. Loteria saltzen ere bada biltza, elkarte finantzatzeko: "Horri esker lagunarteko bazkideek 20 euro ordainduko dute poloa, eta ez direnek, 32 euro".

## Aurrera begirako asmoak

Realaren lagunarte ofizialen artean dago berriro ere. "Mikel Loinaz jokalaria ohia da lagunarteen ardura duena, eta harekin hartu-emanetan egon naiz", azaldu du presidentea. Ofizialtasun horri esker onura batzuk izango dituzte: "Etxetik kanpo jokatzeko diren partiduetara joateko lagunarteei ematen dizkieten sarrerak guregana ere iritsiko dira". Eta gaineratu du Pilsen hirian (Txekiar Errepublikan) jokatu duen partidurako hiru sarrera eskatu dituzte: "Erantzunik ez dugu jaso, baina bidaia hartuta dugu. Aur-

ten, Ametzueta European ere ikusiko da".

## Denboraldirako ametsa

Realak ez du denboraldi hasiera txukuna izan, baina "Ametzueta martxan jartzeaz bat" horri buelta ematen hasi dela diote. Aretxabaletarren ametsa da Europako Ligako finalera iristea taldea: "Athleticen aurka jokatzeko eta irabazteko, noski!". Eta Espainiako ligari dagokionez, seigarren urtez jarraian Europako txapelketan sartzea: "Zaila izango da, baina zeinek daki!".

## NIRE USTEZ

RESU ABASOLO GALLASTEGI

## Ion...

... txikitik ezagutu zintudanean harritu egin ninduen zure adimen argiak eta jakin-min sakonak. Zure begiradak mundua ulertu nahi zuen, eta egiten zenituen galderak galdera gehiago pizten zizkizuten. Txikitatik zenekien zeure burua nola adierazi: argia, azkarra eta zorrotza zinen. Ez zenuen beti bide erraza aukeratzen, baina irmo eusten zenion, zeure erabakiak defendatzeko indarra ematen zizulako.

Bizitzak ez dizkizu proba errazak jarri, eta, zoritxarrez, gaixotasunak zaildu egin zizkizun zure bidea eta ingurukoekin harremanak. Baina ezerk ez du estali zure bihotz handia, nahiz eta askotan ezin izan diozun hori guztia munduari erakutsi. Zoritxarrez, une jakin batean izan duzun estropezuaren bideoak zabaltzea izan da askok ikusi duten bakarra, eta horrek min handia eman dit. Baina horrek ez zaitu definitzen, ezta zure izaera islatzen ere. Ziur naiz hau ere zure bihotz horrek barkatuko duela eta maite zaitugunok izan zaren pertsonagatik gogoratuko zaitugula.

Bihotzez.

## Jabetze Eskolako ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Jabetze Eskolak antolatuta, zinema-foruma izango da martitzenean, urriaren 22an, 18:00etan, Arkupean; *Zauria(k)* dokumentala emango dute. Eromena, gaizki-egonak eta osasun mentala ikuspegi feministatik lantzen ditu eta sufrimendu psikosoziala eta genero bizipenak uztartzen ditu, bederatzi emakumeren errealitateak kontatuta.

Bestetik, ikastaro bi deitu ditu: *Lodifobia zainetan* azaroaren 21erako eta autodefentsa feminista abenduaren 28rako eta 29rako. Horietarako alde aurretik eman behar da izena, helbide honetara idatzita: *berdintasuna@aretxabaleta.eus*. Azken eguna urriaren 31 da.

## Kuku Miku elkarteak abian du aurtengo Guraso Eskola

Gurasoen kezka edo zailtasun egoeretatik abiatuta askotariko gaiak landuko dituen eskola jarriko du abian Kuku Mikuk; besteak beste, autonomia, mugak, sariak eta zigorrak, beldurrak, sexualitatea, agresibitatea, egoera gatazkatsuak... Nerea Mendizabalek gidatuko ditu saioak eta hamabost guraso inguruk osatuko dute taldea. Hilero saio bat egingo da, astelehenetan –adosteko aukerarekin taldekideen artean–, 17:45etik 19:45era. Eta urteko kostua 170 euro ingurukoa izango da.

Izena emateko epea zabalik dago urriaren 20a arte, eta Kuku Mikura idatzi behar da: *kukumikuelkartea@gmail.com*.

Jou Díaz  
  
 Karakina  
 Durana 15  
 Tel.: 943 79 71 69  
 20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
**ARENZA**  
 ALTZARIAK  
 DISEINUA  
 APAINKETA  
 Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
 ARETXABALETA

ION  
 ANDER  
 CASTRO  
 ZABALA  
  
 Era guztietako  
 aukien konponketa  
 Zumezko  
 artikuluen salmenta  
 TAPIZERIA  
 OROKORREAN  
 943 78 71 65  
 639 01 69 69

# Zerga eta tasa gehienak %2,6ko igoko dituzte

Hondakinen gaineko tasa %11 igoko dute, horren bilketak eta tratamenduak sortutako gastuak estaltzeko; zirkulazioaren gaineko zerga, oster, izoztu egingo dute; eta tabernetako terrazai dagokien tasa %33 jaitsi. Orain arteko hobariei eutsi egingo diete

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udalbatzak aho batez onartu zituen, joan den urriaren 10ean, 2025eko zergak eta tasak arautuko dituzten ordenantza fiskalak. Neurri orokor gisa %2,6ko igoera aplikatzea proposatu zuen Udal Gobernuak abuztuko KPI metatua erreferentzia hartuta: "Horrekin lortu nahi dena da gastu-ahalmenari eustea eta zerbitzu publikoak bideragarri izaten jarraitzea. Hau da, kalitatezko zerbitzuak eskaintzea eta, pertsonak eta ingurumena babestea". Igoera hori izango dutenen artean daude uraren tasa eta ondasun higiezinaren gaineko zerga. Baita kiroldegiko tasa ere, jarduerak izan ezik; horiek 2 euro gehiago ordaindu beharko dira hileroko.

Hondakinen tasak izango du igoserarik handiena: %11koa. Izan ere, udalek bere gain hartu beharko dituzte hondakinen bilketak eta tratamenduak sortzen dituen gastuak.

Igoera horretatik salbuetsita geratu da trakzio mekanikoaren gaineko zerga. Gutxien kutsatzen duten ibilgailuei, gainera, hobaria aplikatuko diete; CO2 isurketen araberrako taula bat ezarri dute horretarako. Auto elektrikoaren kargagailuendako, oster, %90eko hobaria zehaztu dute.

Era berean, tabernekin terrazek ordaintzen duten tasa %33 jaitea onartu zuten "tabernariarekin lanketa bat egin ostean", eta espazio publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa ere egokitu egingo dute.

## Hobariak mantendu

Aurretik abian zeuden hobariak aplikatzen jarraitzeko asmoa dutela esan zuen Garikoitz Iturbe alkateak: "Familia guztiek zerbitzu publiko guztiak eskura ditzaten, diru-sarrerak edozein izanda ere". Gaineratu zuen gora

egin duela azken urtean eskarera kopuruak.

## EAJren aldeko botoa

Euzko Alderdi Jeltzaleak begi onez hartu zuen proposatutakoa. "Aplikatu den zerga politika da azken urteetan gu aplikatzen ibili garenaren oso antzekoa. Zaborraren tasa ez da beste herri batzuetan beste igoko, aurreko agintaldietan igotzen joan garelako", zioen Mikel Uribetxebarria bozeramaileak. Hobariaren proposamenarekin ere bat etorri ziren eta alde bozkatu zuten.



Udalbatzako kideak osoko bilkuran elkartuta. MIRARI ALTUBE

## 'Liburutegia etxera' egitasmoari ekingo diote urriaren 24an

Telefonoz edo posta elektronikoz eskatu ahal izango dituzte liburuak mugikortasun arazoengatik joan ezin direnek

**M.A. ARETXABALETA**

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da urriaren 24an, eta, hori aprobetxatuta, *Liburutegia etxera* egitasmoa jarriko du abian Udal Liburutegiak. Horien erabiltzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: EAEko edozein udal liburutegitako bazkide izatea; Aretxabaletan bizitzea; eta mugikortasun arazoengatik edo adina dela-eta Arkupera ezin joan izatea. Pertsonako hiru liburu edo hiru dokumentu -DVDak, CDak, aldizkariak...- eskatu ahal izango

dira, telefonoz edo posta elektronikoz. Eta 21 eguneko maila-gu-epea izango dute, luzatzeko aukerarekin. Banaketak astelehen eguerdian egingo dituzte, hizordua aurretik adostuta.

## Galdetegia eta opariak

Bestetik, liburutegiaren gainean herritarrek duten iritzia jasotzeko galdetegi bat zabalduko dute.

Gainera, urriaren mailaguren bat egin dutenen artean 50 euroko bi erosketa-bonu zozketatuko dituzte Arrasateko Elkar dendan erabiltzeko.

## GORA ETA BEHERA



## Lurra botatzea sabaira eta atarrietara

"Umekeria da, baina zikindu egiten duen umekeria", kexatu da Iralabarri plazako bizilagun bat. Izan ere, umek lur zatiak bota dituzte hainbat egunetan plaza horretako arkupeetako sabaira eta hango ile-apaindegiko eta zenbait ataritako kristaletara, eta inguruak zikindu dituzte.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



**Durana**  
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO  
ESPEZIALISTAK 3D  
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

## Ingurumena ardatz, programa betea izango da Aste Berdean

Patin ikastaroa, erreka garbiketa, Jakoba Errekondoren hitzaldia eta orientazio jolasa antolatu dituzte

### I.B. ESKORIATZA

Urriaren 18tik 26ra bitartean Aste Berdea ospatuko da, bigarrenengoz. Iazko esperientzia oinarri, Eskoriatzako Udalak, herriko eragileekin eta hainbat herritarrekin elkarlanean, ingurumenarekin lotutako zenbait ekintza antolatu ditu.

Gaur, patinetan ibiltzen ikasteko aukera izango dute 8 eta 11 urte bitarteko haurrek Luis Ezeizako kantxan, eta, eguraldi txarra bada, frontoian egingo dute saioa. Bi ordutegi izango dira aukeran, 16:45 edo 18:00ak, eta ezinbestekoa izango da patinak eramatea.

### Urriaren 19an erreka garbiketa

Biharko, berriz, erreka garbiketa dago deituta Debagoienean (Ikus bosgarren orria), baita Eskoriatzan ere. Parte-hartzaileak 11:00etan elkartzeko dira

Fernando Eskoriatza plazan, eta batzen den jende kopuruaren arabera erreka eremu ezberdinetan banatuko dira. Batez ere, Santa Ana auzotik bibliotekarainoko zatian arituko dira garbiketa egiten. Horrekin batera, gaztelekutik, 11:30ean estoldak apaintzera aterako dira, eta sentsibilizazio mezuak marraztuko dituzte grafiti bidez.

### Hitzaldia eta orientazio jolasa

Urriaren 23an, berriz, *Lurzorua*ren garrantzia hitzaldia izango da, 18:30ean, Zaldibar antzokian. Lurzorua garrantziaz arituko da berbetan Jakoba Errekondo. Urriaren 26an, berriz, orientazioa familian egingo da, 10:30ean, Ibarraundi museotik abiatuta. Mapa eta iparrorratza lagun, ibilbide bat egin beharko dute partaideek, begiralearen azalpenak jarraituz.



Torrebaso industrialdetik gora dauden Eskoriatzako udal ortu publikoak. IMANOL BELOKI

## Aisialdirako sei ortu libre daude Torrebasoan

Torrebaso industriagunearen goian dauden aisialdirako sei ortu libre geratu dira, eta horien erabilera arautuko duten oinarriak onartu ditu Eskoriatzako Udalak. Erabiltzaile izan nahi duenak baldintza batzuk bete beharko dituela ohartarazi dute

### OHARRAK

#### Ezkurtxo Zarimutzen zapatuan

Zapatuan egingo dute, Arizmendik deituta: ibilaldia, ipuin kontaketa musikatua, jolasak eta txistor-jana. Autobusa jarriko dute igotzeko 09:30ean (lehenengo bidaia) eta bueltatzeko 13:40an (lehenengo bidaia).

#### Shuka hotelaren inaugurazio ekitaldia

Urriaren 24an, 19:00etan, Shuka Hotelak inaugurazio ekitaldia egingo du. Bertan luntxa izango da, musikarekin girotuta.

#### 'Genozidioa stop!' elkarretaratzea

Gernika-Palestina herri ekimenak deituta egingo da, Fernando Eskoriatza plazan, urriaren 21ean, 19:00etan.



**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Torrebasoko ortuak 2004an jarri zituzten martxan, duela hogeita urte. Ordutik hona herritarrek lursail horiek erabiltzeko aukera izan dute, Udalean eskaera formala eginda, bete beharreko baldintza guztiak betetzen dituztela demostratuta. Urteroko eskaerez gain, eskaera berriak ere jaso dituzte, eta Torrebasoko udal lursaila aktibo mantentzen dute herritarrek.

Gainera, aisialdiko baratz horien helburu nagusia okupazioa sustatzea da, batez ere, helduen aisialdia modu praktikoa eta aberasgarrian bultzatuz, eta, bide batez, nekazaritza tradizionalaren erabilera eta ohitura batzuk berreskuratzea, produktu naturaletan oinarritutako elikadura osasungarria bultzatuz. Horren baitan, 29 partzela daude, guztira, hiru lursailetan banatuta, eta bakoitzak 60 metro karratu ditu. Une honetan sei partzela libre daudela iragarri du Eskoriatzako

Udalak, eta, ortu horiek uzteko oinarriak onartuta, autokontsumorako eta nekazaritza-ekoizpenerako soilik erabiltzeko interesa duten guztiak urriaren 25era arte dute eskaerak aurkezteko.

#### Sei partzela libre

Ortu horiek doan utziko ditu Eskoriatzako Udalak, eta libre daudenak hauek direla jakinarazi du: 5, 7, 9, 11, 19 eta 22 zenbakidunak. Ortu horiek bost urte naturalerako erretiratu edo baliaezintasuneko pentsiodunei eta bi urterako langabezian jardunean dauden pertsonen eta nortasun juridikoa duten erakunde edo elkarten kasuan utziko zaie.

**INTERESDUNEK URRIAREN 25ERA ARTE DUTE ESKAERAK AURKEZTEKO, EGUBAKOITZA**

#### Erabiltzaile izateko baldintzak

Eskaera egiteko oinarriak, baldintzak, eskaera ondoren jarraitu beharreko prozedura... udal webgunean daude ikusgai. Baldintzei dagokienez, Eskoriatzako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea nahitaezkoa da; pertsona bakoitzak ortu bakarra erabiltzeko baimena lortu ahal izango du; bizikidetzaren unitate bakoitzari ortu bakarra erabiltzeko baimena emango zaio, Eskoriatzan erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin, ezinbestekoa izango da; orturik jabetzan ez izatea...

#### Eskaerak egiteko bi modu

Eskaerak urriaren 25a aurretik egin beharko dira, eta bi modu daude: presentzialki, Eskoriatzako udaletxean, H@ZI (Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integrala) bidez; edo online; kasu horretan, ziurtagiri digitala beharko da: Izenpe, nortasun agiri digitala edo B@KQ.





Doke Antzerki Taldeko antzezleak oholztan. IMANOL SORIANO

## 'Hemen ez du inork ordaintzen' liburuan oinarritutako lana

Doke Antzerki Taldeak Dario Fo idazlearen lana eramango du Zaldibar antzokira domeka honetan

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Doke Antzerki Taldeak, Dario Fo italiarraren obra ardatz, *Hemen ez du inork ordaintzen!* lana eskainiko du domekan, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak aldeztatik erosi daitezke Manuel Muñozen eta *bibe.me* webgunean, bost eurotan. Doke taldearen bederatzigarren obra da honako hau, eta, Vene Herreroren gidaritzapean, Mainer Alcay, Itziar Rosado, Xabi Latorre, Garbiñe Nuñez, Arantza Ezkurra, Mariasun Pagoaga, Itsaso Nuin eta Asier Alonso arituko dira antzeztan. Hauxe

dio Mainer Alcay: "Era komikoan idatzitako antzezlan da, nahiz eta 70eko hamarkadan idatzia izan, gaurkotatua osoz, kritika sozial sakona egiten duena".

### Umorez kontatuta

Bi etxeokandrek hil amaierara iristeko dituzten arazoak aurkezten ditu lanak. Andreetako bat supermerkatu sartzan da eta ahal duen guztia eramaten du ordaindu gabe. Gero, bi andrek, lapurretaz inor kontura ez dadin, plan bat asmatzen dute, senarrak ere konplize bihurtzeko.

## Itzartu Gazte Asanbladaren afaria ikasturtea hasteko

Itzartu Gazte Asanbladak deituta, afaria egingo da gaur, egubakoitza, 21:30ean, kultura etxean. Elkartearen asmoa da herriko gazteak batzea, eta, ikasturtea martxan jartzea, eta, bide batez, urriaren 26an egingo duten Gazte Asanbladan parte hartzeko dei egitea. 50 lagun inguru batzea aurreikusten dute afarian, eta afalurretik joko-poteoa egingo dute. "Afaltzera datorrena, ez datorrena edo asanbladara gerturatu nahi duena animatzen dugu joko-poteora. Horrekin batera, afaloste musikua ere egingo dugu, eta jai-giroan ikasturteari hasiera eman", adierazi dute Itzartu Gazte Asanbladako kideek.

## Ekin diote literatura solasaldien udazkeneko zikloari

Mikel Antzaren gidaritzapean, atzo, eguna, izan zuten udazkeneko literatura solasaldien lehenengo irakurketaren gaineko solasaldia. Hain zuzen Juan Mari Irigoien idazlearen *Babilonia* liburua izan zuten aztergai bertaratuek. Urtea bukatu aurretik izango dituzten liburuak eta egunak ere zehaztu dituzte. Azaroaren 21ean, Karmele Jaioren *Maitasun Kapitala* izango dute aztergai; eta abenduaren 19an, berriz, Iratxe Ormatzaren *Printzak begietan* liburua. Saioak bibliotekan izango dira, 18:00etan, eta interesdunek 943 71 31 35 zenbakira deitu edo 674 11 19 55 zenbakira idatzi dezakete.

# Eusebio Villar hil da, Gatzagako alkate ohia

Gatzagako alkate izan zen 2007-2011ko agintaldian eta Eskoriatzan zinegotzi 80ko hamarkadan; Atxorrotx Kultura Elkartearen eta Eskoriatzako Museoaren sortzaileetako bat ere izan zen, eta 2018tik Toki Eder Jubilatuen Elkarteko idazkaria izan da

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gaixotasun luze baten ondoren, Eusebio Villar Azkarate (Eskoriatza, 1950 / Arrasate, 2024) Leintz Gatzagako alkate izan zena hil zen astelehenean, urriaren 14an, 74 urte zituela. Gatzagako alkate izateaz gain, Eskoriatzan zinegotzi ere izan zen 80ko hamarkadan, Felix Barandiaran -Euzko Alderdi Jeltzalea- alkate zela, hain zuzen ere, 1979-1983ko agintaldian; Atxorrotx Kultura Elkartearen eta Eskoriatzako Museoaren sortzaileetako bat ere izan zen; eta 2018tik gaur arte Gatzagako Toki Eder Jubilatuen Elkarteko idazkaria izan da. Hark nahi zuen moduan, ez zaio inongo ekitaldi edo hileta-elizkizunik egingo.



Eusebio Villar zena. JOXEFE DIAZ DE TUESTA

### Gatzagako alkate lau urtez

Ainara Zubillaga, Iñaki Elkorobarrutia, Asier Elkorobarrutia, Iñaki San Pedro, Ibon Oñederra eta Ainhoa Barandiaran bide-lagun zituela izan zen Leintz Gatzagako Hautesle Elkartearen izenean Leintz Gatzagako alkate, 2007 eta 2011 urte arteko agintaldian. Horren baitan, honako hau adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako alkateak, Udalaren partetik: "Udalean egon zenean, herri-iriztan, elkarte desberdinetan eta lagun artean ere ezkerretik gidatu gaitu: gardentasuna, konpromisoa eta lankidetzaren ardatz izan dituela. Eskerrik asko, Eusebio, egindako eta erakutsitako guztiagatik".

Horren baitan, hiru dolu-egun izan dira, astelehenean eguaztena bitartean, eta udaletxeko banderak haga erdian egon dira egunotan, mezu honekin batera: *Bere izaera aparta eta Leintz Gatzagaren garapena eta ongi-zatea sustatzeko egin zuen ahal-egina azpimarratu nahian, Eusebio Villar Azkarateren egin-kizun politiko eta sozialaren garrantzia eta eta herri honeta-*

*ko alkate izan zenaren ordezkari-tzaren balio instituzionala kontuan hartuta erabaki hau hartu dut.*

### Elkartasun mezua

Eskoriatzako Udaletik ere elkartasuna adierazi nahi izan diote Villarren senitartekoei. Izan ere, Eskoriatzan zinegotzi izan zen 1979-1983ko agintaldian, eta herrian "lan asko egin zuen elkarte eta eragile ezberdinekin". Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak, azaldu duenez, "zinegotzi izateaz batera, Eskoriatzako Museoaren sortzaileetako bat ere izan zen, eta, beraz, egin zuen lana eskertu beharrean gaude". Horrekin batera, Atxorrotx Kultura Elkarteko sortzaileetako bat ere izan zen.

### Toki-Eder elkartearen gidari

2018tik urtetik Toki-Eder jubilatuen elkarteko idazkaria

## HIRU DOLU-EGUN IZAN DIRA, ETA UDALETXEKO BANDERAK HAGA ERDIAN JARRITA

izan da, gaur arte. Gogoan izango dutela adierazi dute elkarteko kideek: "Idazkari karguan zegoen oraindik, eta Gatzagako erretiratuok eskertu egin nahi dugu hark egingo lan guztia; hark eramaten zuen dena... Gure aldetik, eskertu egin nahi genuke haren jarrera boluntarioa, eskuzabaltasun hori eta, batez ere, jarri duen indarra eta kemena ilea-apaindegia aurrera ateratzeko, nahiz eta ez duen estreinatua...", adierazi du Perico Orobengoak, Toki-Eder jubilatuen elkarteko ordezkariak.

### Agur-ekitaldirik ez

Orobengoak gaineratu duenez, Eusebio Villarrek ez zuen inongo eliza-elizkizunik ez beste ekitaldirik nahi. "Eguzketan Labidean mokadutxo bat jan eta zerbait hartzeari *Angelusa* deitzen zion, eta hori nahi zuen egitea. Beraz, azken agurra, hark nahi zuen moduan, haren etxe elkartean zerbait jan eta edanez egingo dute senitartekoei eta gertukoek bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara bitartean.



Organikoaren edukiontzia bat zintzilik Antzuolako Herriko Plazan. A.R.K.

## %24,31ko igoera izango du hiri-hondakinen tasak

Europako lege bat dela-eta zehaztu dute igoera, zaborren gaia ezin baita defizitariora izan udalentsat. Beste zerga eta tasetan ere igoera izango da, ekonomia jardueren gaineko zergan eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan izan ezik

### Amara Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Hiri-hondakinen bilketak eta haren tratamenduari dagokion tasak %24,31ko igoera izango du datorren urtean, martitzenean, hilaren 15ean, eginiko ezohiko osoko bilkuran hori erabakita. Hala, 2025ean, etxebizitza bakoitzak 168,12 euro ordaindu beharko ditu zaborrengatik. "Orain arte, etxebizitza bakoitzeko 135 euro inguru ordaintzen ziren, baina igoera aplikatu behar izan dugu, Europatik datorren lege batek baitio udalentsako hiri-hondakinen gaia ezin dela defizitariora izan; bakoitzak berea ordaindu behar du, horrenbestez", azaldu du Olatz Lezetak, Antzuolako alkateak.

EH Bilduko zazpi zinegotzien aldeko botoekin egin zuten aurrrera 2025eko ordenantza fiskalak, EAJko laurek abstentziora jotzeko erabakia hartu zutela jakinarazi baitzuen Josu Xabier Arangurennek, jeltzaleen bozeramaileak, "informazioa eta

denbora falta" izan zaielako gaia aztertzeko. "Bilera hau ez da prozedura jarraituz egin. Gai garrantzitsua da, eta gauzak egoki egin behar dira; beraz, abstentziora joko dugu". Lezetak berak ere aitortu du "presaka" eginiko ezohiko osoko bilkura bat izan dela, Gipuzkoako Foru Aldundiak duela bi aste inguru jakinarazi baitzuen urriaren 16a, joan den eguaztena, baino lehenago onartu behar zirela ordenantza fiskalak, hala ezean "gain-kostua" izan zezakeelako Udalarendako.

### Igoerak eta izozteak

Zaborren tasak, horrenbestez, igoera izango du 2025ean, baina baita gainontzeko gehienek ere:

**ZABORRENGATIK  
168,12 EURO  
ORDAINDU BEHARKO  
DITU ETXEBIZITZA  
BAKOITZAK 2025EAN**

hain justu, Lezetaren hitzetan, zerga eta tasa guztiek izango dute %3ko igoera; esate baterako, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak. Ondasun higiezinak buruzko zergak, aldiz, %1ekoa izango du: "Gipuzkoako Foru Aldunditik joan den astearen amaieran bidali ziguten informazioa balio katastralak %2 igo behar duela, eta horrengatik erabaki dugu %1eko igoera ezartzea".

Horrez gain, bi zerga ez dira igoko, "topean" daudelako: ekonomia jardueren gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.

### Ikastaroak, apirilean

Ikastaroen tasei dagokienez, orain sartu dituzte ordenantza fiskalari, baina, prezioak irailan zehaztu zituztenez, ez dituzte moldatuko; edozelan ere, Olatz Lezetak azaldu du apirileko osoko bilkuran landuko dutela gaia 2025-2026ko ikasurteari begira.

## Elkoro "hunkitua eta eskertua" dago jasotako aitortzarekin

Joan den astean egin zuen ekitaldia Udalak, eta Elay enpresak ere oroigarri bat eman zion eskerrak emateko

### A.R.K. ANTZUOLA

Jose Luis Elkoro enpresari eta politikariak herriko bandera eta gutuna jaso zituen hilaren 10ean, Udalaren eskutik, eta "hunkitua eta eskertuta" dago "herriaren atxikimenduarekin. Aberastasun handiko omenaldi bat izan da. Pertsona batek egin dezake, erakunde batek, baina herri batek egitea izugarritzko aberastasuna da".

Elkororen enpresari eta politikari ibilbideaz jardun zuen ekitaldian Mikel Zubimendi kazetariak, hark ondutako Jose Luis bizitza bete bat. Han egon zen liburuaren aurkezpenean.

### Elayren oroigarria

Elay eta Balzers enpresen sortzailea ere izan zen Elkoro, eta Eleder Albizuk, Elay enpresako zuzendari orokorrak, eskerrak eman dizkio; baita Elkororen



Elkoro eta Lezeta. IMANOL BELOKI

bidelagun izan den Mari Karmen Aiastui emazteari ere. "Egindakoa biok batera egin dugu, bata bestearen aldamenean; eskutik. Batzuetan tokatu izan zaio bati leku batean egotea eta besteari bestean, baina beti egon gara elkarrekin", erantsi du Elkorok.

## OHARRAK

### Aiherra-Antzuola Eguna Aiherran

Bihar ospatuko dute: udalen hitzarmena sinatzea, 10:00etan; herri-jokoak, 11:30ean; aperitifa, 13:00etan; bazkaria, 14:30ean.

### 'Hona bostekoa' erakusketa

Unai Gaztelumendi, Eñaut Aiartzaguena, Kote Camacho, Iñaki Martiarena eta Aritz Ibarra artisten lan bateratua da, komikiak oinarri. Orlanen ikusgai bihar eta etzi, 18:30etik 20:30era.

### AENri buruzko hitzaldia

AEN Autismoaren Espektroko Nahasteak. Ezagutu eta zure mundua hitzaldia, Maider Triviñoren eta Xabat Askasibarren eskutik, hilaren 24an, 18:30ean, Orlanen.

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

## GOIENAKIDE

# Debagoiendarren komunitatea, bertakoa babestuz

Goiena erreferente informatiboa da debagoiendarrentzat, norberaren herriko zein inguruko informazioa jasotzeko. Goienako produktuak kontsumitzen dituzten norbanako zein enpresek haren hurbiltasuna nabarmendu dute, besteak beste.

Goienakide egiteko aukera sortu zenean harpidedun egin ziren batzuk, eta azken urtean batu dira harpidetzak ematen dituen abantailatara beste batzuk. Norbanakoentzako aukera bereziak eskaintzeaz gain, negozio txiki-kientzako harpidetzak zein bestelako enpresa edo elkarteentzako kideak ere badaude, eta horiek ere badituzte abantaila bereziak.

Debagoieneko albisteen eta gertaeren inguruan informazioa jasotzeko hedabide erreferententzat daukate Goiena kide gehienek, eta *Puntua* aldizkarian argitaratzen diren arnas luzeagoko erreportajeetan jarri dute arreta beste batzuek. Guztiek nabarmendu dute tokiko komunikabide bati babesa emateko beharra, eta hedabideak ematen dien gertutasuna.

## Abantaila ugari

*Puntua* aldizkaria jasotzeaz gain, zozketetan eta ekitaldietan parte hartzeko aukera ematen die kideei harpidetzak, beste abantaila askoren artean. Bestalde, kide diren enpresek eta elkarteek euren burua ezagutzera emateko aukera ezin hobea ikusten dute hedabidean.



**EDUARDO ABARRATEGI**  
GOIENAKIDEA

"Hedabidea sortu zenetik" dira Goienakide Eduardo Abarrategi eta bere bikotekidea. Goienako produktu idatziak irakurtzen dituzte, eta telebista ere ikusten dute, Abarrategik esan duenez: "Bertako notiziak modu eskuragarrian eta euskaraz irakurtzeko aukera ematen dit Goienak. Gustura irakurtzen ditut albisteak eta erreportajeak, Debagoienean zein hemendik kanpora gertatzen direnak ezagutzeko. Aukera ezin hobea da".



**JUAN CARLOS MADINABEITIA**  
GOIENAKIDEA


"Herrian gertatzen denari buruz jakiteko biderik egokiena" da GOIENA Juan Carlos Madinabeitiaren ustez. GOIENA papera kontsumitu izan du orain arte, baina duela hilabete Goienakide egin eta *Puntua* astekaria jasotzen ere hasi da. Papereko produktuak kontsumitzeaz gain, hedabidearen aplikazioa ere jaitsi zuen duela gutxi, eta bertatik irakurtzen ditu orain albisteak. Horrez gain, zozketetan parte hartzeko ere erabiltzen du.



**MAITE AGINAGALDE**  
GOIENAKIDEA

Ezinbestekoa iruditzen zaio bailaran bertako komunikabide bat izatea Maite Aginagalderi: "Zero kilometroaren aldekoa naiz. Beharrezkoa da urruti gertatzen diren gauzen berri izatea, baina gertukoa ahaztu gabe. Uste dut, askotan, inguratzen gaituen horren berri izateaz ahaztu egiten garela. Hurbiltasun hori ematen dit GOIENAK". Horregatik, "gomendagarria" eta "garrantzitsua" iruditzen zaio Goienakide izatea eta proiektua babestea.

**Egin zaitez  
goienakide:  
943 25 05 05**  
Deitu eta  
eman izena!



**KATHERINE RENDON**  
PINPILINPAUXA DENDA, GOIENAKIDEA

Arropak konponketako Pinpilinpauxa dendaren jabea da Rendon. Duela lau zapabost hilabete zabaldu zuen denda Bergaran, eta komertzioa zabaltearekin batera egin zen Goienakide: "Nire negozioa komertzioen gidan jartzeko aukera eman dit". Azaldu du "garrantzitsua" izan dela tokiko hedabide batean Pinpilinpauxaren presentzia bermatzeko, herrian zerbitzu hori ezagutarazteko. Era berean, papereko edizioa ere jasotzen du.



**ESTIBALIZ BEREZIBAR**  
GOIENAKIDEA

Estibaliz Berezibar Goienakide berria da; urtebete inguru da kide dela. Haren lehengusina ere bada Goienakide, eta harekin hizketan ari zela erabaki zuen kide egitea: "Beste bazkide batzuk ere badauzkat erakunde handiagoetan, eta pentsatu nuen, gertuago etorrita, beharrezkoa zela Debagoieneko komunikabide bat ere babestea". Otorduen zein futboleko sarreraren zozketetan parte hartzen du gehienetan.



**JOSU ANSOLA**  
SEIN TALDEA, GOIENAKIDEA

Duela gutxi egin da Goienakide Sein enpresa, bertako arduradun Josu Ansolak esan duenez: "Guk Euskal Herri osoan lan egiten dugu, baina, Arrasateko enpresa bat izanik, garrantzitsua iruditzen zitzagun bertako komunikabide bat babestea. "Bertakoa eta euskalduna" den hedabide batean bere presentzia bermatu nahi zuen enpresak: "Gainera, gure irudia Goienako webgunean eta gidan ateratzeak ere asko laguntzen digu".



# goiena<sup>”</sup> kide

Bidelagunak, babesleak, bultzatzaileak, kideak. 3.627 dira, uneotan, Goiena bultzatu eta astero babesten duten Goienakideak. Ostiralero GOIENA eta *Puntua* aldizkariak etxean jasotzen dituztenak eta bestelako abantailaz baliatzen direnak. Baina hori baino gehiago da komunitatearen parte izatea: Goienaren kontzeptua errotzea da, euskararen normalizazioa sustatzea eta baita herrigintzaren aktibazioa lortzea ere. Komunitate bat sortu da tokiko komunikabidearen inguruan. 3.583 banakok eta 44 enpresak osatzen dute oraingoz, eta urtero haziz joan da 2004. urtean kidetza sortu zenetik.

Komunikabidearen sorreran, ostiraletako doako zenbakiaz gain, astelehenetan ordainpeko zenbakia argitaratzen zen informazio osagarriarekin. 2015. urtean, ordea, *Puntua* aldizkaria sortu zen. *Puntua*-k arnas luzeagoko tokiko kazetaritza bultzatu nahi du, eta eduki hori indartzea da gaur egun Goienakideen komunitatearen helburuetako bat. Orduz geroztik, abantaila ugari gehitzen joan dira Goienakideen komunitatera. *Puntua* aldizkaria banatzen

## Tokikoa eta euskaraz: Goienako kide izatea, abantaila askorekin

Goiena komunikabidea bultzatzen laguntzen dute ia 4.000 lagunek. Horrek, era berean, abantaila asko ekartzen dizkie Goienakideei: zozketetan parte hartzeko aukera, eduki bereziak eta informazioa lehenago jasotzeko aukera, besteak beste.

zaie Goienakide direnei soilik. Koloretan inprimatutako aldizkari formatuko 48 orriko argitalpena da, eta elkarrizketak, erreportajeak, iritzia eta bestelako gaiak azaltzen dira. Horrez gain, Goienako gainontzeko edukietan lehenatasuna dute Goienakideek. Bi aldizkariak ostegunero 00:00etan irakurtzeko aukera zabalitzen zaie, Goienaren aplikazioaren bidez. Edukiari dagokionez, badaukate beste abantaila bat ere: Goienako argazki galeriak eta bideoak kalitate handian deskargatu

ditzakete, eta ur marka barik. Azaroan egutegi bat ere banatuko da, iaz bezala. Iazkoa lanbideei buruzkoa izan zen, eta, aurtten, arteari buruzkoa izango da. Debagoieneko jaiak nabarmenduta egongo dira bertan.

### Abantailak barra-barra

Zozketak eta deskontuak dira Goienakideek gehien nabarmentzen dituzten beste abantaila batzuk. Astero izaten da Debagoieneko jatetxeetan bi lagunentzako otordua irabazteko aukera, zozketa bidez. Bestalde,

**BANAKAKO KIDETZA EDO KOLEKTIBO AEGIN DAITEKE, ENPRESA EDO ELKARTEENTZAT**

**APLIKAZIOAREN BIDEZ, ALBISTEAK LEHENAGO JASO ETA ZOZKETETAN PARTE HARTU DAITEKE**

Realaren partiduak Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik ikusteko sarrerak zozkatzen dira jardunaldi guztietan. Aukera ezin hobea da partiduak gune pribilegiatu batetik ikusi eta jokariengandik hurbil egoteko. Bestalde, teknologia-gailuak, jaki-otarreak eta ikuskizunetarako sarrerak ere lortu ditzakete Goienakideek zozketen bidez. Esaterako, 2024. urtean dagoeneko 100 Goienakidek baino gehiagok jaso dute mota horretako sariren bat. Batez beste, hilean dozena bat sari banatu ohi dira parte hartzen duten Goienakide guztien artean.

Horrez gain, deskontuak ere ekartzen ditu Goienakide izateak. Debagoieneko hainbat komertziotan baliatu daitezke, baita Arrasateko Avia gasolindegian ere. Deskontuak, noski, Goienako zerbitzuetan ere badituzte Goienakideek; eskelak zein argazki sailkatuak jartzeko, esate baterako. Hori guztia gutxi baltitz, onura fiskalarekin ere badakartzate Goienakide izateak: errenta aitortpenaren kide izatearen %30 bueltan jasotzen dute kideek. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehenatasu-

nezko mezenasgo jarduera izen-dapena daukate.

Hala ere, eskaintzen dituen abantailez gain, komunikabideak dauzkan balioak dira Goienakideak komunitatera ekartzen dituztenak. Kide gehienek azpimarratzen dute Goienak Debagoienean betetzen duen behar-beharrezko funtzioa; zerbitzu gisa eta euskara bultzatzeko tresna moduan. Alegia, nabarmentzekoa da tokiko hedabideek daukaten garrantzia euskarazko kalitatezko kazetaritza eta komunikazioaren arrerabidean. Besteak beste, garai berrietara moldatzen jakin du Goienak; paperezko edizioa kaleratzen hasi bazen ere, multimedia egitasmo osoa sortu du Debagoieneko informazioa zabaltzeko. Euskarazko komunikazioaren punta-puntako eredu da gaur egun, Debagoienetik haratago heldu dena.

#### Euskara ardatz

Euskararen normalizazioan ere zeregin garrantzitsu bat dauka Goienak. Debagoienetik pertsona eta entitateen arteko komunikazio beharrak asetzeari ere ekarpena egitea dauka helmugatzat: eskualdeko garapena bultzatzea, komunikazio arin eta etengabea eskaintzea eta eredu parte-hartzailea sustatzea. Hori guztia, lankidetzaren, autonomia eta aitzindaritza bultzatuta.

#### 25 urtez lanean

Hala ere, ez da bide laburra izan. Ia 25 urte dira Goienak bere ibilbidea hasi zuela. Goiena Komunikazio Taldea 2000. urteko ekainean sortu zuten Debagoieneko bederatzi euskara elkarteek: Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Aramaio, Antzuola, Elgeta eta Oñatiko taldeek, hain zuzen. Gaur-gaurkoz ere, jabetzaren gehiengo euskara elkarteek dute kooperatibana. Debagoiendar asko eta asko izan dira Goienako produktu komunikatiboetako protagonista, eta erreferentzetat daukate komunikabidea bertako informazioa jaso eta ententezterako orduan.

# 10

SARI HILERO

Goienakideen artean egindako zozketetan hamar sari banatzen dira hilero, gutxienez. Otorduak, sarrerak, eta askoz gehiago.

# %30

ONURA FISKALAK

Goienakide eginda, urteko kideztaren %30 bueltatzen zaie banakako kideei errenta aitopenean.

# 3.583

BANAKAKO GOIENAKIDE

Banakako kideztza egin duen debagoiendar kopuruak gora egiten jarraitzen du urtetik urtera, etengabe.

# 65

BANAKAKO URTEKO KUOTA

Urte osorako kideztzak eduki eta abantaila ugari eskaintzen ditu. Gainera, 2024ko kideztza doan lortu daiteke orain.

# 44


ENPRESA ETA ERAKUNDE KIDE

Enpresek, negozio txikiek eta elkarteek ere egin dezakete kideztza kolektiboa Goienan. Haiek ere hainbat abantaila dituzte.

**URTE OSOKO EGUTEGIA OPARI HARTUKO DUTE AURTEN ERE KIDEEK, ARTEAREN INGURUAN**

**APLIKAZIOAREN BIDEZ, ALBISTEAK LEHENAGO JASO ETA ZOZKETETAN PARTE HARTU DAITEKE**

## Goienaren aplikazioa, berrituta



Berrikuntzak datoz Goienara: komunikabidearen aplikazioa guztiz berrituko da, eta aukera emango du argitaratutako albisteak modu egokienean eta azkarrenean ikusteko. Goienaren bidez informatzen den pertsonarengan jarri da arreta osoa aplikazioa berritzeko orduan. Pertsonalizazio maila handia izango du: zein herritako abisua jaso nahi dituen aukeratu ahal izango du erabiltzaileak, esate baterako. Aplikazioa iOS eta Android plataformetarik jaisteko modua egongo da, doan.

**Aplikazio berria**  
Goienakideek abantaila gehiago izango dituzte aplikazioan ere. Urtea amaitu baino lehen, inork baino lehenago eta erosoago irakurri ahal izango dute GOIENA aldizkaria eta *Puntua* aldizkaria aplikazioan: egun bat lehenago! Formatu berritzailea eta aberastua izango du e-paper horrek. Argazki gehiago eta bideoak izango ditu, esaterako. Goienakide txartel digitala ere bertan izango da. Txartel digitalaren bidez, kontzertu batzuetara doan sartu ahal izango da, gasolina merkeago erosi zein hainbat dendatan deskontuak lortu.

Informazioa, kultura eta entretenimendua kanal askotatik helarazten du Goienak, etengabe. Esaterako, Goiena Telebistak eguneko 24 orduetan emititzen du, urteko 365 egunetan. Programazio berria estreinatuta du eta *Danbakast*, *Bixi ibili!*, *Hemen Debagoiena*, *Berbagai*, *Datuetatik tiraka* eta *Harmailatik* programak emititzen ditu, besteak beste. Eduki guztiak gordeta geratzen dira, eta *Nahieran* aplikazioan ikusi daitezke, Internet bidez, noiznahi. Doakoak dira eduki guztiak. GOIENA eta *Puntua* aldizkariak dagokienez, GOIENA aldizkariak 18.550 ale banatzen dira astero, doan, eta *Puntua* aldizkaria ere jasotzen dute Goienakideek -4.000 ale banatzen dira-.

#### Sarean presente

Bestalde, azken urteotan geroz eta garrantzi handiagoa hartu du Goienaren Interneteko atariak ere. Mundu digitalean aitzindaria izan da Goiena multimedia edukiari dagokionez. Erreferentziatzeko ataria da Debagoienean gertatzen denaren berri izan nahi duenarentzat, eta, informazioa eskaintzeaz gain, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu: Debagoieneko komertzioen gida, iragarki sailkatuak, bideoak... Horrez gain, parte hartzea sustatzeko asmoz, herritarrek parte hartzeko komunitate bat osatu du sarean Goienak. Bukatzeko, Arrasateko Udalararena den Arrasate Irratia ere kudeatzen du Goienak eta berrikuntza prozesuan dago orain.

#### Egokitutako kideztza

Banakoa edo kolektiboa, bi eratakoa izan daiteke Goienako kideztza: norberak etxerako eskatzen duen banakako kideztza arrunta dago, alde batetik; eta elkarte, negozio edo enpresen kideztza kolektiboa, beste alde batetik. Azken hori da kideztza mota berriena, eta hainbat kuota eskaintzen ditu, bakoitzaren baldintzen arabera. Horrek ere, banakoen kasuan bezala, onurak ekartzen ditu sozietateen gaineko zergetan; ordaindutako kuotaren %18ko hobaria izango dute kideztza kolektiboa dutenek.



## Goienakide, Gabonetarako opari

Eskerrik asko, Goienakide, GOIENAREN proiektua babesteagatik. Tokikoari buruz kalitatez informatzen jarraitzeko, ordea, komunitatea handitu nahi dugu, eta, bide horretan, erraz jartzen du Goienak Gabonetarako opari egoki bat aukeratzea: oparitu ezazu 2025. urterako Goienako harpidetza. 65 euro ordainduta, txartel digitala eskuratu daiteke, eta harpidedun egin. Horrek Goienakide izatearen abantaila guztiak oparitzea dakar, urte osorako.

Bata zein bestea nahi izanez gero, pauso erraz batzuk jarraitu behar dira kide egiteko. Goienaren Arrasateko egoitzara joatea da aukeretako bat, edo, bestela, bertara deitu -943 25 05 05- edo mezu elektronikoa bidez idaztea -*harpidetza@*

*goiena.eus*-.

Hori egin beharrik gabe

ere, webgunean

badago kide

egiteko aukera,

eta Goienaren

*app*-ak ere

ematen du

aukera hori. Nahi-

koa da norbera-

ren izen-abizenak,

helbidea eta posta

elektronikoa sartu, ordain-

tzeko bide bat aukeratu eta egin

nahi den kideztza mota hautatzea.

65 eurokoa da banakoentzako

urte osoko kuota. Hala ere, es-

kaintza berezi bat jarri du mar-

txan Goienak: 2025. urteko ki-

detzta orain eginda, 2024. urte

amaierara arte abantaila guztiez

doan gozatzeko aukera dago,

baita Goienakide izateak daka-

rren edukia doan jasotzekoa ere,

urtea bukatu bitartean.

**Egin zaitez goienakide: 943 25 05 05**  
Deitu eta eman izena!


Reale Arenako leku pribilegiatu batetik partidua ikustea edo Debagoieneko jate-txe batean afari eder bat izatea. Horiek doan egin dituzte Goienakideetako askok, komunikabideak eskaintzen dituen zozketak irabazi ondoren. Gainera, horietara joateko autoa hartu dutenentan, gasolindegiko deskontua eduki dute, Goienakide txartela Arrasateko Avia gasolindegian erakutsi badute. Geroz eta gehiago dira zozketetan parte hartzen duten Goienakideak, eta hilero dozena bat sari inguru banatzen ditu hedabideak. Aplikazioa jaitsez gero erraz hartzen da parte, eta webgunean bertan ere badago aukera izena emateko. Abantaila horietaz gozatu duten kideekin hitz egin du GOIENAK.

ITXASO SUAREZ

## "HORRELAKO SARRERA BATZUK LORTZEA OSO ZAILA IZATEN DA"

Bat ez; bi sari egokitu zaizkio, esaterako, Itxaso Suarez oñatiarrari. "Hasieran ez nuen zozketetan parte hartzen. Baina gero hasi nintzen, eta handik lasterrera egokitu zitzaizkidan bi sariak: Bergarako Tartufo jate-txean otordu bat eta Real Arenara joateko bi sarrera". Tartufo otordu bat egokitu zitzaizkion aipatu zien Suarezek gurasoei, eta, azkenean, otordua haiei oparitzea erabaki zuen: "Gurasoek esan zidaten lehen joaten zirela jate-txe horretara eta aspaldi joan gabe zeudela. Beraz, haiei oparitu nien afari bat bertan".

Futbolera sarrerak 8 urteko alabarekin joateko baliatu zituen Suarezek, Donostiako estadioan egin zen Errege Kopako finalerdietara. "Ikaragarriko esperientzia izan zen. Sekulako giroa zegoen, eta aukera izan genuen partidua leku ezin hobe batetik ikusteko. Jokalariak irtetzen diren lekuan eseri gintuzten, eta *premium* gunera sartzeko aukera ere izan genuen". Alaba Reale Arenara zihoan lehenengo aldia zen, eta "sekulakoa" izan zen esperientzia harentzat, Suarezek hitzetan. "GOIENARI esker eduki genuen leku pribilegiatu hori, horrelako sarrera batzuk lortzea oso zaila izaten baita".



Larrañaga eta Gutierrez Reale Arenan; zozketatzen diren otorduetako bateko platera; eta Ana Pujana, gasolindegi aurrean. GOIENA

# Goienakideak, pozik kide izatearen abantailekin

Futbola ikusteko sarrerak, kultur ekitaldietara joateko aukera, otorduak jate-txeetan, deskontuak gasolindegian... Abantaila ugari dituzte Goienakideek; eta horietako askori egokitu zaie sariren bat jada

MIKEL GUTIERREZ

## "TXUNDITUTA GERATU GINEN; ESTADIOAN EGOKITU ZITZAIGUN LEKUA ITZELA ZEN"

Esperientzia "ikaragarria" izan zuen Mikel Gutierrezek ere Reale Arenan. Haren aita izan zen GOIENAK zozkatu zituen lehen sarreraren irabazlea, 2022an: "Aita ibiltzen da zozketetan parte hartzen, eta hari egokitu zitzaion

saria". Aitak joan ezin zuela eta, Gutierrezen eman zizkion sarrerak, eta Beñat Larrañaga lagunarekin joan zen hura partidua ikustera. "Estadioa berria zen, eta oraindik ez nintzen bertan egon berrikuntzak

egin zituztenetik. Txundituta geratu ginen. Estadioan egokitu zitzaigun lekua itzela zen, ikuspegi onarekin, eta *premium* eremua ikaragarria". Futbolzalea da Gutierrez, eta bereziki nabarmendu du jokalariak beritate baten bidez ikusteko aukera ere izan zutela.

NEREA LETE

## "GOIENATIK DEITU ZIDATEN, ETA ESAN ZIDATEN OTORDU BAT DOAN NEUKALA"

Nerea Leteri ere egokitu zitzaion otordu bat uztailean. Duela urtebetetik da Goienakide, eta mugikorreko aplikazioaren bidez "askotan" hartzen du parte zozketetan. "Goienakoek deitu egin zidaten, eta esan zidaten otordu bat doan neukala", esan du. Tartufo jate-txean birenzako otordu bat egokitu zitzaion, eta asteburu honetan joateko asmoa dauka.

ANA PUJANA

## "JENDEAK BADAKI DESKONTUAK DITUZTELA GASOLINDEGIAN"

Zozketetako sariez gain, bestelako deskontuekin ere saritzen ditu GOIENAK Goienakideak. Gehien erabiltzen den deskontuetako bat da Arrasateko Avia gasolindegian aplikatzen dena, esate baterako. Urteak dira Ana Pujana gasolindegiko langileak deskontu hori aplikatzen duela. "Bezeroak saritzeko modu bat da, haiei laguntzeko", esan du.

%2ko deskontua egiten zaie Avia gasolindegian, hain zuzen, Goienakide txartela ber-

tan erakusten dutenei. Goienakide izateagatik daukaten abantaila erakusten duen kartel bat daukate gasolindegian jarrita, baina, hala ere, jende askok aspalditik daki abantaila hori dutela, Pu-

janak azaldu duenez: "Jende dezente badaki duela urte batzuetatik deskontuak dituztela Goienakideek". Gasolindegian ere GOIENA jasotzen dutela azpimarratu du.

Egin zaitez goienakide:  
943 25 05 05  
Deitu eta eman izena!

# Ezagutzak eta interesak partekatzeko dinamika

Elgetako liburutegiak dinamika berri bat estreinatuko du eguenean: giza-liburutegia. Lau lagunek euren bizi-esperientziak partekatuko dituzte entzuleekin. Besteak beste, aurreiritziak apurtzeko eta elkarrengandik ikasteko egitasmoa da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA Liburuaren Nazioarteko Eguna, urriaren 24a, aukeratu du Elgetako liburutegiko Geaxi Ezpeletak dinamika berria martxan jartzeko. "Askotariko formatuak har ditzakeen arren, liburuaren azalen ordeztu pertsonen aurpegiak eta idatzi-irakurritako hitzen ordeztu kontatutako eta entzundako hitzak dituen dinamika da giza-liburutegia", azaldu du. "Estereotipoak eta aurreiritziak aurka egiteko 2000. urte inguruan Danimarkan indarra hartu eta gaur egun munduko leku askotara hedatu den dinamika da". Hala, Ikram Harrazen, Marian Astobizaren, Josu Etxanizen eta Beatriz Zabalondoren parte-hartzearekin egingo dute Elgetako lehenengo saioa. "Arloren bati lotutako euren bizi-esperientzia kontatuko dute; gure kasuan, hiru entzuleko talde txoetan, gehienez".

Helburua da komunitatea eza-gutzea, indartzea eta pertsonak

erdigunean jarriz gizarte-kohe-sioa sustatzea. "Aurreiritziak apurtuz, elkar ezagutzea, esperientzia eta ezagutzak partekatzeta eta elkarrengandik ikastea da. Bestalde, kontatzearen eta entzutearen garrantzia plazaratzea, eta bertatik bertarako komunikazioaren presentzia aldarrikatzea", zehaztu du Geaxi Ezpeletak.

## Talde txikietan

Gonbidatu bakoitza liburutegiko txoko batean egongo da, eta 10-15 minutuko kontaketa egingo du. Gehienez ere, hiru laguneko taldeen aurrean egingo dute berba Harrazek, Astobizak, Etxanizek eta Zabalondok. "En-

## ELGETAKO GIZA-LIBURUTEGIKO LEHENENGO SAIOA EGUENEAN IZANGO DA, 18:00ETAN

tzuleek ere parte hartzeko edo galderak egiteko aukera izango dute. Horregatik, taldeetan sortu daitezkeen hartu-emanek esperientzia bakoitza bakarria izatea ekarriko dute". Izen-ema-tea zabalik da eta talde txikiak izanik komeni da erreserba egitea. Interesatuak liburutegira jo behar dute.

## Gaur, Hideaneren abenturak

Bestalde, *Hideane eta bere lagunak* ipuinaren aurkezpena egingo du gaur liburutegian Ane Bastida egileak. Ipuinaren kontakizuna ere egingo du, gainera. Familia osoarendako doako saioa izango da, 18:00etan.

Hideaneren bizipenak jasotzen ditu ipuinak. Zaldibarko Kastorena baserrian bizi da umea, amarekin eta lagunekin. Bat-batean, laino gris eta erraldoia ikusi dute eta eguzkia desagertu egin da. "Nork lapurtu digu eguzkia?", argitu nahiko du Hideanek.

## Egueneko saioko ahotsak



Ikram Harraz. ELGETAKO LIBURUTEGIA

### Jaioterritik Elgetara

Bere bizi-esperientzia kontatuko du Harrazek: sustraiak, jaioterrria, kultura, hizkuntza... Elgetara iritsi arteko ibilbidea eta Elgetara nola egokitu den ere kontatuko du. Gaztekeraz egingo du kontakizuna.



Josu Etxaniz Irazabal. E.L.

### Urte asko futbolean

Josu Etxaniz elgetarrak urte askoan jokatu zuen futbolean. Futbolari buruzko bizipenak azalduko ditu, futbolaren inguruan dauden balioak, zailtasunak... Haren esperientzian oinarritutako kontakizuna egingo du.



Marian Astobiza Askasibar. E.L.

### Amatasunak

Amatasunarekin lotutako bere esperientziak arituko da Astobiza. Lehen alabak hilabete gutxi zituela alargundu zen. 27 urte zituen. Bigarren alaba 40 urte ingururekin izan zuen. Bi bizi-esperientzia oso desberdin izan ziren.



Beatriz Zabalondo Loidi. GOIENA

### Euskarari erabat lotuta

Zabalondok egindako ibilbide profesionalari lotutako kontakizuna egingo du. Elgetarra askotariko zereginetan ibilitakoa da – irakaskuntza, Berriako presidentea... –, eta beti euskarari erabat lotuta.

## Bizi-ohitura osasuntsuak sustatzeko, 'Bizi-Bixi' programa

Adineko pertsonen autonomia, konfiantza, osasuna eta harreman sozialak bultzatzea ditu helburu ekimenak

### L.Z.L. ELGETA

Elgetako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta Xalbadorpe erretratuen elkarteak asteon aurkeztu dute *Bizi-bixi* programa. "Herritarren artean eta, bereziki, adineko pertsonen artean bizi-ohitura osasuntsuak eta aktiboak sustatzeko egitasmoa da", azaldu du Gizarte Ongizate Saileko arduradun Saioa Alberdik. "Ekintza sorta bat jarriko dugu martxan Xalbadorpe elkartearen kideekin elkarlanean".

Adineko pertsonen ongizatean sakontzeko asmoz, dagoeneko

martxan da Arreta Zerbitzua. "Oraingoz, bost partaide ditu eta dinamizatzaile baten gidaritzarekin askotariko jarduerak kognitiboak egiten dituzte martitzenetan eta barikuetan, 10:00etatik 12:00etara", azaldu du Alberdik.

### 'Tipi-tapa' eguaztenetan

Jarduera kognitiboaz gain, Udalak jarduerak fisiko lasaietako saioak bultzatu nahi ditu, eta *Tipi-tapa* saioak egingo dituzte eguaztenetan, dinamizatzaile baten gidaritzarekin. "Jakinekoko



Joxan Ojanguren, Ainara Gabilondo, Etor Garate eta Saioa Alberdi. E.U.

da jarduerak fisikoak pertsonen osasunean dituen onurak, izan prebentziorako zein ongizate fisikorako eta emozionalerako", gogoratu du Alberdik. Hala, jarduerak fisikoak taldean egiteko aukera zabaldu nahi du Gizarte

Ongizate Sailak: ibilaldiak, ariketak adinekoen parkean eta luzaketak egingo dituzte, besteak beste. Taldea 10:00etan elkartuko da, plazan, eta bi ordu iraungo dute saioek. Interesatuak udaletxean eman dezakete izena.

## OHARRAK

### Auzolan bateratua

Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean egitasmoaren barruan, Asentzio garbitzeko dei egin du batzordeak biharko. Taldea 11:00etan elkartuko da, plazan.

### Podologoa

Urriko kontsulta martitzenean izango da. Txanda hartzeko, deitu 12:00-15:00 artean 650 50 58 99 zenbakira (Joxean Ojanguren).

### Plastiko bilteta

Mankomunitateak hilaren 22an eskainiko du bilteta zerbitzua. Interesa dutenek deitu egin behar dute aurrez 943 76 25 47 telefono-zenbakira.



Frontoia estalkia berritzeko lanak, astean; isolamendu termikoan eta akustikoan ere hobekuntzak egingo dira. ENEKO AZKARATE

## Frontoia abendu hasieran martxan egotea nahi dute

Udal pilotalekuko estalkia berritzeko lanak urriaren 7an hasi ziren eta asmoa da abendu hasierarako frontoia erabilgarri egotea. Hala ere, euriaren menpe dagoen "lan delikatua" izanik, Udaleko Hirigintza Sailak "zuhur" jokatu nahi du irekiera epea zehazteko orduan

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Udal pilotalekuko sabaia berritzeko lanak urriaren 7an hasi ziren, eta zortzi asteko exekuzio-epea dute aurreikusita. Beraz, dena ondo bidean, abendu hasierarako amaituta egongo dira lanak; hala ere, Udalak zuhur jokatu nahi du frontoia berriz erabilgarri noiz egongo den zehazteko orduan.

**"Lan delikatua" dela dio Udalak**  
Aurreikuspena da abendu hasierarako frontoia berriro ere erabilgarri egotea, baina Udaleko Hirigintza arlotik adierazi dute lan delikatua dela eta, gainera, teilatua izatera, klimatologiak asko baldintzatzen duela. Bereziki estalkia berritzea da lanon helburu nagusia, baina bestelako lan osagarri batzuk ere egingo dituzte; besteak beste, isolamendu termikoan eta akustikoan hobekuntzak egingo dira. Goitu Eraikuntzak enpresa ari da lanok egiten, ia 340.000 euroko aurrekontuarekin.

### Eragina arintzeko neurriak

Udal pilotalekuak, pilotaz harago ere, askotariko erabilerak ditu egunerokoan eta ezin da ahaztu eraikinaren gainean etxebizitzak daudela. Bizitza handia duen eraikina izanik, Udalak argi zuen berrikuntza bat behar zuela, eta lanek eragingo duten afekzioak arintze aldera hartu dituzte neurri batzuk. Batetik, teilatuaren demuntatzea eta berritzea zatika egiten ari dira estalkia osorik kendu gabe hasieratik. Hala, euria eginez gero, errazago kontrolatu ahalko dute urrik ez sartzea. Bestetik, pladurrezko horma bat eraiki dute taberna pilotalekutik banatzeko, obrek iraun artean tabernak ohiko funtzionamendua izan ahal dezan. Eta, hirugarrenik, enpresa eraikitzaileak kanpoko eremuan hasieratik planteatuko okupazio eremuari buelta eman diote, Ibargarai kaleko zirkulazioan ez dezan eragin zuzenik izan; hala ere, Udaletik adierazi dute

akaso mozketak puntualen bat egiteko beharra egon daitekeela obra bukatu artean.

### Pilota partiduak Antzuolan

Pilota saila da frontoia gehien erabiltzen duen elkartea. Ulertzen dute obra egiteko beharra baze-goela, baina diote ez dela haien ztat garairik egokiena, nahiago luketela lanok udan egingo balira. Hasiera batean haserretu egin baziren ere, aitortu dute Udalak ondo erantzun diela egin dituzten eskaerei. Betiko frontoia erabiltzeko aukerarik ezean, infantil mailatik gorako kategoria guztiak astelehenean Antzuolako frontoia erabiltzen dute eta eguaztenetan Angiozarrera joaten dira; benjamin eta alebin

## HERRIKO PILOTARIAK BOLUKO, ANGIOZARKO ETA ANTZUOLAKO FRONTOIAK ARI DIRA ERABILTZEN

### 1885ean ireki, 1915ean estali

Udal pilotalekua 1885eko ekainaren 21ean inauguratu zuten, eta 1915ean estali zenetik hainbat izan dira eraikina berritzeko esku-hartzeak. 2006an kantxako eserleku guztiak berritu eta irisgarritasuna hobetzeko hainbat lan egin ziren, sabaian lan txiki batzuk gauzatzear gain; 200.000 euro inguruko inbertsio izan zen. 2021ean, bestalde, aldagelak handitu zituzten biltegi baten espazioa baliatuta eta bainu egokitu bat ere irabazi zen; azken lan horietarako 83.000 euro inbertitu ziren.

mailetako pilotariak, aldiz, Boluko frontoi estalian entrenatzen dira. Partiduak Antzuolan hasi dira jokatzeko dagoeneko eta Bergarako pilota saileko ordezkariak esker ona adierazi nahi izan diote Antzuolako Olalde Pilota Elkarteari, diotenez beti laguntzeko prest daudelako.

### Banda, plazara edo San Pedror

Musika Banda da frontoia erabiltzen duen herriko beste eragile bat, hilean behin ematen dituzten kontzertuetan 400 lagundik gora erakartzen dituen elkartea. Domika honetan izango dute hurrengo kontzertua (Ikus 27. orria) eta asmoa da San Martin plazan jotzea; euria egiten badu, San Pedro elizan joko dute. Azaroko Santa Zeziliaren omenezko kontzertua ere ezingo dute frontoian eskaini, eta, seguruenik San Pedro elizan joko badute ere, kontzertu bakoitzaren aurretik aztertuko dituzte aukera egokienak. Gabonetako kontzertua abenduaren 21ean da egitekoa, eta, beraz, enpresarekin adostutako epea bete balitz ez litzateke arazorik egongo urteko kontzertu berezietarako den hori, ohi moduan, frontoian egiteko.

Amaitzeko, Udaleko Hirigintza arlotik esker ona adierazi nahi izan diote frontoia erabiltzaileei, bertako bizilagunei eta tabernako kudeatzaileei, obrak hasi aurretik egin zituzten bileretan "oso ulerkorrek eta eskuzabalak" izan direlako.

## EAJ ez dago ados zergak %3,2 igotzeko asmoarekin

Jeltzaleek EH Bilduri eskatu diote KPIaren arabera (%2,6) izatea tasen igoera orokorra

### JB.L. BERGARA

2025eko ordenantza fiskalen inguruan EH Bilduren Udal Gobernuak egindako proposamenak landu ditu EAJk, eta zerga zein tasen igoera berraztertze eskatu dio. Batetik, ohar bidez aditzera eman dutenez, jeltzaleek ez dute egoki ikusten EH Bilduren %3,2ko igoera orokorra, eta, horregatik, 2023ko abuztutik 2024ko abuztura arte KPIaren igoera aplikatzeko proposatu dute; hau da, %2,6koa. Ondasun higiezin lotuta, hutsik dauden etxeen erretegia %50ean mantentzeko eskatu du EAJk, eta alokairuko merkatura ateratzen diren etxebizitza hutsei %50eko hobaria aplikatzea. Beste proposamen bat da, besteak beste, ekonomia jardueren kasuan, kooperatibentzat eta hasiberrientzat %50eko hobaria aplikatzea.

Urriaren 28an egingo da 2025eko zerga eta tasak eztabaidatzeko osoko bilkura.

## OHARRAK

### Lokatza: bizikleta jaia

Umeentzat, gaur, Seminarioko patioan (17:00). Nork bere bizikleta eta kaskoa eraman.

### Musikala: sarrerak

*Hamelingo txirularia* ikusteko sarrerak, [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus)-en: 15 edo 20 euro.

### 1953an jaiotakoak

Azaroaren 9an, Tartufon bazkaria. Izena emateko: 695 75 12 15 (Imanol Agirre) eta 640 93 92 37 (Jose Zafra).

### 1959an jaiotakoak

Urriaren 26an, Tartufon bazkaria. Izena emateko 70 euro ordaindu behar dira alde aurretik: ES45 3035 0009 13 0091165136 (Laboral Kutxa).



# Ezagutza partekatzea "funtsezko" ikusten dute

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak urriaren 21etik azaroaren 16ra izango dira, eta adimen artifiziala izango da protagonista. Antolatzaileen arabera, "funtsezkoak" izango dira ezagutza eta elkarlana erronkei aurre egiteko

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Bergarak historian zehar zientziarekin eta haren dibulgazioarekin izan duen harremanaren haria ez da eten oraindik, eta horren adibide dira urriaren 21etik azaroaren 16era bitartean egingo diren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak. Ekimenak hamargarren edizioa biziko du aurten eta horren harira egingo diren askotariko ekimenen artean *The Black Box (Kutxa beltza)* erakusketa nabarmendu dute antolatzaileek.

Tailerrak, hitzaldiak, aurkezpenak, erakusketak, tailerrak... Eskaintza bereziki zabalarekin egingo dituzte aurtengo ZTB jardunaldiak. Udalaren, komunitate zientifikoaren, enpresa sektorearen eta hezkuntza erakunde elkarlanaren fruitua den ekimenak hamargarren aldia izango du aurten. Laboratorium museoan egindako aurkezpenean Ainhoa Lete alkatorde eta museoko zinegotziak

azaldu zuenez, ezagutza demokratizatzea eta herritar guztiei modu ulerterrazean eta erakargarrian partekatze aukera ematea dira jardunaldien helburua. "Bergararren eta gizarte osoaren aurrean ditugun erronkei aurre egiteko, ezagutza eta elkarlana funtsezkoak dira", gaineratu zuen. Adimen artifizialaren bueltan mugituko dira aurten jardunaldiak; betiere, adin guztietako herritarrei zuzendutako askotariko ekintzekin.

## 'Kutxa Beltza' museoan

Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, jardunaldiak antolatzen lagundu duten Enpresareko eta Migel Altuna Lanbide Heziketa-ordezkariek, eta *The Black*

## 'THE BLACK BOX' ERAKUSKETA IKUSGAI LABORATORIUM-EN, AZAROAREN 5ETIK OTSAILAREN 16RA

*Box (Kutxa beltza)* erakusketa azpimarratu zuten. Bartzelonako Unibertsitatearen eta Enpresare elkartearen lankidetzarekin sortutako erakusketa azaroaren 5ean inauguratu eta otsailaren 16an itxiko dute eta Bergarako Laboratorium izango da Euskal Herrian egongo den lehen aldia. Enpresareko Carla Añonen arabera, *The Black Box* erakusketa-modulu bat da, eta, adimen artifizialaren bitartez, harekin interaktiboki aritzera eta hari buruz hausnartzera eramaten du: zein eginkizun duen, zein aukera eskaintzen dituen eta zeintzuk diren teknologia berri horren arrisku potentzialak.

## Dibulgaziorako bokazioa

Ekimenak dibulgaziorako duen bokazioaren erakusle, programaren puntu nagusietako bat Hezkuntza Eskaintzan oinarritzen da, ikasleei zientziaren alor ezberdinak modu erakargarrian erakustea helburu. Egitarau eta informazio osoa: [ztbergara.eus](http://ztbergara.eus).



Udaleko, Laboratoriumeko eta hezkuntza zein enpresa munduko ordezkariak, 2024ko ZTB Jardunaldien aurkezpenean. TXOMIN MADINA



NIRE USTEZ

MIKEL GOENAGA

## Danbor hotsak

Lau aste pasatu dira. Isildu ziren danbor hotsak, datorren urtera arte. Gure sanmartingo danborradaz ari naiz. Inguruko herrietako lagunekin solasean, gure danborradak jarri genituen hizpide: non, zer eta nola egiten ziren. Nik gure danborradako ezaugarri nagusienetako bat azaldu nien, harrotasunez: Gipuzkoan bakarra da berezko musika duena. Beste guztiek Donostiako Sarriegiren martxa erabiltzen dute, eta gurean Miguel Gonzalez Bastidaren doinuak jotzen dira. Partaidetza aldetik, aurten 800 lagun aritu dira Bergaran. Honetan, onartu zidaten lagunek eredu garela. Beste inon ez da lortzen halako parte hartze zabalik. Izugarria da. Hau bai danborrada herrikoa! Edertasun aldetik, baina, herri guztietan, ikuskizunak galtzen du: musikari jarraitzeko nahiko lan, konpainietako ilarak ezin gorde, dotorezia gutxi, entsegu falta. Baita Bergaran ere. Danborradak, azken finean, herritarren gozamenetarako ikuskizun dira, edo horrela zeuden pentsatuta orain arte, bai barruan doazenendako, bai kanpoko ikusleendako. Ez ote dira barrukoendako festa-leku bihurtzen ari, kanpokoen ikuskizunaren kalterako?

## GORA ETA BEHERA



## Aparkaleku bat galdu arren, segurtasunean irabazi



Herritar batek txalotu egin nahi izan du Agorrosin inguruan aparkaleku bat kenduta ikusgarritasuna eta, beraz, segurtasuna irabazi dela, batik bat, bertatik bizikletan pasatzen direnentzat.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugarte-aroztegia.com](mailto:aroztegia@ugarte-aroztegia.com)

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Elikadura osasungarria eta iraunkorra oinarri duten Gozo Topaketak Bergaran izango dira aurten. Gaur, hilak 18, eta bihar, hilak 19, egingo dituzte topaketak Bergarako udaletxean, Bidezko Elikadurak, EHIGEk, Elikaeneak eta Bergarako Ereindajenek antolatuta; betiere, Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

**Lehen 2019an antolatu zuten** 2019an antolatu zituzten lehen aldiz Gozo Topaketak, Bilboko Itsas Museoan. Berezioki eskolako jangelen elikadura arreta jarrita abiatu zituzten jardunaldiok: "Gure elikadura eredu globalizatu, osasungaitz eta jasangaitzaren kate-maila bat gehiago da eskolako elikadura. Baina eredu bera eraldatzeko abiapuntu ona izan daiteke ere. Arreta hezkuntza alorrean ipiniz pauso handiak eman ditzakegu elikadura eredu osasuntsuagoa eta iraunkorragoa lortzeko bidean. Gizarte, politika eta hezkuntza mailetako erronka baten aurrean gaude". Bergarako asteburu honetako saioetan ere eskoletako elikadura eredu izango dute hizpide.

#### Gaur, bi mahai-inguru

Gaur arratsaldean abiatuko dira topaketak, udaletxean. Orain arte izena eman ez dutenek aukera izango dute gaur bertan



Gozo Topaketak udaletxean egingo dira gaur eta bihar; amaitzeko, Elikaenea topagunea bisitatuko dute. GOIENA

## Elikadura ereduari buelta emateko erronka hizpide

2019an lehenengoz Bilbon egin ostean, elikadura osasungarria eta iraunkorra oinarri duten Gozo Topaketak Bergarako udaletxean egingo dira gaur eta bihar. Hainbat eragile gonbidatuta, mahai-inguruak egingo dituzte, eta amaieran Elikaenea bisitatuko dute

izena emateko, 17:00etatik 17:30era; bertaratutakoei, topaketak aurkezteaz gain, materiala banatuko zaie.

Lehen mahai-inguru 17:30etik 18:30era izango da: *Eskola elikadura: Nola eraldatu gauzak ezer aldatzen ez denean*. Esperiencia eraldatzaileen berri jasoko dute entzuleek: Elgetako

Herri Eskolako Nora Olabide, Irene Santamaria eta Onditz Villar egongo dira; Durangaldeko Berton Bertokoa ekimenetik Alex Azpiri etorriko da; Gasteizko Salburua eskolatik Aitor Nuñez etorriko da; eta, azkenik, Guatemalako Bidezko Elikadura mugimenduko Sayda Tabora ere mahai-inguruan egongo da.

Ondoren, 18:30etik 19:30era, bigarren mahai-inguruari eman go diote hasiera: *Sukaldarien eta ekoizleen arteko aliantzak, gure sukaldeak egokituz*. Hiru hizlari egongo dira: Busturialdeko Ortutik Ahora elkarteko Sergio Gonzalez, Collectif Les Pieds dans le Plat eta SCIC Nourrir l'Avenir dinamiketako or-

dezkeri Severine Quencez eta El Salvadorko Fedecoopades fundazioko Yesenia Castro.

#### Azoka, zerbitzu publiko gisa

Bihar, urriak 19, 11:00etan eman go diote hasiera topaketaren bigarren egunari. Hain zuzen ere, hirugarren mahai-inguru 11:00etatik 12:30era izango da, udaletxean: *Elikadura eskubidea: merkatuak zerbitzu publiko gisa*. Lau eragiletako ordezkariak izango dira gai horren buelta berbetan: Bidezko Elikadura erakundeko zuzendari Javier Guzman, Guatemalako Mejorha gobernuz kanpoko erakundeko ordezkari Evelyn Ramirez, Bergarako Elikadura Mahaiko Ainhoa Lete eta Aitziber Plazaola eta Manresako (Katalunia) Frescoop kooperatibako Jordi Masdeu eta Isa Alvarez.

Hirugarren saio hori bukatu ostean kafea hartzeko tartea izango dute, eta, ondoren, 13:00etatik 14:00etara, Oxirondo azoka bisitatuko dute. Hain justu ere, iraila ezker martxan dagoen Elikaenean emango die amaiera Gozo Topaketei (14:00), bertako produktuz osatutako mokadutxo batekin.

### GAUR ARRATSALDEAN ETA BIHAR GOIZEAN HIRU SAIO IZANGO DIRA, ASKOTARIKO HIZLARIEKIN



LANBROA KULTUR ELKARTEA

## Lehen Karlistaldiaz jakiteko gosez

Lanbroa elkartearen azken hitzaldi zikloak interesa piztu du. Hilaren 11rako Juanxo Madariaga gonbidatu zuten, Lehen Karlistaldian euskarak bizi zuen egoeraz berba egiteko. 60 bat lagun batu ziren Irizar jauregian eta haietatik hamazortzi geratu ziren Pertxan afaltzeko.

Zikloko azken hitzaldia urriaren 25ean izango da, Irizarren (19:00): Mikel Alberdik Bergarako Besarkada eta Lehen Karlistaldiko beste bake saio batzuk izango ditu hizpide. Ondoren, Sagarpen afalduko dute; afarian izena emateko: 610 28 97 48. Prezioa 18 euro da.

### Irulegiko Eskukoa euskara zaharra da, Elexpururen arabera

Olaso Dorreak urrirako antolatu duen hiru hitzaldiko zikloaren barruan, Juan Martin Elexpuruk *Irulegiko eskua: segurantzak eta zalantzak* izeneko saioa eskaini zuen urriaren 10ean. Irulegiko Eskuko testua euskara zaharrean idatzita dagoela argi dauka filologo bergararrak. Eskuk "babesa" irudikatzen duela azpimarratu zuen; hots, funtzio apotropaikoa zuela. Elexpuruk dio eskuaren berri eman eta gerora publikatutako EHUko irakasleen txostenek nahastea besterik ez dutela ekarri. Atzo, Gorka Torre aritu zen hizlari, eta hurrengo hitzaldia urriaren 24an (19:00) egingo du Idoia Etxeberriak: *Hitanoa berpizteko lanak*.

### Udal euskaltegia: Bergarako euskara ikasteko tailerra

Udal euskaltegiak bertako euskara lantzeko ikastaroa antolatu du, Udalarekin eta Jardunekin elkarlanean. Berba egiterakoan egiten diren akats ohikoenak zuzenduko dira, eta, beraz, euskalkian gaitasuna areagotu. Gutxienez zazpi laguneko taldea osatzen badute hamar orduko ikastaroa izango da, bost egunetan banatuta: azaroaren 18an, 20an, 22an, 25ean eta 27an izango dira, 18:00etatik 20:00etara -ordutegia moldagarria da-.

Izena eman behar da azaroaren 13rako, udal euskaltegira joanda (Irizar jauregia), posta elektronikoz ([euskaltegia@bergara.eus](mailto:euskaltegia@bergara.eus)) edo telefonoz deituta (943 76 44 53). Prezioa: 15,45 euro.

# Astebeteko Kulturaldiaren ordeztu, hamabostaldia

Zortzi egun pasatu dira San Joxeperen 26. Kulturaldia hasi zenetik, eta beste horrenbeste falta dira amaitzeko; datozen egunetarako ekintzak antolatu dituzte eta erretiratuen elkarteak adin guztietako herritarrek parte hartzea animatu ditu

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Astebeteko egitarautik hamabostaldira pasata ari dira ospatzen San Joxeperen 26. Kulturaldia urriaren 10etik eta urriaren 27ra arte hainbat ekintzaz gozatzeko aukera egongo da. Urtean zehar sortzen diren ideia eta proposamenekin osatzen dute programa, eta, azkenean, hamabostaldia egitea erabaki zutela adierazi du San Joxepe elkarteak presidente Nestor Inurrietak. "Normalean, astebeteko Kulturaldia izaten zen. Dantza-topaketak eta Laboratoriumeko bisitak direla eta, hamabostaldia egitea pentsatu dugu. Ezberdina da hamabostaldia antolatzea. Tentsio handia dago, baina orain artekoarekin gus-tura gaude", dio.

Egitasmoarekin Bergara eza-gutarazten dela irizten dio, eta herriko eragileen arteko talde-lana bultzatu nahi dute: "Herriak daukan kultura taldean zabaltzen da eta herriko elkarteekin elkarlana sustatu nahi dugu honenkin. Nahiz eta jubilatuek izan, gizartearen parte gara eta erakunde guztiekin elkarlanean aritzen gara. Uste dut premiazkoa dela. Ez da jubilatuen mundua konpondu; baizik eta jubilatuekin mundua konpondu".

**Balorazio "oso ona"**

Besteak beste, Eibarko, Elgoibarko, Ordiziako eta Trintxerpeko erretiratuen elkarteetako dantza taldeen topaketarekin eman zioten hasiera Kulturaldiari eta aste honetako Laboratoriumeko bisitekin eman diote jarraipena. Zikloaren hasieraren balorazio "oso ona" egin du San Joxepeko presidentek. Dantza topaketan 200 lagun, "kopuru oso ona" elkartu zirela aurreratu du, baina, kontrara, Laboratoriumera joateko taldea osatzea "kostatu" egin zaiela: "Justuan heldu gara 22 lagunera. Ikusten dudana da Laboratoriumen



Laboratoriumera bisita egin duen taldea, aste honetan. SAN JOXEPE

## 26. Kulturaldiko egitaraua

**URRIAK 18**

**15:30** Haurren sari-banaketa San Joxepen.

**URRIAK 21**

**10:00** Adimen artifiziala hitzaldia San Joxepen.

**URRIAK 22**

**19:00** Beasaingo eta Bergarako abesbatzen emanaldia Seminarixoan.

**URRIAK 23**

**18:30** Oroimena eta ahaztea San Joxepen.

**URRIAK 24**

**08:30** Martzillara irteera.

**URRIAK 25**

**17:00** Bingo musikatua eta toka, igel eta bolo txapelketa San Joxepen.

**URRIAK 27**

**14:15** Bazkaria

erronka dela Bergaran egotea. Hemengo jendea kanpora begira dago. Egin dugun propagandari esker mugitu da jendea, eta gustura daude bisitarekin".

**Harremanak landuz**

Herritar guztiek har dezakete parte Kulturaldiko hitzaldi eta emanaldietan. Hala ere, zenbait hitzordu mugatu egin behar izan dituzte, plaza kopuruagatik.

"Belaunaldi ezberdinen arteko harremanak beti lantzen ditugu", dio Inurrietak, eta adibidetzat jarri ditu gaur Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin Herri Eskolako ikasleekin egingo duten sari-banaketa, edota astelehenean Bergarako lau ikerlari gaztek emango duten *Adimen artifiziala* hitzaldia.

**Bestelako ekintzak**

Kulturaldiaren osterako, gutxienez, bi jarduera ditu esku artean erretiratuen elkarteak. Urriaren 31n, Gau Beltza dela-eta, Jardunekoekin batera txokolatea prestatuko dute. Halaber, jakinarazi dute azaroaren 4an ETBko *Quédate* saiora joateko gonbidapena jaso dutela, eta hogeit lagun behar direla horretarako.



Enrike Txurruka banda zuzentzen iazko sanmartinetan plazan. GOIENA

## Plazan emango du kontzertua etzi Bergarako Musika Bandak

Enrike Txurruka bandako zuzendariak gidatuko du emanaldia, ekainetik batuta hartu gabe egon ostean

**I.A.A. BERGARA**

Bergarako Musika Bandak domekan emango du urriko kontzertua, eta, frontoiko lanak medio (Ikus 24. orria), emanaldia plazan izango da, 12:30ean. Eguraldi txarra bada, San Pedro elizara lekualdatuko dute.

Sei abestiz osatutako errepertorioa prestatu du bandak. J. Texidorren *De Andalucía a Aragón* pasodoblearekin hasiko dute emanaldia, eta ondoren joko dituzte F. von Supperen *Zalditeria arina*, R. Chapiren *El tambor de Granaderos*, M. Sweeneyren *Song for Hope*, J.P.

Haecken *Kansas* eta Coldplay taldearen hiru doinu arrakastatsu jasotzen dituen M. Brownen moldaketa.

**Txurrukaren itzulera**

Kontzertuko "berritasuna" Enrike Txurruka zuzendariaren "itzulera" izango da. Ekainean min hartu zuen eta azken hilabeteetan Igor Larrañagak zuzendu du banda: "Lanean jarraitu dut, normal. Partiturak prestatzen eta abar. Iraileko kontzertuan zuzentzen ez, baina jotzen egon nintzen; beraz, ez dut ia deskonektatu".

## Olea eta Airean ahots taldea kontzertuan Santa Marinan

Organo Erromantikoaren Nazioarteko 25. Zikloa amaierara iritsi da Bergaran, domekan emango baitute azken kontzertua. Arratsaldeko zazpietan hasita, Santa Marina parrokiaren organoa joko du Bergarako San Pedro Elizako Stoltz-Freres organoaren organo-jotzaile titular Aitor Oleak, eta haren doinuei ahotsa jarriko die herriko Airean ahots taldeak. Zuzendaria David Azurza zuzendari, abeslari eta konpositorea izango da. Hiru zatitan dago banatuta emanaldia: David Azurzaren *Christe qui lux es et dies*, Gabriel Pierne-*Trois Pièces Op. 29*—organoa bakarrik— eta Gabriel Faureren *Requiem Op. 48*.

## Mark Duti, Braulio eta DJak gaur gauean kartzela zaharrean

Mark Duti eta Braulio musika taldeek kontzertua emango dute gaur, gaueko hamarretan hasita, kartzela zaharrean, Oztoporik Ez! kolektiboak antolatuta, eta ondoren, etxeko DJek jarriko dute musika. Mark Duti Donostian sortutako taldea da eta askotariko estiloak lantzen ditu; rock progresiboa da abestien ardatz nagusia. 2024an *Haitzuloa* eta *Sugea* EPak eta LP hominimo bat kaleratu zituzten. Braulio, berriz, Ondarroako musika taldea da, eta rocka lantzen dute euren aniztasun eta askatasunean. Hiru lan dituzte kalera-tuta, eta, gaur egun, azken lana, *Bidali on*, aurkezten ari dira. Sarrerak zortzi euro balio du.

# Euskalduntzen jarraitu gura du Auzokok

Duela hamabi urte hasi zuen ibilbidea Auzoko egitasmoak Oñatin, eta, oinarriko euskara ikasteaz gain, harremanak sortzea eta herria ezagutzea izango ditu helburu aurtengo ikasturtean ere. Eguaztenetan elkartuko dira, Eltzia hirugarren pisuan

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatira etorri berriak direnak edo orain arte euskararekin harremanik izan ez dutenak euskarara hurbildu gura ditu Auzoko egitasmoak, euskaraz dakiten herritarrekin batera eta ekintzen bitartez. Duela hamabi urtetik ari da Auzoko Oñati helburu horrekin lanean, eta horrela egingo du asteen aurkeztu eta datorren eguaztenean hasiko duten ikasturtean ere.

## Ekintzak eta jolasak

Aurtengo deialdiak izandako harrera ona dela ikusita, bi talde egingo dituzte, kurtsuan zehar hirugarrena sortuz gero horri ere tokia gordeta. Eguazten arratsaldeetan elkartuko dira Auzokok Eltzian duen espazioan, hirugarren pisuan, eta hantxe hasiko dira elkar ezagutzen eta euskarazko oinarriko hitzak eta esaldiak ikasten. "Hitzekin, esaldiekin, egoerekin, jolasak egingo ditugu, eta, behin eta berriz eginda, ahoskatuta, egunerokotasunean erabili ohi ditugun oinarriko berbak edo esaldiak ikastea da helburua", dio dinamizatzaile lanetan arituko den Oñeka Anduagak. Gaineratu du sei bat asteen behin ekintzak ere egingo dituztela, herrira aterata edo Eltzian bertan dauden herriko beste eragile batzuekin batera: "Behin, argazki-saio bat egin genuen Ilunpetan taldekoekin, Xabi Mendizabalekin erraldoi txiki bat egin genuen eta Oñatiko Inauteriak taldekoekin Aratus-teetako dantzak ikasi genituen, adibidez". Aurtengo lehen ekintza zein izango den ere aurreratu zuen Anduagak: clown saio bat Algaraz taldekoekin.

## Ateak zabalik

Oñatiko Udalak, Txatxilipurdik eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean sustatutako proiektua da Auzoko, dagoeneko zazpi



Auzokoren aurkezpenean eguaztenean bildutako taldea. O.E.G.

herritan martxan dagoena. Orain arteko ibilbidearekin "oso pozik" daudela adierazi zuen aurkezpenean Udaleko Ongizate Zerbitzuetako batzordeburu Lierni Altubek: "Beharrezkoa den proiektu bat da. Hamabi urtez

ari da egingen, dagoeneko ezaguna da herrian, indartzen ari da, eta oso pozgarria da hori".

Auzokok ikasturte osoan izango ditu ateak zabalik, Eltzian, *auzokide* edo *auzotar* gehiago hartzeko.

## Auzoko egitasmoko kide dira



**MICHAEL NAVARRETE**  
AUZOKIDEA

"Duela bi urte ere hartu nuen parte, eta oraindik baditut han ezagututako lagunak. Aurtun emaztea eta biok animatu gara. Oñatin bizi gura dugu eta beharrezkoa iruditzen zait bertako hizkuntza, herria, ezagutzea. Horretan laguntzen du Auzokok; modu oso atseginean, gainera".



**SARA BIAIN**  
AUZOTARRA

"Kanpoan egon naiz denbora batean, eta jaietan, lagunei entzunda, jakin dut Auzoko proiektuaren berri. Guk ere badakigu beste hizkuntza bat ikasten dugunean hitz egiteak zenbateko garrantzia duen, eta horretan lagundu gurako nuke. Herrian dagoen aniztasun kulturala sekulakoa da".

## Historiaurreko mugikortasunaz ari dira Arkeotopaketetan

Gaur bukatuko dira unibertsitatean egingen ari diren jardunaldiak; Pirinioetako alde bietako 30 ikerlari batu dira

### O.E.G. GOIENA

*Mugikortasuna eta sareak historiaurreko Pirinioetan* gaia ari dira lantzen Pirinioetako alde bietatik etorritako 30 ikerlari Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean eguaztena ezkerro, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Oñatiko Udalak duten lankidetzaz hitzarmenaren baitan antolatutako Arkeotopaketa Jardunaldietan. Alvaro Arrizabalaga oñatiarra da jardunaldien gidaria, eta, haren adierazpenen arabera, Deba bailara, oro har, "da bide nagusia konektatzen

duena Ebro bailara eta iparreko goi lautada Kantauri aldearekin". Bide nagusi horretan Debagoienak duen presentzia aipatu du Arrizabalagak, eta "Ebrora sartzeko Arabara gurutzetatik eta ez Arlabandik" pasatzen zirela gaineratu.

Hain zuzen ere, Jaturaben hainbat udatan egin dituzten indusketetan, neandertalen bizimoduaren parte ziren arrastoak topatu dituzte historialariek, eta horrek pentsarazten die Araozko bailara garai hartan igarobide garrantzitsua zela.

## Legebiltzarkidea da Marijo Etxegoien jeltzale oñatiarra

Marijo Etxegoien Arzuaga legebiltzarkide da joan den egubakoitzaz geroztik, Maria Eugenia Arrizabalagak Eusko Legebiltzarraren aktari uko egin ondoren haren lekua hartuta; hamargarrena zen Gipuzkoako zerrendan. Etxegoien Zuzenbidean lizentziatua da eta zinegotzi izan da Oñatiko Udalean hiru agintalditan: 2003-2007 eta 2015-2023.



Marijo Etxegoien Arzuaga. EAJ

## Gazteen eta pantailen arteko loturaz arituko dira gurasoekin

*Gazteak eta pantailak* izeneko hitzaldia egingo dute datorren asteen gurasoendako, Oñati Institutuko guraso elkarteak antolatuta. Pantailen erabileraz hausnarketa bultzatuko dute eta helduek haiekin dituzten harremanei erreparatuko diete. Telefono mugikorraren erabilera eta gazteak sartzen diren sare sozialen erabilera eta arriskuen ezagutza ere hizpide izango dituzte hitzaldian. Baliabideak ere emango dituzte hori guztia etxean nola kudeatu daitekeen ikasteko.

Hitzaldia Bateraguneko Miren Ros Aiertzaguenak egingo du, datorren egunean, urriak 24, Oñati Institutuan, 18:00etan. Gurasoendako da hitzaldia.

## OHARRAK

### Odol-ematea

Urriko odol-emate eguna gaur, egubakoitza, Enpresagintza Fakultatean, 16:00etatik aurrera. Aurrez hartu behar da ordua odola emateko: 943 00 78 84.

### Auzolanetara bisita

Ondarearen Europako jardunaldien barruan, *Auzolanaren fruituak Oñatin* izeneko bisita berezia egingo dute. Turismo Bulegoan hasiko dute bisita, 12:00etan.

### Izen-ematea bukatu

Udalak antolatzen dituen eskulan ikastaroetan izena emateko azken eguna astelehena da; kultura etxean eman behar da.



Auzotarrak, joan den zapatuan auzolanean egindako zuloa prestatzen. ZUBILLAGA EREITTEN

# Zizurtik Zubillagara heldutako harri landua

'Zubillaga' hitza eta auzoko armarría landuta dituen 3.500 bat kiloko harria aurkitu dute Zizur Nagusiko lokal batean, eta hona ekarri; zapatu arratsaldeko ekitaldian bistaratuko dute. Auzotarrak harriaren istorioa lotzen ari dira oraindik

**Oihana Elortza Gorostiza** GOIENA  
Zubillaga hitza eta armarría bat landuta dituen harri puska bat topatu zutela esanez deia jaso zuten Udalean Zizurtik (Nafarroa) uda aurretik, eta Zubillaga auzoko batzordearekin jarri zen harremanetan hura. Harritu egin zituen dei bitxiak auzotarrak, harria auzora ekartzeraino beste. Aste barruan egin dute hori, garraio berezietako kamioi batean, eta zapatuan bistaratuko eta inauguratuko dute. Harriaren nondik norakoak ikertzen jarraitzen dute oraindik auzotarrak.

## Abizena eta armarría

Negozia itxi zuen enpresa bateko erakin batean aurkitu du lokalen jabe berriak, Pedro Ciak, harria. Izena eta armarría ikusi, Interneten begira hasi eta konturatu zen Oñatikoa izan zitekeela. "Horrela deitu zuen Udalera. Auzoetako udal teknikaria, Aitor Gerenabarrena, jarri zen kontaktuan gurekin,

eta sorpresaz hartu genuen albiste. Ez genuen harri horren berri, eta istorioa bitxia iruditu zitzaigun. Ciarekin egin genuen berba eta dohaintzat auzoari emateko prest zegoela esan zigun. Auzoarendako opari polita iruditu zitzaigun, eta ekartzea pentsatu genuen", adierazi du Zubillagako auzo-alkateak, Iker Loitik.

Harria auzora ekartzeko egin beharrak kudeatu bitartean, harriaren nondik norakoak ikertzen ibili dira zubillagarrak, jakin-minez. "Oraindik ez dakigu arrazoa. Antza, itxi zen enpresa horrek harginen lanak egiten zituen, eta Zubillaga abizena zuen jabeak; litekeena da hark landutakoa izatea. Ez da-

**AUZOLANEAN EGINDAKO ZULOAN JARRI DUTE HARRIA, ZAPATUAN 18:00ETAN INAUGURATZEKO**

kiguna da, ordea, nola edo noiz iritsi zen pertsona hura Zubillagara eta auzoko armarría ikusi. Izan ere, garbi dago auzoarena dela landuta dagoen armarría hori; horrelakoxe armarría dugu, esaterako, elkarte gastronomikoan, basurde eta guzti", gaineratu du Loitik.

## Mendi martxa goizean

Joan den zapatuan egin zuten harria jartzeko zuloa, auzolanean, eskola aurreko zelaitxoan. Hantxe egongo da aurrerantzean. Bihar, zapatua, baina, ekitaldi txiki bat egingo dute, harria bistaratu eta inauguratzeko, Zubillaga Ereitten auzo batzordeak eta jai batzordeak antolatuta. 18:00etan izango da ekitaldia, musikariek eta bertsolariek lagunduta. Aurretik, puzgarria egongo da umeendako, eta 09:00etan hamabost kilometroko mendi martxa egingo dute, auzoko jaietan eguraldi txarragatik atzeratu zutena. 200 lagunek egingo dute.



NIRE USTEZ

MANU EGAÑA TXOPITEA

## Aukeratu

Irakurri Iggy Pop-en *Lust for Life* entzunaz:

Aukeratu inoiz aukeratu ez zenuen lan batean usteltzea, inoiz arreta jarri ez zenion bokazio bati entzun gabe. Aukeratu aurrera jarraitzea pilotu automatikoan dagoen erlazio batean, inoiz izan ez ziren eta inoiz izango ez diren maitasunekin amets eginez. Aukeratu ez aurre egin zure neurosiari, ez ezagutu zeure burua eta bizitzan gertatu zaizunak. Aukeratu *Conquis* ikustea, maratoni erdi bat korritzea, zeure baitatik ihesi. Aukeratu politikoki zuzena dena, zure bizitza baino auzo-lagunarena bizitzea, maitasunari uko egiten *like* batzuen atzetik. Aukeratu kosmobisio bat ez izatea eta metodo zientifikoaren harago egon daitekeen ezer ez onartzea. Aukeratu nihilismoa, edertasunari uko egitea eta ona eta txarra bereizten ez saiatzea. Aukeratu lorazepam, diazepam, alprazolam, citalopram, sertralina, eskitalopram eta bromazepam.

Betiko leloaren betiko leloa: Clonazepam eta zirkua.



Herritar bat BM supermerkatuan janari bilketarako elikagaiak hartzen. A.T.

## Hotz Oñatikoek janari bilketa dute martxan zapatura arte

Zaporeak erakundearekin elkarlanean antolatu dute, beste behin, eta jasotakoa Lesbosera bideratuko dute

### Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Eguenean hasi eta zapatura bitartean izango da martxan janari bilketa solidarioa. Beste urte batez, Hotz Oñatik antolatu du, Zaporeak gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean. Eta herriko supermerkatuetan dihardute horretan.

Horren helburua da Zaporeak taldeak Lesbosen (Grezia) dauden errefuxiatuei egunero eskaintzen dizkien otorduak prestatzeko janaria biltzea. Besteak beste, lekaleak, arrain-, barazki- eta lekale-kontserbak eta olioak ari dira jasotzen.

Bilketa lanetan boluntarioak ibiliko dira. Eguenean, herriko ikastetxeetako ikasleak ibili ziren supermerkatu sarreretan herritarrei informazioa ematen eta, gero, jasotzen zituzten elikagaiak askotariko kaxetan sailkatzen. Gainontzeko eguntan herritar boluntarioek egingo dute lan hori.

Oñatin bildutako guztia Donostialdera eramango dute datorren astean Zaporeak elkarretetik, gero hori Lesboseraino bidaltzeko. Iaz, esaterako, 6.500 kilo elikagai jaso zituzten halako bilketan.



Joan den asteburuan jokatu zen superkopako partidua; Hangöverrek irabazi zuen. HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

## Hamabost talde aurtengo beteranoen txapelketan

Joan den urtean baino bi talde gehiago lehiatuko dira aurtengo herriko futbol txapelketan; hamabost guztira, bi taldetan banatuta. Asteburu honetan, zapatuan bi eta domekan bat, jokatuko dituzte hastear duten denboraldiko lehen partiduak

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Asteburu honetan jokatuko dira herriko aurtengo futbol txapelketako lehen partiduak. Azken urteetako lehiatuena izango da, gainera, hamabost taldek hartuko dute eta parte; joan den urtean baino bik gehiagok. Aipatu beharreko beste datu bat da epaileena: Joseba Molinerok ez du jarraituko; bai, ordea, Josu Cambesek.

### Bi taldetan banatuta

Hamaika talde ziren duela bi urteko herriko futbol txapelketan eta hamabost izango dira aurtengo; bi berrienak, 18 urte ingurukoek osatutakoak. Ekipoen kopuruagatik bi talde egin dituzte, ohikoa duten moduan; aurtengo, zortzi daude batean eta zazpi bestean. Denek denek kontra jokatuko dute, bakoitzak egokitu zaion taldean, eta horko emaitzek erabakiko dute txapelketaren amaieran finalak nortzuek jokatuko dituzten. Dena ondo bidean, San Migel Txiki jaien aurretik jokatuko dituzte azken partiduak, Azkoagainen.

## Denboraldiko futbol taldeak

### A TALDEA

- Wulu wulu.
- Tutelatratu.
- Zalaparta.
- Kalekona.
- Weinguter.
- Iturritxo.
- Frakas brabas.
- Kalaña.

### B TALDEA

- Shatoken.
- Albok.
- Sarutobi.
- Hangöver.
- Ijittanauk.
- Sasquash.
- Morekanbe.

### Eguaztenetan bilerak

Denboraldiko partidu guztiak izango dira herriko futbol zelai nagusian; betiere, lehentasuna Aloña Mendik izanda. Entrenamenduak, berriz, talde bakoitzak antolatuko ditu bereak.

Zuzendaritza taldea zazpi taldetako ordezkari banak osatzen dute. Eguaztenetan elkar-tzen dira eta zozketa bidez aukeratuak –aurten sartu diren bi talde berriak salbu, horiek zuzenean sartu dira zuzendaritza- izan diren talde horietako kide bana joango da aste-roko bilera horietara. Egoera larriren bat izaten bada, bilera irekia egingo dute erabakia den artean hartzeko. Bestalde, aurtengo asteburu bakoitzean epaileari laguntzeko egongo den talde arduradunaren zerrenda egingo dute. Tokatzen den taldeak lagunduko dio Josu Cambeseri marrazain lanak egiten, eta, hark ezin duenean, partidua ere arduraduna den talde horretako kide batek arbitratuko du.

## Birako lehen kontzertua Oñatin du bihar Olatz Salvadorrek

'Zainak eman' disko berria aurkeztuko du taldearekin batera, baina kantu zaharrak ere abestuko ditu

### O.E.G. OÑATI

*Zainak eman* disko berria aurkezteko bira hasiko du bihar, zapatua, Olatz Salvador musikari donostiarrak. Eta Oñatin egingo du bira horren lehen kontzertua. Gaztelekuan izango da, 19:00etan.

### Emanaldi orekatua

Birako lehen emanaldiak dakarren urduritasuna aldean duela aitortu du Salvadorrek: "Baina ezagutzen dut tokia, aurretik ere egona naiz Oñatin, eta ondo hartu naute beti bertakoek". *Zainak eman* du izena kaleratu duen azken lanak, hirugarrenak, eta kantu berriak erakustera dator taldeko kideekin. "Hala ere, aurreko kantak ere joko ditugu, kontzertu orekatua egiten saiatuko gara, jendeari gustatzen zaio eta ezagutzen dituen piezak entzutea", gaineratu du.



Olatz Salvador. GOIENA

Aurreratu du, gainera, ordu eta laurden inguruko emanaldia izango dela.

Hori izango da urtarrilera bitartean gaztelekuak prestatu duen egitarauko lehen kontzertua. Sarrerak salgai daude; hamar euro aurrez, hamabi bertan.

## Arte lantegi eta bisita bereziak daude antolatuta Arantzazun

Bi ekintza berezi daude antolatuta asteburu honetarako Arantzazun: bisita gidatu berezia, batetik, eta umeendako arte lantegia, bestetik.

Zapatuan, *Arantzazu ezagutzeko historiak* izenburua duen bisita gidatua egingo du Juan Ignazio Larreak, bi hizkuntzatan, Arantzazuko Adiskideak elkar-teak antolatuta eta Ezagutu

Arantzazu ekimenaren barruan. Basilikaren sarreran elkartuko dira bisita egiteko, 11:00etan. Plazak mugatuak dira eta izenak aurrez ematea komeni da, bide hauetako bat erabilita: [adiskideak@arantzazu.org](mailto:adiskideak@arantzazu.org) edo 688 61 38 40. Prezioa bost euro da.

Arte ikastaroa, berriz, domeka goizean egingo dute. *Txillidaren Burdinezko Eguzkia* du izena eta 6 eta 12 ume arteko umeak dituzten familiei dago zuzenduta. Izena emateko bideak eta prezioa berberak dira.

## Euskal mitologiako ipuin kontaketa domekan Arantzazun

Euskal mitologiaren hainbat istorio, mito, kondaira zein ipuin kontakatuko ditu Maitane Aizpurua *Marimunduko*-k domekan Arantzazuko parketxean. Baina ez da bakarrrik egingo. Joateko, aurrez egin behar da erreserba: 943 78 28 94, 699 33 51 83 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus). 11:30ean hasiko da eta prezioa bost euro da.

## Torregarai eta Martiarena datoz liburutegira

*ZtandaP* umore ikuskizunarekin izango dira Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai hilaren 23an liburutegian, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzeko. Generoa hartuko dute umore-gai eta barre egiteko betaurrekoak jantzita arituko dira; adibidez, *señora* izateaz, elkarbizitzaz eta orgasmo arrakalaz. Eguaztenean, 19:00etan, zinema-aretoan.

# KORDA ROTA KTARSIA SOTOALDE MALKO

Bergarako  
Seminarixoa  
Urriak 25  
21:30

## Chill out gunea

20:00etatik aurrera  
San Martin plazan  
**DJ JOE PIEMAN**

Sarrera arrunta **5 €**

Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**

Goiena txartela erakutsita **0 €**

## Azaroak 15

ETEN  
LOW COST DELUXE  
REBEL NOISE  
K-PO

## Azaroak 29

DEL VAL  
HENKO  
TXERRIKUMEAK  
KARENA

## Abenduak 13

BANANA SHAKE  
ONDARE  
7212-GOGOR GABILTZA  
MAIDER MIMI



Begarako Udala



GIPUZKOA  
Kultura



SEIN  
Luzapena, Sareaketa, Eraketa  
Kulturaren Erakundeak

goiena"  
KOMUNIKAZIO TALDEA



# "Hego-haizeak eragina izan du; hobetu egin daiteke erronka"

**IÑIGO ALZOLA** MENDI LASTERKARIA

Domekan Zumaiako hondartzatik Aketegira, EAeko gailur garaienera, joan-etorria egin zuen bizikletan eta korrikan. Bost orduetik jaitea zen arrasatearraren helburua



Alzola, lanak amaitu berritan, Zumaiako hondartzan. JULEN ELORZA

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Lasterketetan baino txalo eta animo oihu gutxiago izan ditu Iñigo Alzolak (Arrasate, 1990) egin duen azken kirol erronkan, baina pozik geratu da egindakoaz. Oraingoan ez du dortsalik jantzi, erlojua izan du kontrario bakarra. 2024an Txindokiko eta Anbotoko kilometro bertikalak irabazi dituen lasterkariak erronka diferentea izan zuen domekan. Zumaiako hondartzatik Zegamaraino joan zen bizikletan (1.43.50), han Zegama-Aizkorriko kilometro bertikaleko igoera erreferentzia moduan hartuta Aketegira (1.551 metro) igo zen (1.29.26), eta menditik jaitsita osterera ere bizikleta hartu eta kontrako bidea egin zuen (1.34.03); Zumaiako erlojuak 4.50.43 erakusten zuen. "Helburua bost orduetik jaitea zen, baina datuen bueltan ibiltzen direnek esan didate lau ordu eta erdian ere egin nezakeela. Domekan, baina, hego-haize zakarra zebilen. Tira, hor geratu da erronkatxoa, animatzen denarendako".

**Lehenengo galdera derrigorra da: zerk eraman zaitu erronka hori egitera?**

Esfortzu-proba batean izandako bihotz arazo bat tarteko -tardakardia-gertaera bat-, Erronka Kirol Medikuntza Zentroko Aritz Esnal medikuaren eta haren taldekideen eskuetan jarri nintzen, eta haiek baloratu zuten ez zela ezer larria, eta kirola

egiten jarrai nezakeela esan zidaten. Handik gutxira, gainera, Txindokiko kilometro bertikalak irabazi ahal izan nuen. Bada, Aritzekin harremana egin dut, eta hark komentatu zidan aspalditik bazuela erronka moduko bat buruan: Oria ibaiaren jaiotza eta itsasoratzen den tokia elkartu kirol proba baten bidez. Eta ideia hari hasi nintzaion bueltara, Kantauri itsasotik irten, Gipuzkoako puntu garaiera igo, eta osterera ere bueltan etorri. Ibilbidea, baina, egokitu egin nuen apur bat, eta erabaki nuen Zumaiatik irtetea.

**Zeintzuk izan dira zailtasunak?**

Batetik, prestakuntzarekin zerkusua izan duten zailtasunak egon dira. Udan Jaca aldean asko ibili naiz bizikletan, baina gero buru-belarri egon naiz kilometro bertikalak prestatzen [Uhartea Arakil-Beriain lasterketan bigarren izan da eta An-

botoko kilometro bertikalak irabazi du]. Azken asteotan bizikleta ukitu ere ez dut egin, arrabola gainean ibili naiz apur bat. Eta gero, traba handiena hego-haizearena izan da. Berez, asmoa zen erronka zapatuan egitea, baina, ze eguraldi egin behar zuen ikusita, proba domekara atzeratu genuen. Domekan ere hego-haize zakarra izan nuen kostaldetik Zegamaraino. Aurreikusitako denboretan ibili nintzen, baina nahi baino indar gehiago xahutu nituen han.

**la bost ordu dira; indarrak neurtzea ezinbestekoa izango zen...**

Hori izan da klabeetako bat, ez itsutzea. Mandubia inoiz baino azkarrago igo nuen, pasa egin nintzen han, eta gero, mendian gora tarte batean bidean nahastu egin nintzen. Zorionez, ez nuen denbora askorik galdu. Kirol batetik besterako aldake-

tak oso ondo egin nituen, pare bat minutuan bakoitza, eta oso garrantzitsua izan zen Aketegin beheko bidea ere lasai egitea. Hala ere, Zumaiara bueltan larri ibili nintzen, nekea sumatzen nuen, eta Mandubian erabaki nuen erritmoa lasaitzea. Erronkan hainbat akats egin ditugu, eta haizeak ere eragina izan du. Berez, benetako asmoa lau ordu

eta erdian egitea zen, baina bostetik jaitsi dugu. Amaitzeko, denbora guztian jan-edanak zaintzea ezinbestekoa izan zen: orduko 90 gramo karbohidrato sartu nituen; asko da niretako.

**Erronka honetan nork du abantaila handiagoa, mendi lasterkari batek ala ziklista batek?**

Nire ustez, mendi lasterkari batek abantaila handiagoak ditu, baina bizikletan ondo moldatu behar da. Korrikalariek proba honetan sortzen den laktatoa garbitzeko gaitasun handiagoa dugula esango nuke. Txirrindulari bat azkarragoa izango da bizikletako tartean, baina gero mendian gora azkar igo behar da, eta azkar jaitsi, eta hor espezialista ez denak denbora asko gal dezake.

**Aseta erronka horrekin?**

Bai; pozik geratu naiz egindakoarekin eta erronkaren bueltan sortu dugun taldearekin eta giroarekin. Lagunak izan ditut egindakoa grabatzen, anoa-postuak antolatzen, ibilbidea zehazten, Aketegi tontorrean zain... Eta etxekoan babesia izan dut; hori ere ezinbestekoa da.

**Denboraldia amaituta?**

Bai; etxekoekin lasai egoteko gogoia dut, kilometro bertikalak eta erronka hau prestatzeko denbora luzea kendu dit eta. Donostiako maratoni erdia dut buruan, baina lasaiago ibiliko naiz; horretarako ez da horrenbeste denbora behar.



Iñigo Alzola, Aketegiko tontorrean. JULEN ELORZA



Zegamatik Zumaiara 1.34ko denbora egin zuen. GANIX LASA



Erronkako denbora totala. J.E



# Sarrera guztiak saltzeko bidean da hirugarrena

**BOXEOA** Bihar, zapatua, Sorabox-ek antolatuta Bergaran egingo duten hirugarren jaialdiak hamar borrokaldi izango ditu (Labegaraieta, 19:00). Aurrez saldu zitezkeen sarrerak dagoeneko agortu dira; leihatilan saltzeko 100 sarrera gorde dituzte

**Xabier Urtzelai Atxa** BERGARA

Zapatuan Bergarako Labegaraietan betekada izango da Sorabox-eko lagunak antolatuta duten boxeo jaialdia ikusteko. Aurretik jarritako 500 sarrerak salduta daude jada, eta bihar leihatilan beste 100 sarrera jarriko dituzte salgai, 18:00etan. "Oso pozik gaude, jende asko batuko gara eta giro ederra egongo da. Oso maila oneko boxeolariak batu ditugu eta jendeak erantzun egin du", dio Ixa Rodriguez antolatzaileak.

Zapatuko eszenatokia, gainera, berria izango da, aurreko jaialdiak frontoian antolatu dituzte eta. "Ez pentsa, Labegaraieta ere oso leku egokia da. Egia da ez dagoela herriaren erdialdean, baina horrek ez du askorik axola, boxeo gosez dauden zaleak edozein tokitara joateko gertu daude eta. Gainera, Labegaraietak dena du, taberna dauka ondoan, kanpoaldean lasai egoteko ere leku zabala dauka... Oso leku aproposa da".

**Pisaketa 17:00etan**

Ikuskizuna boxeo jaialdia baino bi ordu lehenago hasiko da, pisaketarekin. Hogei boxeolariak Labegaraietako tabernan bertan egingo dute pisaketa eta ondoren bi ordu izango dituzte ondo jan eta edateko. Bailarako boxeolariak dagokienez, oraingoan Soraboxeko hiru ordezkari izango dira. "Andoni Kortabarria eta Mikel Garagorri bergararrak dira, eta Julen Gallastegi soraluzetarra. Oso maila onean daude hirurak, eta oso motibatuta, eta kontrario onak izango dituzte aurrean. Andonirendako hamahirugarren borrokaldia izango da. Ea datorren urtean profesional mailara salto egiteko moduan dagoen; hori da asmoa".

**BOXEOLARIEN ARTEAN BI DIRA BERGARARRAK: MIKEL GARAGORRI ETA ANDONI KORTABARRIA**

## Borrokaldien zerrenda

- Oskitz vs Padura (78 kg).
- Blanca vs Amaia Perez (57 kg).
- Mikel Garagorri vs Manex (69 kg).
- Egoitz Rios vs Morad (75 kg).
- Ander vs Asier Martinez (62 kg).
- Erik Dasilva vs Denis Cruz (69 kg).
- Ixai Arruiz vs Iker Mujika (69 kg).
- Julen Gallastegi vs Victor Mendieta (81 kg).
- J. Rodriguez vs Jefferson Saritama (83 kg).
- Andoni Kortabarria vs Leroy Serey Mendieta (77 kg).



Andoni Kortabarria bergararra, 2022an Bergarako frontoian antolatu zuten jaialdian; irabazi egin zuen orduan. GOIENA

## Lider dagoen Aretxabaletak Beasain hartuko du domekan

**FUTBOLA** Jokatutako sei partiduetatik lau irabazita, liga hasierako ezustea eman dute Calzonen mutilek

**X.U. ARETXABALETA**

Gipuzkoarren arteko derbia izango da domekan Ibarren (16:30), Hirugarren Mailan talde historikoa den Beasainen bisita izango dute-eta Calzonen mutilek. Iaz igoera faserako sailkatzeko lehian ibili ziren bagone-roak, baina taldean aldaketa dezente izan dituzte aurten, ekainetik hona hamar baja izan dituzte eta bederatzi jokalaria gazte ekarri dituzte, eta bistan da liga hasiera honetan egokitzea kostatzen ari zaiela, partidua bakarira irabazi dute eta.

Aretxabaleta, berriz, liga hasierako ezuste positiboa bilakatu da, joan den astean Pasaian irabazi ostean (1-3) lehenengo posturaino egin du-eta salto.

**Mondrak etxean jokatu du**

Ohorezko Erregional Mailako taldeen artean Mondra da etxean

**SASKIBALOA** Mallorcako Andratx taldearen bisita izango du MUK

MUKo neskek zapatu arratsaldean (18:00) jokatu dute Mallorcatik etorriko den Port Management Andratx taldearen kontra. Hala, arrasatearrak etxeko zaleen aurrean saiatuko dira ligako lehen garaipena lortzen. Aurrean izango duten taldeak bi partidutatik bat irabazi du, joan den astean 58-64 galdu zuten-eta Leonen kontra.



Leioaren kontrako partiduan. GOIENA


jokatuko duen bakarra. Arrasatearrek sailkapenean postu bat atzerago dagoen Hernani hartuko dute zapatuan, 16:30ean, Mojategin. Bergarak, berriz, Elgoibarren jokatu du zapatuan (12:00) eta Aloña Mendik, Tolosan (16:00).

**ESKUBALOA** Bergarako neskek Legazpi hartuko dute bihar

Gipuzkoako senior mailan Mondragon Lingua Bergara taldeko neskek izango dira etxean jokatu duten bakarrak, Labegaraietan bihar (13:00). Eta Construcciones Ugarte Aloñaokoak Munttarperen kantxara joango dira (17:45). Gizonezkoetan Mugarrri Ingouk, Soraluze BKEK eta Fagor Profesionalek kanpoan jokatu dute.

**ATLETISMOA** Domekan Mundukideren lasterketa solidarioa

Eman pausoa lelopean egingo dute domekan Mundukideko kooperatiben arteko lasterketa solidarioa. Hiru modalitate izango dira eta guztiak emango diote Urkulu urtegiari bira (6,3 kilometro). Martxa nordikoa egingo dutenak eta oinezkoak –edonori irekiak bi modalitateak– 10:30ean abiatuko dira eta lasterkariak, 11:00etan.



Korrikalariak, iaz. GOIENA

# Debagoiendarrak kantari final-laurdenen doinuan

Gaur hasiko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenak, eta Haizea Arana eskoriatzarrak kantatuko du lehen saioan. Oihana Aranak bihar kantatuko du, eta azaroaren 3an izango da Maider Arregi eta Aitor Tatiegi oñatiarren txanda

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA  
Aurrera segitzen du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak. Lau debagoiendar izango dira final-laurdenetan: Haizea eta Oihana Arana eskoriatzarrak eta Maider Arregi eta Aitor Tatiegi oñatiarrak. Asteburu honetan kantatuko dute eskoriatzarrek. Haizea izango da lehen, gaur kantatuko du, 17:00etan, Eibarko Coliseo antzokian. Bihar oholtzaratuko da Oihana, Errenteriako Lekuona fabrikari, ordu berean. Arregi eta Tatiegik azaroaren 3ra arte itxaron beharko dute. Tolosako Leidor aretoan izango da haien saioa, 17:00etan.

## Final-zortziren onak

Lau bertsolariak pozik daude final-zortzirenetan izandako parte-hartzearekin, eta balorazio positiboa egin dute. "Ni neu nire saioarekin gustura gelditu nintzen. Benetan uste dut oso saio ona eta polita egin nuela", dio, adibidez, Haizea Aranak. Giroa nabarmendu du Tatiegik: "Zarata galanta zegoen gauzak ondo zihozazenean, eta erdizka joandakoetan ere txalo ugari egoten zirela esango nuke". Pena ere aipatu du Oihana Aranak, bidean gelditu diren lagunengatik: "Betiko moduan, badira penak, lagun batzuk bidean



Haizea Arana, Oihana Arana, Maider Arregi eta Aitor Tatiegi. BERTSOZALE ELKARTEA

gelditu direlako edo gustuko bertsolari batentzat amaitu delako bidea, baina txapelketak hori izaten du".

## Finalistekin lehia

Final-laurdenek izaten duten aspektu garrantzitsuetako bat aurreko edizioako finalistak batzea da. Final-zortzirenetan final-laurrekoetan izandako bertsolariak batu ziren, baina, Tatiegiren ustez, finalistek horiek baino eragin handiagoa izango dute: "Salto handiagoa dago. Ikustea besterik ez dago finalerdietatik

zetozenek ez dutela saiorik irabazi, Amaia Iturriotz salbu, eta orain, esango nuke finalistak orokorrean faboritoak direla". Mailan ere eragingo duela aipatu du Arregik: "Uste dut finalisten sarrerak saioen bertso maila igoko duela orokorrean, eta horrek besteoi maila igotzera behartuko gaitu. Sailkapenari begira ere berdina uste dut, finalerdietara pasatzeko izen nahiko ziurrak direlakoan nago, eta, ondorioz, besteok gure maila estutu beharko dugu pasatu nahi baldin badugu".

Aipagarria da eskoriatzarren kasua. Haizeak, baten faltan, bi finalista izango ditu bertsokide gisa: Agin Laburu eta Alaia Martin. Maila horretako bi bertsolariarekin kantatzea erronka baino gehiago laguntza dela dio: "Alaiarekin eta Aginekin kantatzea ez da erronka bat. Askotan, bertsotan hobeto egiten da bertsokide onak izanez gero, eta lagungarria izaten da". Oihanak, berriz, Beñat Gaztelumendi izango du alboan, egungo Gipuzkoako txapelduna. Ilusioa eragin dio horrek: "Beñatekin kantatzea ilusioa egiten didan zerbait da. Plazetan ez dut askotan kantatu Beñatekin, eta asko gustatzen zaidan bertsolari bat da".

## Berriro elkarrekin

Zoriak, laugarrenez, Arregik eta Tatiegik saio berean kantatzea nahi izan du. Pozik daude biak kasualitate horrekin. "Pozik nago Aitorrekin kantatzearen. Saio guztietan batera egoteak elkarri konfiantza ematea ekarri digu. Saio aurretik pertsona lasaia da eta gogotsu egoten da kanturako. Hori kutsatu egiten da", dio Arregik. Kasualitate multzoa uste baino handiagoa dela nabarmendu du Tatiegik: "Kasualitate handiagoa da oraindik ez dugula ofiziorik kantatu elkarrekin. Azken saioan bertsolari bakarrarekin gelditzen zinen kantatu gabe, eta ez zitzaigun elkarrekin egokitu".

## Hasi eta bukatu

Debagoiendarrak izango dira lehen eta azken saioan. Nabarmenezkoa da Haizearen kasua: "Azken saiotik lehenengora pasa naiz eta denbora gutxi izan dut final-laurdenetan nagoela asimilatzen". Bigarren saioan izango den Oihanak aitortu du

nahiago izaten duela amaieran kantatu: "Ez naiz lehen asteburuaren kantatzearen oso zalea, baina udaberriko fasean ere hala egokitu zitzaidan eta ez zen gaizki joan". Azken saioan izango den Arregik bi aldeak ikusten ditu: "Azken saioan kantatzeak bi alde ditu: denbora gehiago dugu ariketa berriak prestatzeko, fase berrirako entrenatzeko, baina, aldi berean, gainontzekoen saioak ikustera zoaz, puntuazioak ikusten dituzu eta urduritasuna sumatzen hasten da".

## Final-laurdenen egutegia

Bost saio izango dituzte final-laurdenek. Sarrerak, [bertsosarrerak.eus](https://bertsosarrerak.eus) atarian:

### URRIAK 19

17:00 Eibarko Coliseo antzokian (kantuan Haizea Arana).

### URRIAK 20

17:00 Errenteriako Lekuona fabrikari (kantuan Oihana Arana).

### URRIAK 26

17:00 Azkoitiko Baztartzoko antzokian.

### URRIAK 27

17:00 Irungo Ficobako Auditoriumean.

### AZAROAK 3

17:00 Tolosako Leidor aretoan (kantuan Aitor Tatiegi eta Maider Arregi).

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

# BIXI IBILI

URRIAK 22, MARTITZENA, 20.00 ETA 22.00  
HERRIEN ARTEKO TRIBIAL-PIKEA  
AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.



**DANBAKA ))))**



Korda Rota, Ktarsia, Sotoalde eta Malko taldeek inauguratuko dute seigarren Danbaka. GOIENA

# Seminarixoa 'danbaka' jartzeko deseatzten daude

Datorren ostiralean hasiko da Danbaka musika lehiaketaren seigarren edizioa. Hiru hilabeteen lau kanporaketa eta finala egongo dira jokoan –hamasei talde–, baina, lehia baino gehiago, musikarekiko pasioa eta gozamina izango dira nagusi

**Hasier Larrea Herrero** BERGARA  
Gaur zortzi irekiko da Danbakaren oihala, duela bi urteko oholtza berean, Bergarako Seminarixoan, baina jantzi eta apaingarri desberdinekin. Arrakastatsua izan zen orduko hartan eta parte-hartzaileen eskutan egongo da aurtengoa ere hobea izatea. Aramaioko The Claytonek eraman zuen gozoki nagusia, diskoa kalitate altuan grabatzeko oparia, eta ondo baliatu zuten aukera, *Over the red light* lanarekin frogatu zuten. Aiert bakarlaritari egokitu zitzaion, aldiz, kantu propio baten bideoklipa ekoizteko gonbidapena, eta Letagin taldeari Ekinez jaialdian zuzeneko jotzekoa. Sari berberen atzetik joango dira aurtengo protagonistak, eta, horretarako, epaimahaia eta publikoa poltsikoratu beharko dituzte.

Musikariekin harreman zuzena izaten dabil egunotan Jokin Bereziartua, Danbakaren hari-muturrak lotzeko arduraduna,

eta honela ikusten ditu prestaketa-egun hauek: "Estreinaldi bereziak hurbiltzen diren heinean *in crescendo* doan zirrara berezi hori ari gara sentitzen. Egon gara Danbakaren protagonista diren taldeekin, besteak beste, aurkezpen-bideoak ere ekoizten ari garelako, eta badakit urduritasun puntua badutela. Ia denentzat izango da esperientzia berria eta ziur nago modu berezian prestatuko dutela".

Taldeak ohituta ez dauden erakusleho baten barruan izango dira, baina nerbioen gainetik gozatzeko gogoari egin dio gozazarre Bereziartuak: "Ordu erdi bat egingo dute agertoki gainean, eta zukutu dezatela segundo bakoitza. Euren proiektua ahalik eta txukun aurkezteko ahalagin horretan urduri egotea ona ere bada, baina disfruta dezatela, horrek beharko luke lehen egitekoa; agertokiaz, beste taldeen zuzenekoaz, afariaz, chill-out guneaz... Danbakaz, azken finean".

## Kontzertuak

### Urriak 25

- Korda Rota.
- Ktarsia.
- Sotoalde.
- Malko.

### Azaroak 15

- Eten.
- Low Cost Deluxe.
- Rebel Noise.
- K-Po.

### Azaroak 29

- Del Val.
- Henko.
- Karena.
- Txerrikumeak.

### Abenduak 13

- Banana Shake.
- Ondare.
- 721-Gogor Gabiltza.
- Maider Mimi.

### Urtarrilak 17 Finala.

## Goienakideen txokoa

### URRIKO SARIAK

#### TD Systems telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: telebista



#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOENAKIDE  
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrez gero (370 15/1999) egonen duen adrean jakingo duzue zuzeneko Goiena Komunikazio Zerbitzuaren (Bidezko) automatizatutako baten sartuko direla. Datu bilaketa honen helburua bilaketa da indarrez gero zuzeneko gaitasunak. Eskubidea eragozle daturatzen sartze, baina zuzeneko edo ez zuzeneko helbide berria idatzi: goienakide@goiena.eus

#### Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker  
"Posta elektronikoz gabeko gutunak" antzerkiak sareak ditugu.  
Arrasate | Amala Antzokia | Urriak 27 | 19:30ean

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOENAKIDE "Antzerkia"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrez gero (370 15/1999) egonen duen adrean jakingo duzue zuzeneko Goiena Komunikazio Zerbitzuaren (Bidezko) automatizatutako baten sartuko direla. Datu bilaketa honen helburua bilaketa da indarrez gero zuzeneko gaitasunak. Eskubidea eragozle daturatzen sartze, baina zuzeneko edo ez zuzeneko helbide berria idatzi: goienakide@goiena.eus

#### Irabazi tarta goxo bat

GOXO GOXUA GOZOTEGIARI ESKER  
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!  
Parte hartzeko azken eguna: urriak 22

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean

📞 GOENAKIDE Jatorria  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...  
Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



goiena" kide  
Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxe bat errentan hartu nahiko genuke. Hiru neska aretxabaletar gara. Lan egonkorra dugu. 688 62 99 56 edo 616 76 04 61

**Bergara eta inguruak.** Etxean errentan hartzeko etxe bila nabil Bergara eta inguruetan. Bi ume dituen pertsona arduratsua naiz. 645 70 34 10

**Bergara.** Errentan hartzeko pisu bila nabil. Bi pertsona gara. 645 72 92 87

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta-Eskoriatza baserria.** Baserri batean, adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egingo dituen emakume baten bila gabilta. Astelehentik larunbatera bitarteko 40 ordutako kontratua, goiz eta arratsalde. Ibilgailua edo gidabaimena eta Soziosanitario titulua beharrezkoak dira. Baldintza onak. Telefonoa: 628 44 00 49 (15:00etik aurrera deitu)

**Arrasate.** Eguerdietan umei ikastolatik jaso (Umezaintza-Arimazubi) eta jaten emateko pertsona baten bila gabilta. Koxea izatea edo ikastola horien inguruan bizitzea beharrezkoa da. Etxeko garbiketarako egiten jakitea baloratuko da, zaintzaz gain etxe garbitzaile bila ere gabiltzalako. Telefonoa: 670 53 10 25

**Bergara.** Emakume bat behar da nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. 607 54 07 72

**Ume txikia zaindu.** Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zaintzeko. Ez da ordutegi finkoa eskeintzen, beharren arabera. 653 72 31 71

## 402. ESKAERA

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 685 73 87 95

**Arrasate.** Neska gazte eta arduratsua, gauetan orduka, pertsonak zaintzako gertu. 672 78 04 30

**Bergara eta Arrasate.** Bergaran, neska goizetan garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak paseatzeko prest. Astelehentik ostiralera Arrasateko ospitalean gauak egiteko aukera dut. 642 37 01 92 (Lina Marcela)

**Bergara.** Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketarako egiten lan egingo nuke. Orduka lan egiteko gertu. Esperientzia eta lan-erreferentziak ditut. 666 07 42 98

**Debagoiena.** Asteburuetan eta jaiegunetan lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Deitu 672 94 82 80 zenbakira.

**Debagoiena.** Asteburuetan zein asteburuetan orduka lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan edota garbiketarako lanetan. Deitu 612 56 12 39 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxetik kanpo bizitzen lan egingo nuke.

Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu 662 02 45 80 zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestelara lan egingo nuke. Sukaldari laguntzaile edo zaintzaile lanak egiteko gertu. Esperientzia dut. 613 33 09 34

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Etxetik kanpo bizi izaten. Deitu telefono zenbaki honetara: 642 39 90 66

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo pertsona nagusien zaintzan, pasiatzera laguntzen edota ospitalean konpainia egiten lan egingo nuke. Orduka lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. 643 50 58 27

**Debagoiena.** Neska gazte orduka lan egiteko prest. Asteburuetan eta asteburuetan lan egingo nuke pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiten. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 627 03 16 40

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut, baita erizaintzako ikasketak nire herrialdean. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Deitu telefono honetara: 643 50 56 62

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen neska gaztea. Orduka lan egingo nuke asteburuetan zein asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 82 64 84

**Debagoiena.** Pertsonen zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu. 15 urteko esperientzia dut. Soziosanitario titulua. Deitu 602 07 40 39 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Soziosanitario tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka lan egingo nuke. 604 23 85 31

**Debagoiena.** Tabernetako eta etxeko garbitzaile gisa eta adinekoei paseatzera laguntzeko lan bila nabil. 642 26 61 50

**Oñati eta Arrasate.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Deitu 677 42 20 97 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 603 77 58 82

## 8. DENETARIK

## 807. AURKITU

**Eraztuna aurkitu du.** Urkulu inguruko basoan urrezko ezkontza-eraztun bat aurkitu da. Barnean testua dauka idatzita. Galdu duenak dei dezala 656 90 82 93 telefono zenbakira.

## Korosti inmoiliaria

**Bergara: Goenkale,**  
100m², unifamiliarra 3 solairukoa, 3 logela, egongelan tximinia.  
300.000€



**Bergara: Basalگو auzoan**  
baserri ederra, 23 hektareako lursailarekin  
315.000€

**Bergara: Aumategi bidea,**  
96m², 3 logela, trasteleku ederra duplexa egiteko aukerarekin eta lur saila aukeran.  
118.000€



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

Informazio gehiago:



## OROIGARRIA

## Bitor Agirre Gonzalez de Mendibil



Oihane Agirre lankidearen aita


2024ko urriaren 15ean hil zen, 91 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.  
Aretxabaletan, 2024ko urriaren 18an.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Txaro Azkarate Zabarte**  
Urriaren 22an, Urtebetetzea. Zorionak, tia! Familiako partetik.



OÑATI  
**Negu Letamendi Mugarza**  
22an, 2 urte. Zorionak! Egun ederra pasau. Muxu handi bat.



ARETXABALET  
**Ekain Garro Larrañaga**  
21an, 9 urte. Zorionak, txapeladun! Familiako partetik!



OÑATI  
**Unax Benito Alzalai**  
20an, 9 urte. Zorionak! Ez aldatu! Asko Maite zaitugu! Zure familia.



ARETXABALET  
**Gari Etxeberria Elortza**  
20an, 4 urte. Zorionak! Ondo pasau eta patxo potolo bat danon partetik.



ARRASATE  
**June Garitaonandia Vecino**  
18an, 5 urte. Zorionak! Muxu bat familian partetik!



BERGARA  
**Ur Bengoa Olabide**  
17an, 9 urte. Zorionak! Segi oiñarte moduan jator! Maite zaitzugu!



ANTZUOLA  
**Dare Asensio Cabrera**  
16an, 9 urte. Zorionak, Printzes! Patxo pila, batez be Axelen partetik!



OÑATI  
**Aner Olasagasti Bernal**  
15an, 9 urte. Zorionak! 9 urte gure bizitza alaitzen!



ARRASATE  
**Alaitz Nin Ugalde**  
14an, 11 urte. Zorionak, txini! Patxo ikaragarri bat etxeko partetik!



BERGARA  
**Maddi Mendizabal Larrañaga**  
14an. Zorionak! 10 urte iadanik gure etxeko txikixak!



OÑATI  
**Iraide Zumalde Irazabal**  
8an, 10 urte. Zorionak familia guztian partetik!

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## BERRI-ZAKUA



## Elena eta Iñaki

"Zapatuan, 50 urte ezkondu zinetela. Zorionak eta eskerrak asko, familia guztiaren partetik. Egun polita pasa ezazue".



## Kintada

1944an jaiotako bergarretako batzuk urteko kintada egiteko elkartu ziren. Egun-pasa ederra egin zuten, eta gaztetako kontuei buruz berba egin zuten.

OROIGARRIA

## Bittor Agirre Gonzalez de Mendibil

2024ko urriaren 15ean hil zen, 91 urte zituela.



---

*Zein gogorra den zu joaten ikustea.  
Baina zenbat une goxo elkarrekin.  
Horrekin geratuko gara, Bittor, tio.  
Asko maite duenak asko sufrizten du.  
Itsuen!*

Karmeleri, seme-alabei eta gainontzekoei besarkada estu bana,  
eta aurrera, beti aurrera!

---

Agirre-Beitia familia.  
Aretxabaletan, 2024ko urriaren 18an.

OROIGARRIA



## Marijo Etxebarriarteun Arenaza

2024ko urriaren 13an hil zen, 61 urte zituela.



---

*Zein goiz utzi gaituzun, Tia Jox.  
Ez ditugu inoiz zure barre eta algarak ahaztuko.  
Asko maite zaitugu!*

Zure ilobak: Aner, Ainhoa eta Aitor, Beñat eta Asier, Markel, Asier,  
Haizea, Oihane, Eider, Josu.


---

Aretxabaletan, 2024ko urriaren 18an.

OROIGARRIA


## Eusebio Villar Azkarate

2007tik 2011ra Leintz Gatzagako alkatea.  
2024ko urriaren 14an hil zen, 74 urte zituela.



---

AGUR ETA OHORE.



---

Leintz Gatzagako Udala.  
Leintz Gatzagan, 2024ko urriaren 18an.

ESKER ONA



## Bittor Agirre Gonzalez de Mendibil

2024ko urriaren 15ean hil zen,  
91 urte zituela.



---

*Agur, aitxa, bidaia on!  
Zoazen lekura zoazela, umorea eta gertutasuna ez dira faltako,  
arrastoa utzi duzu!  
Zu izan zara gure patroia.  
Izan zarelako izango gara.  
Ikusi arte*

Haren emaztea: Karmele Unzueta; haren seme-alabak: Dabid eta Ana, Nuria  
eta Asier, Maria eta Xabi, Ibon eta Oihana, Oihane eta Aitor, Ekain; bilobak:  
Ainhize, Unax, Aitzol, Uxue, Oskitx, Gartxot, Libe eta Irene.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

ESKER ONA



## Rosario Igartua Erostarbe

Miguel Mugarzaren alarguna  
2024ko urriaren 15ean hil zen, 91 urte zituela



---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Oñatin, 2024ko urriaren 18an.

ESKELA

## Eusebio Villar Azkarate

2024ko urriaren 14an hil zen, 74 urte zituela.

---

Herrixen gauzak itxen jarraitetako ilusiñua euki dau azken momentura arte,  
baina 2024ko urriaren 14ien fan da.

Lagunen elkartasan eta gertutasunagaitik oso eskertuta dau familia: anai-  
arrebak, koinatu-koinatak, lobak eta gainerako senitartekuak.


---

Azken agurra, berak gure auen moruen, bere etxeko sozidadien (Santiago 8)  
ingo da, 2024ko urriaren 19xen, larunbata, 12:00etatik 14:00etara.

---


Leintz Gatzagan, 2024ko urriaren 18an.

ESKER ONA



## Jaime Retolaza Errasti

—Goian bego—  
2024ko urriaren 13an hil zen, 67 urte zituela.



---

Haren emaztea: M. Jesus Ugarte Bolibar; seme-alabak: Idurre eta Urko, Unai  
eta Ane; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak,  
lagunak eta gainerako ahaideek jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak  
eskertu nahi dizkizute.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Bergaran, 2024ko urriaren 18an.

ESKER ONA



## Maria Pilar Mugarza Alustiza

Jose Ramon Olea Garmendiaren alarguna  
2024ko urriaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.



---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Oñatin, 2024ko urriaren 18an.

MEZA



## Lourdes Iñurritegui Zubia

Manolo Zabalaren alarguna  
2024ko urriaren 3an hil zen, 84 urte zituela.



---

Ondra-meza zapatuan izango da, urriaren 19an,  
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

---


Bertaratuko zaretenoi eskerrik asko alde zaurretik.  
Oñatin, 2024ko urriaren 18an.

URTEURRENA



## Pascasio Goitia Goitia

2023ko urriaren 17an hil zen, 91 urte zituela.



---

*Betirako gurekin zaude naiz eta urtea pasatu.  
Gure ondoan eta gure bizitzaren bidean alkarrekin.*

---

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 19an, 19:00etan,  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren.

---

Aurrez eskerrak bertaratuko zareten guztioi.  
Oñatin, 2024ko urriaren 18an.

URTEURRENA



## Libe Martinez Etxabe

2023ko urriaren 22an hil zen, 52 urte zituela.



---

*Beti eramango zaitugu gure bihotzean.  
Maite zaitugu.*

---

Etxekoak.  
Arrasaten, 2024ko urriaren 18an.

**BABESLEA**

# Oroilore

*Hileta zerbitzuak*

---

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

---

*Gure artean agurtutako guztiak  
gure bidez aurkitzen lagunduz  
ditugu, orain arte bezala, eta guztiak  
izango ditue agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gurean  
izan dituzten konfiantzagarriak eta  
maitagarriak.*

---

**Mario, Iban eta Maribeli**

---

**617 44 21 55**  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 18

**OÑATI** Janari bilketa

Hotz Oñatiren eta Zaporeak elkartearen eskutik, herriko hainbat dendatan.

*Herriko dendatan, 10:00etan.*

**OÑATI** Odol-ematea

Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.

*Enpresagintzan, 16:00etan.*

**ESKORIATZA** Patin ikastaroa

Aste Berdearen baitan, LHko 3. mailatik 6. mailara arteko umeendako.

*Luis Ezeizako kantxan, 16:45ean.*

**ARETXABALETA** Ihes-gela 9 urtetik gorakoendako

Izena: *haurliburutegia@aretxabaleta.eus* edo 943-08 10 01. *Haur liburutegian, 17:00etan.*

**ARRASATE** 'Kamarada' dokumentala eta solasaldia  
Celestino Uriarteren bizitzan oinarritutako lanaren ostean, Juan Ramon Garairekin solasaldia. *Kulturaten, 17:30ean.*

**BERGARA** 'Gozo Bergara' topaketa

Elikadura osasungarriaren eta iraunkorraren gaineko mahai-inguruak eta solasaldiak. *Udaletxean, 17:30ean.*

**ARAMAIO** 32. Kaleko Margo Lehiaketako erakusketa  
Domekara arte egongo dira ikusgai. *Sastiñan, 18:00etan.*

**ELGETA** 'Hideane eta bere lagunak' liburuaren aurkezpena  
Liburuaren egile Ane Bastida egongo da ekitaldian. *Liburutegian, 18:30ean.*

**OÑATI** 'Ja! Uraren krisia Chiapasen' dokumentala eta solasaldia

Ane Nafarrateren, Ihana Iriondoren eta Aitziber Jimenez de Aberasturiren lana, Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldearen eskutik. Solasaldian egongo dira dokumentalaren egileak. *Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARAMAIO** 'Badago alternatiba: Euskal Herriarentzat desazkundera' hitzaldia

Adrian Almazan fisikariak egingo du berba.

*Oletako herriko tabernan, 19:00etan.*

**BERGARA** Mark Duti eta Braulio taldeak

Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrea, 22:00etan.*

## ZAPATUA 19

**ANTZUOLA** Aiherra-Antzuola Eguna

40. urteurrena ospatuko dute Aiherran. *Herriko Plazan, 08:00etan.*

**ARRASATE** Sagar Eguna

Hileko hirugarren zapatuko azoka. *Seber Altube plazan, 09:00etan.*

**ARRASATE** Erreka garbiketa  
Taldeen banatuta hiru gunetatik abiatuko dira: Elorregi, San Isidro eta Arizmendiarieta plaza. *Leku horietan, 09:30ean.*

**BERGARA** Erreka garbiketa

Taldeak osatuko dituzte eta hiru gunetan elkartuko dira: Labegarieta kiroldegia, Osintxu eta Seminarioko patioa. *Leku horietan, 09:30ean.*

**ARETXABALETA** Erreka garbiketa

Errotabari-Txakoli eta Arbizelai-Txakoli tarreak garbituko dituzte, taldeen banatuta. *Herriko Plazan, 09:30ean.*

**ARAMAIO** Erreka garbiketa  
Aramaioko erreka inguruko bazterrak garbituko dituzte. *Bizente Goikoetxea plazan, 09:30ean.*

**OÑATI** Erreka garbiketa

Biltzen den jendearen arabera egingo dituzte taldeak eta erabaki erreka zein zati garbitu. *Foruen plazan, 10:00etan.*

**OÑATI** Janari bilketa

Herriko hainbat dendatan. *Herriko dendatan, 10:00etan.*

**OÑATI** 'Ruraltxa' argazki erakusketa

Mendiko larreak erabiltzen dituzten abeltzaintza ustiatzeen gainekoa. *Arantzazuko Parketxean, 10:00etan.*

**ESKORIATZA** Ezkurtxo Zarimutzen

Ibilaldia, ipuin kontaketa musikatu eta beste hainbat ekintza. *Zarimutzen, 10:00etan.*

**ARETXABALETA** DJ tailerra

Dan-tz Academyren eskutik, 12 urtetik gorako gaztetxoentzat. *Arkupen, 10:00etan.*

**ARETXABALETA** Ihes-gela 9 urtetik gorakoendako

Izena: *haurliburutegia@aretxabaleta.eus* edo 943-08 10 01. *Haur liburutegian, 10:00etan.*

**ARRASATE** Gipuzkoako Adinekoen Martxa

10:00etan, ongiatorria; 11:00etan, zazpi kilometroko ibilaldia; eta ostean, bazkaria. *Herriko Plazan.*

**ESKORIATZA** Erreka garbiketa

Biltzen den jendearen arabera antolatuko dute goiza. *Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.*

**ELGETA** Erreka garbiketa

Asentzio ingurua garbituko dute. *Asentzion, 11:00etan.*

**OÑATI** Arantzazu ezagutzeko bisita gidatua

Juan Ignazio Larreak gidatuta, bi hizkuntzatan. Sarrerak, bost euro. Izena emateko: 688 61 38 40 edo *adiskideak@arantzazu.org*. *Santutegian, 11:00etan.*

**BERGARA** 'Gozo Bergara' topaketa

Elikadura osasungarriaren eta iraunkorraren gaineko mahai-inguruak eta solasaldiak. *Udaletxean, 11:00etan.*

**ARRASATE** Armarriak ezagutzeko bisita

Jose Mari Agirrekin, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. *Iturriotz iturritik, 11:00etan.*



BILBOKO PABELLON 6

**ARETXABALETA** 'Egun zoragarriak' antzezlan

Adiskidetasunaren, harreman pertsonalen eta egunerokotasunetik alde egiteko irudikatzen diren fantasien gaineko hausnarketa, Bilboko Pabellon 6ko Gazte Konpainiaren eskutik. Sarrerak, bost euro. *Bihar, domeka, Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI** 'Auzolanaren fruituak Oñatin' bisita gidatua

Ondarearen Europako jardunaldien baitan. Izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 12:00etan.*

**ARAMAIO** Euskal Herriko bola-joko txapelketako saioa

Bigarren jardunaldia jokatzear gain, txapelketaz kanpoko bola tiraldiak (14:30) egongo dira. 20:00etan, Hankaz Gora eta Laino Beltzak taldeak. *Etxaguengo bolatokian, 17:00etan.*

**ESKORIATZA** Dantzaldia Joxe Mendizabalekin

Pasodobleak, balsak, rantxerak, tangoak... *Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

**ARRASATE** Gaztaina-batzea

Kurtzetxiki ingurura joango dira gaztetxoak. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA** 'Hona bostekoa' komiki erakusketa

Unai Gaztelumendiren *Harresia*, Eñaut Aiertzaguenaren *Gure basoak*, Kotetoren *Txillardegia Bergaran*, Mattinen *Handantza* eta Aritz Ibarrenaren *Aldaxka pozoituak* komikiak ikusgai. *Olaran etxean, 18:30ean.*

**OÑATI** Olatz Salvador

Sarrerak: aurrez hamar euro eta leihatilan hamabi. *Gaztelekuan, 19:00etan.*

**BERGARA** Boxeo jaialdia

Hamabost boxeo borrokaldi, Soraboxek antolatuta. Sarrerak, hoge euro. *Labegarietan, 19:00etan.*

**ARRASATE** Anker, Jasan eta Slide taldeak

Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

## DOMEKA 20

**OÑATI** Haurrendako arte lantegia

6 eta 12 ume bitarteko umeak dituzten familiendako. Sarrerak, bost euro. Izena emateko: 688 61 38 40 edo *adiskideak@arantzazu.org*. *Gandiaga Topagunean, 10:30ean.*

**ARETXABALETA** Mundukideren lasterketa solidarioa

Hiru aukera: korrika (11:00), oinez (10:30) eta martxa nordikoa (10:30). *Urkulun.*

**OÑATI** Ipuin kontaketa Marimundukorekin

Izena emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*. *Arantzazuko Parketxean, 11:30ean.*

**BERGARA** Musika Bandaren kontzertua

Eguraldi txarra bada, San Pedro elizan. *San Martin plazan, 12:30ean.*

**ARRASATE** Gaztaina erreka

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA** 'Egun zoragarriak' antzezlan

Bilboko Pabellon 6ko Gazte Konpainiaren eskutik. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 19:00etan.*

**ESKORIATZA 'Hemen ez du inork ordaintzen' antzezlana**  
Doke Antzerki Taldearekin.  
Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**BERGARA Organo emanaldia**  
Aitor Olea organistaren eta Airean ahots taldearen emanaldia.  
*Santa Marinaran, 19:00etan.*

**ARRASATE Dantza emanaldia**  
Amaia Elizaranek, Ixak eta La Rutan-ek koreografia bana egingo dute. Sarrerak, hamar euro.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 21

**BERGARA Adimen artifizialaren gaineko hitzaldia**  
Jokin Labaienek, Beñat Arrietak, Uxue Lazkanok eta Ion Iruretak egingo dute berba.  
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARRASATE 'Bihotzaren erritmoan dantzan' hitzaldia**  
Kardiologian espezializatutako EHUKo irakasle Larraitz Gaztañagak egingo du berba.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran.  
*Herri horietan, 12:00etan.*

**OÑATI Haurren Irakurketa Kluba**  
Peru Magdalenak gidatuta, LHko 4. eta 5. mailetak haurrendako.  
*Liburutegian, 17:00etan.*

**OÑATI Palestinaren aldeko elkarretaratzea**  
Gernika Palestina herri dinamikak deituta.  
*Foruen plazan, 19:00etan.*

## MARTITZENA 22

**ARETXABALETA 'Zauria(k)' filma**  
Sufrimendu psikosoziala eta genero bizipenak uztartzen ditu, bederatzi emakumeren errealitateak kontatuta.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**  
Ikasturteko lehena, Itziar Ugartek gidatuta.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Beasaingo Gurea eta San Joxepeko abesbatzen emanaldia**  
Elkarrekin jardungo dute.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ELGETA Hitzez Pitz taldea**  
Adriano Mataren *Sanroketarako*, *etxean* liburuaren gaineko saioa.  
*Liburutegian, 19:00etan.*

**ARRASATE 'El monje y el rifle' pelikula**  
Martitzenetako emanaldia.  
*Amaia antzokia, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 23

**BERGARA 'Barandiaran eta Euskal Pizkundea' hitzaldia**  
Jon Mentxakatorrekin.  
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA 'Gazteen ongizate emozionala'**  
Herrietako elkarteetako kideak eta merkatariak elkartuko dira.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Atximurka' kontuak eta kantak**  
2 urtetik gorako umeendako.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**BERGARA 'Elikadura menopausian: goseak buztana labor' hitzaldia**  
Jabekuntza Eskolaren baitan.  
*Irizarren, 18:00etan.*

**ARAMAIO Itsaraz parkea: batzarra**  
Egungo egoeraren gaineko azalpenak emango ditu Udalak.  
*Udaletxean, 18:00etan.*

**BERGARA 'Oroimena eta ahazteak' hitzaldia**  
Emma Okamikak egingo du berba.  
*Seminarixoan, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Lurzoruaren garrantzia' hitzaldia**  
Jakoba Errekondorekin.  
*Zaldibarren, 18:30ean.*

**OÑATI 'ZtandaP' ikuskizuna**  
Idoia Torregarairarekin eta Mirari Martiarenarekin. Debalde.  
*Zinema-aretoan, 19:00etan.*

## EGUENA 24

**DEBAGOIENA Araotz-Degurixa-Maruatx ibilaldia**  
Goienagusiko kideek egingo dute.  
*Araotzen, 10:00etan.*

**OÑATI Ipuin kontaketa**  
4-5 urteko bitarteko umeendako Yolanda Arrietarekin.  
*Haurren liburutegian, 18:00etan.*

**OÑATI 'Gazteak eta pantailak' hitzaldia**  
Miren Rosek egingo du berba.  
*Oñati Institutuan, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Bertso-saio espekulatiboa'**  
Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina bertsolariekin.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE Ipuin ilustratuak**  
4 urtetik gorakoendako.  
*Santa Marinarako bibliotekan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Maleta kontuak' ipuin kontaketa**  
Maider Galartzarekin.  
*Bibliotekan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Autismoaren Espektroko Nahasteak. Ezagutu eta zure mundua zabaldu' hitzaldia**  
Maider Triviñok egingo du berba, Xabier Askasibarrek gidatutako saioan.  
*Olaran etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Hitanoa berpizteko lanak' hitzaldia**  
Idoia Etxeberriak egingo du berba.  
*Olaso dorrean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Casa en llamas' filma**  
Zineklubean. Sarrerak, bost euro.  
*Zinema-aretoan, 19:30ean.*

**ARRASATE Keia taldea**  
Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**La infiltrada**  
Zapatua eta astelehena: 19:30.  
**10 vidas**  
Zapatua: 17:30.

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Bitelchús**  
**Bitelchús**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Soy Nevenka**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Liztor kapitaina**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Buffalo Kids**  
Domeka: 12:00.  
**La virgen roja**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:00.

Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.  
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00.  
Martitzena: 17:00, 20:30.

**Soy Nevenka**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.  
Astelehena eta eguena: 17:15.  
Martitzena: 19:15.  
Eguaztena: 17:15, 19:45.

**Crossing**  
Egubakoitza eta zapatua: 21:45.  
Domeka: 12:00, 20:30.  
Astelehena: 19:45.  
Martitzena: 18:20.  
Eguaztena: 19:15.

**El club de los milagros**  
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.  
Domeka: 19:00, 20:45.  
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30.  
Martitzena: 16:30, 18:20.

**La infiltrada**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 12:00, 16:00, 18:30, 21:00.  
Astelehena: 17:00, 19:45.  
Martitzena: 16:45, 20:30.  
Eguaztena: 17:00, 19:30.  
Eguena: 17:00.

**La sustancia**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:15.  
Domeka: 20:30.  
Astelehena eta eguena: 19:15.  
Martitzena: 19:30.

**Los destellos**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:40.  
Domeka: 12:00, 16:15, 18:20.

**Robot salvaje**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:40.  
Domeka: 12:00, 16:15, 18:20.

**Here**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 22:15.  
Domeka: 16:30, 18:30.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00.  
Martitzena: 16:15.

**La habitación de al lado**  
ZaEgubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45, 22:00.  
Domeka eta martitzena: 16:15, 18:30, 20:40.  
Astelehena: 17.10, 19:20.  
Eguaztena eta eguena: 17:15, 19:30.

**Joker: folie a deux**  
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 16:30.  
Domeka: 20:30.  
Astelehena eta eguaztena: 17:00.

**El oro verde**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30.  
Domeka: 16:30, 20:30.  
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:15.  
Martitzena: 20:30.

**Here**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 22:15.  
Domeka: 16:30, 18:30.

## KRITIKA

### La habitación de al lado

★★★★★

**Zuz.:** Pedro Almodovar. **Herr.:** Espainia (2024). **Aktoreak:** ITilda Swinton, Julianne Moore, John Turturro. **Iraupena:** 106 minutu.

## Hurbilpen zirrargarria

### ANTONIO ZABALA

Almodovarren azken urteetako filmak ez dira hain elektrikoak. Nahiz eta haren istorioak sentimendu asaldagarriak beteta egon, zuzendaria modu lasaian eta neurritsuagoan hurbiltzen da pertsonaiengana. Horren adibide da *La habitación de al lado*. Zuzendariak oso ondo daki filmari behar duen erritmoa eta tonua ematen. Sentiberatasunez, dotoreziak eta sakontasunez hurbiltzen da, pertsonaien harremanak eta sentimenduak zehaztasun osoz aditzera emateko. Filmak Almodovarren marka du: kolore biziak, erabilitako dekoratuak, Alberto Iglesiasen musika... Baina istorioak gero eta barnekoioagoak dira; pertsonaia gutxiagorekin eginak daude.

Kasu honetan, filmaren protagonistak urte askoan elkar ikusi ez duten bi emakume dira. Bata oso egoera latza jasaten ari da; oso aurreratua dagoen minbizia du. Bestea lagunari laguntzen ahaleginduko da hark hartzen dituen erabaki guztietan. Adiskidetasunari buruz hitz egiten digu filmak. Era berean, gizakiok heriotzari duintasunez aurre egiteko daukagun eskubidea aldarrikatzen du. Bi pertsonaia nagusiengana hurbiltzeko modua zirrargarria da. Tilda Swintonen eta Julianne Mooreren interpretazioak bikainak dira. Pertsonaien barneko zurrumbilo emozionala eta euren arteko adiskidetasunean gertatzen den garapena eta aberastasuna bikain azalduta dago.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Zerra

Egunotan Ondarearen Europako Jardunaldiak egiten ari dira Europan zehar, baita bailara honetan ere. Ekitaldien helburua da, webgunean diotenez, "publikoa sentsibilizatzea Europako kultura ondarearen aberastasunari eta aniztasunari buruz, kulturen arteko elkarrizketa sustatzea eta gure ondare komunaren babesa sustatzea". Mondragoetar askorentzat Udaltzeko gurutzua zerbait bazen, iruditzen zait, ondarea zela.

Gurutzearen motzondoan jarritako testuan adierazten da hildako mendizaleen oroigarria zela. Hala ere, ez dut uste gehiengo zabalak horrela ikusten zuenik, are gutxiago Besaide hain gertu izanik. Erreferentzia zen, behetik begiratuta edo han inguruan egonda, baina, seguruenik, gaurko gizartean gutxi izango zuen erreferentzia erlijiosotzat.

Kuriosoa da goiko gurutzua moztu ez izana. Eta kuriosoa da testuan Mari aipatzea. Erradikalagoak izanda, zergatik ez goraiatu Mari baino lehenagoko sinesmenak?

Ondare izateak ez du esan nahi kendu ezin denik. Baina modu horretan, behin bidea erakutsita, hemendik urte batzuetara agian beste konfesioetako herritarrek ere heldu diezaioke zerrari.

BUKATZEKO

# Kataluniako ohiturek ere tokia dute Euskal Herrian

'Casteller' talde bat sortu da Euskal Herrian, eta badaude entsegetara joaten hasi diren hiru debagoiendar. "Hazia landatuta" dago jada, baina jendea batzen jarraitu nahi dute eta "ateak irekita" dituzte "probatu nahi duen edonorentzat"

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA  
Ohikoa da Kataluniara joan eta herrietako festetan gizakiek osatutako dorreak ikustea. *Castells* izenez ezagutzen dira giza dorre horiek, eta Kataluniako betiko ohitura dena Euskal Herriara ere iritsi da. Duela hila-bete batzuk iritsi zen ekimena, eta txoko askotariko jendea batzen joan da taldera, Kataluniako ohiturak Euskal Herrian ere indarra hartu dezan. Taldea osatzen dutenen artean hiru debagoiendar daude: Aitor Zengotitabengoa bergararra, Eritz Campos oñatiarra eta Eduard Ferrer, duela urte batzuetatik Oñatin bizi den kataluniarra. Atzerrian badaude giza dorreak egiten dituzten hainbat talde, baina ez zen Euskal Herriaren kasua, orain arte. Zengotitabengoa dio Euskal Herrian *colla* -giza dorreak egiten dituzten taldeak- propio bat ez izateak bultzatu zituela taldea sortzera: "Harritzekoa dirudi Euskal Herriak *colla* propiorik ez izatea. Hori bera pentsatu zuen Euskal Herrian bizi den kataluniar talde batek, eta, hartara, lanean hasi eta, inguruko euskaldun batzuegan piztutako interesa ikusita, *casteller* talde



Euskal Herriko Casteller Taldea, entsegu batean. AITOR ZENGOTITABENGOA



Campos, Zengotitabengoa eta Ferrer, azpian, zapiari eusten, euren taldekideekin. A.Z.

bat martxan jartzea erabaki genuen".

### Taldea osatzen

Euskal Herriko Casteller Taldea edo, katalanez, *Colla Castellera d'Euskal Herria*, du izena sortu berri duten taldeak. Gaur egun "100 pertsonatik gorako Whatsapp talde bat" dute, eta "entsegu orokorretan 30-40 pertsona" batzen direla dio Zengotitabengoa. "Elkarte bat" sortu dute eta euren helburu nagusia "Kataluniako kultura ezagutaraztea" dela dio bergararrak. Gaur-gaurkoz, entsegetan murgilduta daude, eta Zengotitabengoa aprobetxatu nahi izan du taldea ezagutu berri dutenak entsegetan parte hartzera animatzera: "Eguaztenetan Donostian eta eguenetan Bilbon elkartzan gara, 19:00etan. Bestalde, domeka goizetan entsegu orokorrak egiten dira astero, Euskal Herriko hainbat tokitan. Urriaren 27rako Oñatin egingo dugu hitzordua: eguraldi ona bada, Foruen Enparantzan izango da; txarra bada, Zubikoa kiroldegiko frontoian -informazio gehiago, Instagram eta Whatsapp komunitateetan-".

### Etorkizuna egonkortzen

Lehen taldetxoa eratuta eta entseguekin hasita, "hazia landatuta" dagoela dio Zengotitabengoa. Orain, "taldea pixkanaka koskortzen joateko ahalginak egiten" ari dira, "parte-hartzaileen teknika hobetuta eta taldera pertsona gehiago batzen. Etorkizunerako emandakia lotzen ere hasi gara, eta Kataluniako zein Europako *casteller*-ekin harremanetan jarri gara ekitaldi bateratuak sortzeko".

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## DANBAKAST

URRIAK 24, EGUENA, 20:00 ETA 22:00  
MUSIKARI ESKAINITAKO BIDEPODCASTA  
JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUTA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.

